

# **ZIGOR-PROZESU BEREZIAK**

## LABURDURAK

ART.....	Artikulua
AG.....	Auzitegi Gorena
AK.....	Auzitegi Konstituzionala
AX.....	Azken Xedapena
BJKO.....	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
BJLO.....	Botere Judizialaren Lege Organikoa
ED.....	Errege Dekretua
EK.....	Espainiako Konstituzioa
EN.....	Entzutegi Nazionala
EZPNI.....	Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna
GEEH.....	Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
KALO.....	Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa
ZK.....	Zigor Kodea
KZ.....	Kode Zibila
LO.....	Lege Organikoa
MFEO.....	Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa
PKL.....	Prozedura Kriminalaren Legea
PZL.....	Prozedura Zibilaren Legea
ZELO.....	Zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoa
XD.....	Xedapen Derogatzailea
XG.....	Xedapen Gehigarria

# **AURKIBIDEA**

## **1. KAPITULUA: PROZESU ARRUNTAK**

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Prozedura arrunta
  - 1.2.1. Gai orokorrak
  - 1.2.2. Instrukzio-fasea: sumarioa
  - 1.2.3. Tarteko fasea
  - 1.2.4. Ahozko epaiketa
- 1.3. Prozedura laburtua
  - 1.3.1. Gai orokorrak
  - 1.3.2. Prozedura laburtua aplikatzeko irizpideak
  - 1.3.3. Prozedura laburtuaren ezaugarriak
  - 1.3.4. Instrukzio-fasea: aurretiazko eginbideak
  - 1.3.5. Tarteko fasea: ahozko epaiketa prestatzeko fasea
  - 1.3.6. Ahozko epaiketa
- 1.4. Falta-prozedura
  - 1.4.1. Gai orokorrak
  - 1.4.2. Prozeduraren garapena
  - 1.4.3. Falta-prozedura motak: berehalako prozedura eta prozedura arrunta
- 1.5. Metaturiko prozesu zibila

## **2. KAPITULUA: ZIGOR-PROZESU BEREZIAK ETA PROZEDURAZKO BEREZITASUNAK**

- 2.1. Prozesu berezien eta prozedurazko berezitasunen arteko desberdintasuna
- 2.2. Prozedurazko berezitasunak
  - 2.2.1. Senatarien eta Diputatuen kontrako prozesuetan
  - 2.2.2. Kalumniagatiko eta irainagatiko prozesuetan
  - 2.2.3. Edozein hedabidek egindako delituengatiko prozesuetako ezaugarriak
- 2.3. Prozesu bereziak
  - 2.3.1. Prozesu militarra
  - 2.3.2. Adingabeen prozesua
  - 2.3.3. Estradizio pasiboa
  - 2.3.4. Atxilotzeko eta emateko aginduen betearazpena Europan

## **3. KAPITULUA: DELITU JAKIN BATZUK BIZKOR EPAITZEKO PROZEDURA**

- 3.1. Arautzea
- 3.2. Aplikazio eremua
- 3.3. Ikertze-fasea
  - 3.3.1. Polizia-fasea
    - 3.3.1.1. Polizia-eginbideak
      - 3.3.1.2. Polizia-eginbideen helburua

- 3.3.2. Epaille-fasea: premiazko eginbideak
  - 3.3.2.1. Guardia-epaitegiaren eskumena
  - 3.3.2.2. Polizia-atestatua
  - 3.3.2.3. Epaille-fasea burutzea
  - 3.3.2.4. Kautelazko neurriak
- 3.4. Largespenaren edo ahozko epaiketaren gaineko erabakia
- 3.5. Ahozko epaiketa prestatzea
  - 3.5.1. Akusazio partikularra eratu ez denean
  - 3.5.2. Akusazio partikularra eratu denean
  - 3.5.3. Defentsa-idazkiak
  - 3.5.4. Adostasuna eta bere baldintzak
- 3.6. Ahozko epaiketa, aurka egitea eta betearazpena
  - 3.6.1. Ahozko epaiketaren berezitasunak
  - 3.6.2. Epaiari aurka egitea
  - 3.6.3. Epaiaren betearaztea

#### **4. KAPITULUA: ZINPEKO EPAIMAHAIAREN AURREKO ZIGOR-PROZESU BEREZIA**

- 4.1. Sarrera
- 4.2. Zinpeko epaimahaia: kontzeptua eta testuingurua
- 4.3. Zinpeko epaimahaiaren osaketa
- 4.4. Zinpeko epaimahaiko kideen izendapena
- 4.5. Zinpeko epaimahaiaren eskuduntzak eta funtzioak
- 4.6. Zinpeko epaimahaiaren aurreko prozesua: berezitasunak, oro har
- 4.7. Zinpeko epaimahaiaren aurreko prozesu bati ekiteko beharrezkoak diren elementuak eta zinpeko epaimahaiaren aurreko prozedura berezia prozedura arrunt bilakatzea
- 4.8. Prozesuaren hasiera eta instrukzio osagarria
- 4.9. Aurretiazko entzunaldia
- 4.10. Zinpeko epaimahaiaren aurreko epaiketaren aurretikoak
- 4.11. Zinpeko epaimahaiaren eraketa
- 4.12. Ahozko epaiketa
- 4.13. Deliberazioa eta berediktua
- 4.14. Sententzia

## **1. KAPITULUA. PROZESU ARRUNTAK**

**1.1. Sarrera. 1.2. Prozedura arrunta. 1.2.1. Gai orokorrak. 1.2.2. Instrukzio-fasea: sumarioa. 1.2.3. Tarteko fasea. 1.2.4. Ahozko epaiketa. 1.3. Prozedura laburtua. 1.3.1. Gai orokorrak. 1.3.2. Prozedura laburtua aplikatzeko irizpideak. 1.3.3. Prozedura laburtuaren ezaugarriak. 1.3.4. Instrukzio fasea: aurretiazko eginbideak. 1.3.5. Tarteko fasea: ahozko epaiketa prestatzeko fasea. 1.3.6. Ahozko epaiketa. 1.4. Falta-prozedura. 1.4.1. Gai orokorrak. 1.4.2. Prozeduraren garapena. 1.4.3. Falta-prozedura motak: berehalako prozedura eta prozedura arrunta. 1.5. Metaturiko prozesu zibila**

### **1.1. Sarrera**

Bilduma honetan argitaratu diren aurreko eskuliburuetan zigor-prozesuaren oinarriko elementuen gai orokorrak aztertu dira. Material horien kapitulu gehienetan zigor-prozesuaren hainbat prozedura aipatu badira ere, ondoren, haien ezaugarriak eta garapena landuko dira.

Lan honetan prozedura arruntak eta bereziak aztertuko dira. Lehenik eta behin, argi geratu behar du legeak araututako prozedura arruntak egitate zigorgarri guztietarako aurreikusten direla. Prozedura arrunta zehazteko bi alde hartzen dira kontuan: elementu objektiboa eta elementu subjektiboa. Lehenengoari dagokionez, egitatearen izaera, -hau da, falta edo delitua den-, eta delitua izanik, eskatutako zigorra hartzen dira kontuan. Bigarren elementua epaitu beharreko pertsonaren egoera edo kondizioa da, hots, pertsona aforatua den kontuan hartzen da.

Prozedura bereziei dagokienez, bi prozedura mota desberdin daitezke: batetik, prozedura-berezitasunak dituzten prozedurak eta bestetik, benetako prozedura bereziak. Lehenengoak prozeduraren elementu batzuen berezitasunak baino ez dira, pertsonaren kondizioa, delitu mota edo delituaren egitea dela-eta. Bigarrenak, aldiz, benetako prozedura bereziak direla esan daiteke, eta egoera edo delitu zehatzetarako aurreikusita daude; izan ere, PKLtik at araututa daude.

Atal honetan prozedura arruntak aztertzeari ekingo zaio, eta hurrengo atalean, gorago aipatutako prozedura-berezitasunak eta prozedura bereziak garatuko dira.

PKLk hiru prozedura arrunt arautzen ditu: prozedura arrunta, prozedura laburtua eta falta-prozedura. PKL osoa prozedura arruntaren gainean antolatzen bada ere, esan behar da gaur egun praktikan gehien erabiltzen dena prozedura laburtua dela. Izan ere, azkeneko erreformek gero eta garrantzi handiagoa eman diote prozedura laburtuari eta bi prozedura laburtu desberdinu dituzte: prozedura laburtua (atal honetan aztertuko da), eta epaiketa arinak (beste atal batean landuko dira). Azken horietan, prozedura laburtuaren eremuan dauden delituak epaitzen dira, oso egoera zehatzak batera biltzen direnean.

## **1.2. Prozedura arrunta**

### **1.2.1. Gai orokorrak**

Lehenik eta behin, bi multzotan sailkatu behar dira legeak aurreikusitako delituak: batetik, bederatzi baino urte gehiagoko askatasun-gabetze zigorra dituzten delituak eta, bestetik, gainerako delitu guztiak, hau da, bederatzi urte arteko askatasun-gabetze zigorra duten delituak, edo kopurua edo iraupena edozein izanda ere, izaera desberdina dutenak (PKLren 14 eta 757. art.).

Aipatutako lehengo multzoaren delituak epaitzeko prozedura egokia arrunta izango da (PKLren 14 eta 757. art.); bigarren multzoarenak aldiz, prozedura laburtuaren bitartez epaituko dira (PKLren 757. eta hurrengo art.).

Atal honen hasieran aipatu den legez, PKLk eredutzat hartzen du prozedura arrunta eta horren inguruan eratzen du zigor-prozesu osoa. Hori dela eta, beste prozeduretan aurreikusi ez denari dagokionez, legeak prozedura honetarako araututakora bidaltzen du. Dena dela, ez da ahaztu behar prozedura arruntaren aplikazioa oso mugatua dela, larritasun berezia duten delituak zigortzeko aurreikusita baitago; gainera, organo kolegiatuek baino ez dituzte epaitzen.

Prozedura arruntean hiru aldi edo fase desberdintzen dira: lehenengoari sumarioa deitzen zaio, bigarrena tarteko fasea da, eta hirugarrena eta azkena osoko aldia edo aldi plenarioa da.

Lehenengo faseari dagokionez, instrukzioko epaile bati dagokio, eta hasteko autoa emanaz hasi eta ixteko autoarekin amaitzen da. Fase horren xedea delituzko egitateak eta ustezko egilea bilatzea da. Sumario itxitakoan, jarduera guztiak egitateak epaituko dituen organo eskudunari helarazten zaizkio eta alderdiak epatzen dira.

Instrukzioko fasea, hots, sumarioa amaitu ondoren, tarteko fasea hasten da. Fase horretarako organo eskuduna ahozko epaiketaren organoa izango da. Hark sumarioa ixteko autoa berretsi edo ezetsi, eta kasua denean, largespen-autoa edo ahozko epaiketa hasteko autoa emango du (PKLren 632. art.). Beste hitz batzuetan esateko, momentu horretan organoak egiaztatzen du sumarioa ixteko erabakia egokia izan den eta akusazioa egiteko edo ahozko epaiketa hasteko zio nahikorik dagoen.

Osoko aldia edo ahozko epaiketa organo beraren aurrean garatzen da eta epaiketa burutzea oinarrizko ardatz duten eginbideek osatua da. Hartan, epaiak oinarri modura duen material osoa lortzen da, eta barne hartuko dira bai ahozko epaiketaren saioak, bai behin-behineko kalifikazioak, bai aurretiazko froga, dagokionean.

### **1.2.2. Instrukzio-fasea: sumarioa**

Sumarioa instrukzioko edo ahozko epaiketa prestatzeko fasea da eta honetaz arduratzeko organo eskudunak hiru dira (PKLren 14.2 art.): instrukzioko epaitegia (BJLOren 87.1 a) art.), emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegia, dagozkion materietan (BJLOren 14.5 a) eta b) art.) eta instrukzioko epaitegi zentrala (BJLOren 88 eta 89. bis 3) art.), BJLOren 65. artikulua delituak izanez gero.

Sumarioaren xedea egitateen zirkunstantziak eta ustezko egilea ikertzea da eta alderdiek eskatutako edo epaileak ofizioz agindutako ikerketa-egintza guztiez osatzen da (PKLren 311 eta 312. art.). Horretaz gain, sumario-aldian kautelazko neurriak hartzea posible da, bai balizko erantzukizun zibilak edo diru-zigorak -kautelazko neurri

errealak-, bai prozesuan inputatuaren agerpena -kautelazko neurri pertsonalak- bermatzeko.

Sumarioa instrukzioko epailearen autoaren bitartez hasten da (PKLren 308. art.). Hauxe emango da salatutako egitatea egiaztatu (PKLren 269. art.) edo kereila (PKLren 312. art.) jaso eta onartu ondoren; edo organoak ofizioz emango du; eta beste batzuetan, aurretiazko eginbideak -prozesua prozeduraren bitartez hasi bazen- sumario bihurtzen direnean.

Fase hori hasi ondoren eta pertsona zehatz baten aurka kriminalitatezko arrazoizko seinaleak agertu bezain pronto, instrukzioko epaileak haren prozesatzea aginduko du prozesatzeko autoaren bitartez (PKLren 384. art.). Momentu horretatik aurrera, inputatua prozesatu bihurtzen da eta honela, bere alderdiaren izaera indartu egiten da: bere abokatuak jarduera guztiak ezagutu eta eginbide guztietan parte hartu ahal izango du. Horretaz gainera, sumarioan bi pieza banandu erutzen dira: bata egoera pertsonalari buruzkoa (honetan prozesatuaren egoera pertsonala jasotzen da, hau da, behin-behineko askatasun edo espetxeratzean dagoen, epeak,...); bestea, erantzukizun kriminalarena (beste honetan ustezko errudunaren ondasunen enbargo eta fidantza, eta orokorrean diru-erantzukizuna bermatzeko eginbideak jasotzen dira.

Sumarioa hasteko autoa emanda, fiskalari eta entzutegiaren presidenteari jakinaraziko zaie (PKLren 306 eta 308. art.).

Lehenengo fase horren barruan fiskalak eta prozesuan edo kereilan agertutako alderdiek proposaturiko eginbideak burutuko dira, beharrezkotzat eta egokitzat jotzen badira. Eskatutako eginbideak ukatzen dituen erabakia apelazioan errekurri daiteke (PKLren 311 eta 312. art.); dena dela, ukatutako eginbideak ahozko epaiketan berriz eskatu ahal izango dira.

Sumarioan zehar burutzen diren eginbideak hainbat motatakoak izan daitezke. Haietariko batzuek sumarioko eginbideek salatutako edo kereilan agertzen diren egitateak ikertzea dute xede: besteak beste, inputatuen eta lekukoek deklazioak (PKLren 385.-450. art.); kareoak (PKLren 451.-455. art.); perituen txostenak (PKLren 456.-485. art.); eta epailearen azterketa (PKLren 326.-333. art.). Beste eginbide batzuk



frogabideak bilatzera zuzenduta daude. Hala nola: leku itxian sartzea eta miaketa; liburuak eta agiriak miatzea, korrespondentzia gelditzea eta irekitzea; telefono-komunikazioen interbentzioa,... (PKLren 545.-588. art.). Delitua egiaztatzeko eginbideak aurreikusten dira: armak, instrumentuak, efektuak, dokumentuak biltzea; delitua kalifikatzeko gauzen aurreizateren informazioa lortzeko eginbideak; gorpuaren identifikazioa eta autopsia; lesioen zaintza medikoa; azterketa kimikoak; ... (PKLren 334.-367. art.). Amaitzeko, delitugilearen pertsona identifikatzea eta horren zirkunstantzia pertsonalak zehaztea helburua duten eginbideak ere badaude: ezagutze-saioa, argazki-ezagutzea; NAN, pasaporte edo baliabide zientifikoaren bitarteko identifikazioa; erantzukizun kriminaletik salbuesteko zioa izan daitekeenean, delitugilearen kapazitate intelektiboa eta mentala zehazteko eginbideak, ... (PKLren 368.-383. art.).

Aipatutako eginbide guztiak PKLk berak arautzen ditu, baina PKLtik kanpo ere beste eginbide batzuk aurki daitezke: pertsona susmagarriaren gorputzaren zuzeneko interbentzioak delituaren aztarnak lortzeko; trafiko-segurtasunaren aurkako delituetan alkoholemia-testa edo drogak detektatzeko azterketak; eta estupefazianteen poliziaren zirkulazio edo emate zelatatua (hauek “zigor-prozesu deklaratioa” lanean aztertu ziren).

Sumarioan zehar burutzen diren kautelazko neurriei dagokienez, PKLk honako hauek jasotzen ditu: inputatuaren zitazioa, epailearen aurrean agertzeko obligazioa ezartzen duena (PKLren 486.-488. art.), atxiloketa, (PKLren 489.-501. art.); eta behin-behineko espetxeratzea edo askatasuna, fidantzapean edo fidantzarik gabekoa, (PKLren 502.-519. art.)

Baina sumarioan zehar burutu ahal diren eginbideak alde batera utzita, prozeduraren garapena azalduko da ondoren. Alderdiek eskatutako edo ofizioz agindutako eginbide guztiak burutu ondoren, instrukzioko epaileak sumarioa ixteko autoa emango du, sumarioa amaitu behar dela uste badu. Horrela izanez gero, auzia epaitzeko jardura eta konbikzio-pieza guztiak auzia epaituko duen auzitegi eskudunari bidaliko dizkio (PKL 622. art.). Ixteko autoa akusatzaile partikularrari, prozesatuari eta gainerako erantzule zibilei jakinaraziko zaie, eta eskuduna den auzitegiaren aurrean agertzeko epatuko zaie,

hamar eguneko epean, edo hamabost eguneko epean, Auzitegi Gorenaren aurrean bada. Era berean, Ministerio Fiskalari jakinaraziko zaio (PKLren 623. art.).

Hainbatetan, baliteke instrukzioko epaileak sumarioan ikertutako egitatea falta dela ustea; kasu horretan -berak falta hori epaitzeko eskumenik ez duenean- jarduera eta eginbide guztiak bake-epaile edo instrukzioko epaile eskudunari bidaliko dizkio, goiko auzitegi eskudunarekin erabakitzeko autoa kontsultatu ondoren (PKLren 624. art.). Aipatutako autoa irmo bihurtuta, alderdiak epatuko dira egokia den epailearen aurrean agertzeko. Hemendik aurrera, falta-prozesuaren ildotik joko da (PKLren 625. art.).

Bestalde, sumarioa amaitu ondoren, instrukzioko epailearen iritziz jarraitu beharreko prozedura laburtua edo zinpekoen epaimahaiaren prozedura berezia denean, horrek prozesuaren izapideen aldaketa ekarriko luke.

### **1.2.3 Tarteko fasea**

Fase honen barruan, batetik, ixteko autoa berresteko edo ezeztatzeko, eta bestetik, ahozko epaiketa irekitzeko edo auzia largesteko jarduerak burutzen dira.

Fase honen organo eskudunak Entzutegi Probintziala (KZren 14.4 art.) eta, BJLOren 65. artikulua delituak izanez gero, Entzutegi Nazionala izango dira.

Sumarioa itxi ondoren, auzitegiak auto eta konbikzio-pieza guztiak jasotakoan hasten da tarteko fasea. Jarraian magistratu ponenteari helaraziko zaizkio epatzearen epea amaitzeko falta den denboragatik. Eta epea amaitu ondoren, fiskalari eta alderdi akusatzaileei bidaliko zaizkio auto eta konbikzio-piezak aztertu edo instruitzeko (PKLren 626 eta 627. art.). Momentu horretan, akusatzaileek prozesatzea berriz eskatzeko aukera izango dute, aldez aurretik instrukzioko epaileak ukatu bazuen (PKLren 384. art.).

Ikus daitekeenez legeak ez dio inputuari tarteko fasean esku hartzeko edo entzunda izateko aukerarik ematen. Zentzu horretan, Konstituzio Auzitegiak, PKLren 627. artikulua berrinterpretatuz, apirilaren 17ko 66/1989 sententzian deklaratu zuen prozedura arruntean akusatuei ere helarazi behar zaiela auzia, berdintasun-printzipioa

errespetatzeko. Baina azpimarratzekoa da ez duela horrela aintzatetsi prozedura laburturako (ikus azaroaren 15eko 186/1990 sententzia).

Alderdiek sumarioa ixteko autoarekiko adostasuna edo desadostasuna adieraziko dute. Adostasuna emanez gero, idazki berean, ahozko epaiketa irekitzeari buruz edo auziaren largespenari buruz egokitzat hartzen dutena adieraziko dute (PKLren 627. art.). Desadostasunaren kasuan, burutu beharreko eginbide berriak proposatuko dituzte.

Jarduerak itzulita, horiek eta alderdiek aurkezturiko idazkiak ponenteari helaraziko zaizkio, eta hiru eguneko epean auzitegiak autoa emango du, sumarioa ixteko autoa ezeztatuz edo baietsiz; aldi berean, prozesatzeko eskaerari buruz erabakiko du (PKLren 384. art.).

Auto horrek sumarioa ixteko autoa ezeztatzen badu, sumarioa berriz irekiko litzateke. Horrela, auzia instrukzio-epaileari itzuliko zaio, burutu beharreko eginbideak zehaztu eta beharrezkotzat jotzen diren konbikzio-piezak igorri ondoren (PKLren 631. art.).

Kontrako kasuan, hau da, ixteko autoa baietsiz gero, hurrengo egoeretako bat gerta daiteke: PKLren 631 edo 641. artikuluek aurreikusitako zioengatik auzia artxibatzea (largespen-autoa emango litzateke auzia behin-behinekoz edo behin betiko artxibatzeko), edo ahozko epaiketa irekitzea (PKLren 632. art.).

#### **1.2.4. Ahozko epaiketa**

Ahozko epaiketarako auzitegi eskudunak emandako autoaren bidez hasten da fase hau (PKLren 633. art.). Horren barruan burutzen dira bai ahozko epaiketa prestatzeko jarduera, bai prozesuko mamia den bista publikoa.

Fase horren organo eskudunak Entzutegi Probintziala eta Entzutegi Nazionala - dagozkion materietan- dira.

A) Behin-behineko kalifikazio-idazkiak

Behin ahozko epaiketa irekita, bost eguneko epean eta sumarioaren emaitzetan oinarrituta, alderdiek behin-behineko kalifikazio-idazkiak aurkeztuko dituzte -hauetan lekukoen eta perituen zerrendak jasoko dira-; lehenik alderdi akusatzaileek, bigarrenik akusatuek eta azkenik erantzule zibilek (PKLren 649. eta hurrengo art.). Auzia bakoitzari helaraziko zaio.

Idazkiak jasota, auzitegiak autoa emango du kalifikazioa eginda deklaratu eta auzia ponenteari bidaliko dio, proposatutako frogak azter ditzan (PKLren 658. art.). Proposatutako frogak autoz onartu -egokiak badira- edo ukatu ondoren, ahozko epaiketarako tokia, eguna eta ordua zehaztuko dira (PKLren 659. art.).

Frogak onartzen dituen autoa ez dago errekurritzerik; ukatzen dituenaren aurka, ordea, suplika-errekurtsoa jartzea dago (PKLren 236. art.). Azken hori ere ukatuz gero, protesta formala egin daiteke forma urratzeagatik kasazio-errekurtsoa aurkeztu ahal izateko (PKLren 659. art.). Era berean, proposaturiko peritu eta lekukoen zitazioa erabakiko da (PKLren 660. art.)

## B) Aurretiaz erabaki beharreko artikulua

Kalifikazioak aurkezteko aipatutako bost eguneko epe horren barruan, lehenengo hiru egunetan, alderdiek aurretiaz erabaki beharreko artikulua aurkez ditzakete (PKLren 666. art.). Hauek dira aurkez daitezkeen artikulua: 1) jurisdikzio-deklinatoria; 2) gauza juzgatua; 3) delituaren preskripzioa; 4) amnistia eta indultua; eta 5) suplikatoriorik eza senatari edo diputatu baten aurkako auzietan.

Artikulu horiek aztertze prozeduraren garapenari dagokionez, “Zigor-prozesu deklaratioa” eskuliburuan adierazi dena bidaltzen da. Hala eta guztiz ere, auzi nagusian izan ditzaketen ondorioak aztertuko dira.

Egon daitezkeen artikulu guztiak idazki bakarrean aurkeztuko dira dokumentuzko frogekin batera, edo bere kasuan, horiek erreklamatzeko eskatuko zaio jurisdikzio-organuari. Kontrako alderdiak erantzungo du hiru eguneko epean; ondoren, frogak burutu eta bistarako eguna zehaztuko da. Horretan alderdien defendatzaileek txostenak

aurkeztuko dituzte eta hurrengo egunean auzitegiak erabakiko du eta proposatutako artikuluak autoz baietsi edo ezetsiko ditu (PKLren 667.-673. art.).

Zer artikulua aurkeztu den, ondorioak desberdinak dira prozeduran. Artikulu batzuk aurkeztuta, haietariko bat jurisdikzio-deklinatoria izanez gero, hori erabaki beharko da lehendabizikoz; izan ere, organoak benetan eskumenik duen aztertzen duenez, eskuduna ez dela erabakiz gero, ezin izango du beste artikuluei buruz erabaki. Deklinatoria ezesten bada, auzitegiak bere eskumena berretsiko du eta beste artikuluei buruz erabakitzen jarraituko du, gehiago aurkeztu badira (PKLren 676. I art.). Ezetsiz gero, aldiz, organo eskudunaren alde inhibituko da eta hark erabakiko ditu beste artikuluak (PKLren 674. III art.). Erabakia edozein izanda, auto apelatzea dago (PKLren 676. III art.).

Gauza juzgatua, delituaren preskripzioa, amnistia edo indultua baietsiz gero, largespen-autoa eman eta, bere kasuan, inputatua aske utziko da, baldin eta horren aurka auzi bakarra bada (PKLren 675. art.). Kasu horretan ere autoa apelatzea dago (PKLren 676. III art.).

Senatariak edo diputatuak epaitzeko suplikatoriorik ezaren kasuan, artikulua baietsiz gero, prozesua geldituko da organoaren baimena lortu arte. Eta organoak baimena ukatzen badu, jardun dena deusez geratuko da eta largespen askea emango da (PKLren 677. art.). Artikulu hori ezesten duen autoaren aurka ez dago apelatzerik (PKLren 677. III art.).

Amaitzeko, jurisdikzio-deklinatoria ez den edozein artikulua ezetsiz gero, prozesuak aurrera jarraituko du eta ez dago erabakia apelatzerik, baina alderdiek, defentsa moduan, ahozko epaiketan berriro aurkeztu ahal izango lukete arazoa (PKLren 676. II eta III, 677. III art.).

### C) Ahozko bista

Zehazturiko egunean bildutako konbikzio-pieza guztiak auzi-gelan jarriko dira eta presidentek ekitaldia irekita deklaratuko du (PKLren 688. art.). Hortik aurrera eztabaida guztiak publikoak izango dira, legeak aurreikusitako salbuespenak salbu. Izan

ere, alderdiek eskatuta edo ofizioz saioak “ateak itxita” burutzea erabaki daiteke, saioak hasi baino lehen edo horiek hasita. Legeak zio desberdinak aurreikusten ditu epaiketa “ateak itxita” burutzeko (PKLren 680.-682. art.).

Auzitegiko presidentek eztabaidak zuzenduko ditu. Alde batetik saioa irekita deklaratu du; froga-ekitaldia hasten du; peritu eta lekukoei deitu eta zina hartzen die; legearen galdera orokorreari buruz galdetzen die; ahozko txostenak egiteko hitza ematen die alderdiei; akusatuei azken hitza ematen die; eta amaitzeko, sententziarako epaiketa itxita deklaratu du.

Baina aipatuetakoez aparte, auzitegiaren presidentek bestelako egintzak burutzen ditu: ahozko bista bideratzen du, salaren ordena mantentzen, galdera desegokiak galaratzen, sala uztaizten,...

Ondoren aztertuko da zelan garatzen den ahozko bistaren ekitaldia.

Saioa hasita, legeak dio presidentek akusatuari galdetuko diola, akusatuaren kalifikazio larriaren arabera, bere burua errudun aitortzen duen eta, eskatutako kantitate handien arabera, zibilki bere burua erantzule aitortzen duen ala ez. Kontuan hartu behar da aurreikuspen hori adostasun mota bat dela, hiru urteko askatasun gabetzea baino zigor handiagorik ez duten delitueterako besterik araututa ez dagoena, eta prozedura arrunta dela, hau da, bederatzi baino urte gehiagoko askatasun-gabetze zigorra duten delitueterako. Horrek esan nahi du adostasuna ez litzatekeela posible prozedura honetan. Baina egile batzuen ustez, prozedura honetan ere adostasuna posible liteke, baldin eta akusatuak eskatutako askatasun-gabetze zigorra hiru urtetik gorakoa ez bada (gai hau luze aipatzen da “zigor-prozesu deklaratioa” eskuliburuan). Horrela balitz, adostasuna eman ondoren, bista amaitu eta epaia emango litzateke (ikus PKLren 688.-697. art.).

Idazkariak jakinaraziko ditu egitatea, sumarioaren hasierako eguna eta prozesatua behin-behineko espetxean edo askatasunean -fidantzapean edo fidantzarik gabekoan- dagoen. Horrez gain, kalifikazio-idazkiak eta peritu eta lekukoen zerrendak irakurri, eta onartutako gainerako frogak zerrendatuko ditu (PKLren 701. art.). Jarraian froga-ekitaldia burutuko da: lehenik, fiskalak proposatutako frogak; bigarrenik, gainerako

akusatzaileenak eta azkenik, akusatuenak. Momentu horretan burutzen diren frogak aldeztatik proposatu eta auzitegiak onartu zituenak dira; hala eta guztiz, PKLren 729. artikulua hainbat salbuespen jasotzen ditu: a) kareoak, ofizioz edo alderdiek eskatuta; b) alderdiek proposatu ez dituzten froga-eginbideak, kalifikazio-idazkien objektua izan diren egitateak frogatzeko, baldin eta auzitegiaren ustez beharrezkoak badira; c) ekitaldian bertan alderdiek eskaintzen dituzten edozein motatako froga-eginbideak, lekuko baten deklarazioaren froga-balioan eragina izan dezaketenean, baldin eta auzitegiaren ustez onargarriak badira.

Frogak burutu ondoren, auzitegiak alderdiei galdetuko die beraien behin-behineko kalifikazioak mantentzen edo aldatzen dituzten. Horrela, frogaren emaitzak kontuan harturik, behin betiko kalifikazioak aurkeztuko dituzte behin-behinekoei eutsiz edo aldatuz; azken kasu horretan idatziz aurkeztu beharko dituzte (PKLren 732. art.).

Auzitegiak egitatea akats nabariak kalifikatu badu -deslotze-tesiaz esan nahi da-, bista-ekitaldia hurrengo egunera arte atzera daiteke, tesi berriaren aurrean alderdiek eskatzen badute (PKLren 733. art.).

Jarraian auzitegiaren presidentek hitza emango die fiskalari eta akusatzaile partikularrari. Horiek txostenak aurkeztuko dituzte, frogatutzat hartzen dituzten egitateak, euren kalifikazio legala, akusatuen parte-hartzea eta erantzukizun zibilari buruz egokia dena azaltzeko (PKLren 734. art.). Ondoren, aktore zibilaren defentsari, -hau dagoenean-, emango zaio hitza; horren txostena erantzukizun zibilera mugatuko da (PKLren 735. art.). Prozesatuen defentsari eta erantzule zibilei ere emango zaie hitza (PKLren 736. art.). Alderdiek emandako txostenak behin betiko idazkien arabera izango dira eta horiek eginda, egitateen edo kontzeptuen zuzenketa baino ez da onartuko (PKLren 737 eta 738. art.).

Amaitzeko, "azken hitza" emateko aukera emango zaio akusatuari eta jarraian, epaiketa epaiaren zain geldituko da (PKLren 739 eta 740. art.).

Ahozko epaiketa amaitu ondoren, egokia den epaia emango da hiru eguneko epean (PKLren 203. art.). Epai hori kasazioan errekurri daiteke (PKLren 847. art.).

### **1.3. Prozedura laburtua**

#### **1.3.1. Gai orokorrak**

Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 12ko 145/1988 sententziak epaile berak auzi batean instrukzioa egitea eta ondoren epaia ematea konstituzioaren eta epailearen inpartzialtasunaren kontrako deklaratu zuen. Abenduaren 28ko 7/1988, penaleko epaitegiei buruzko LOK BJLOren eta PKLren artikulua batzuk aldatu zituen, legea konstituzio-doktrinara moldatzeko helburuz. Izan ere, lege horrek BJLOren 219. artikuluan epaileak eta magistratuak errefusatzeko zio berri bat arautu zuen, 10.a: instruktore moduan auzian jardun izana. Honela 1967ko apirilaren 8ko eta 1980ko azaroaren 11ko legeek instrukzioko epaileei delitu jakin batzuk epaitzeko emandako eskumena kendu zien. Beraz, azkenean, PKLren jatorrizko sistemara itzultzen da. Hala eta guztiz ere, arazo larri bat zegoen: izan ere, instrukzioko epaileei delitu batzuk epaitzeko eskumena emateak probintzia entzutegien lan-zamaren garrantzizko deskargua ekarri zuen -kontuan hartu behar da delituak epaitzeko organo bakarrak zirela, Entzutegi Nazionalaren, Auzitegi Gorenaren eta Auzitegi Nagusiaren mugatutako eskumenak alde batera utzirik-. Beraz, justiziak pairatzen zituen atzerapenak eta moteltasuna ez larriagotzeko, zigor-epaitegi zentralak sortu ziren. Delituen ondoriozko auzi batzuk epaitzeaz arduratuko dira, prozedura laburtuaren bitartez, eta momentu horretatik aurrera instrukzioko epaitegiak instrukzioa izapidetzera mugatuko dira.

Prozedura laburtua arautu zenetik hona asko dira egon diren aldaketak; azkeneneko eta garrantzitsuenetariko bat urriaren 24ko 8/2002 LOK eta 38/2002 legeak burututakoa izan da. Horrek ia prozedura laburtu osoa aldatu eta beste prozedura berri bat sartu zuen delitu konkretu batzuk epaitzeko egoera bereziak biltzen direnean. Prozedura laburtua arintzeko berezitasun hutsak izango zirenek, azkenean, prozedura horretatik bananduta dagoen beste bat sortu zuten: epaiketa arina izenekoa (PKLren 795.-803 art.). Hala eta guztiz, ez da pentsatu behar bi prozedurek inolako loturarik ez dutenik: epaiketa arinen bitartez epaitzen diren delituzko egitateak prozedura laburtuaren zigor-mugen barruan daude eta, gainera, prozedura laburtuaren arauak gehigarriak dira epaiketa arinetan berariaz aurreikusita ez dagoenari dagokionez (PKLren 795.2 art.). Baina kapitulu honetan prozedura laburtua baino ez da aztertuko, hau da, PKLren 757. artikulutik 793. artikulura bitartekoek arautzen duten prozedura.



### 1.3.2. Prozedura laburtua aplikatzeko irizpideak

Prozedura laburtuaren bitartez epaituko dira, gehienez bederatzi urteko askatasun-gabetze zigorra, edo kopurua edo iraupena edozein izanda ere, bai bakarrak, bai baterakoak, bai alternatiboak izanik, izaera desberdineko zigorra duten delituak (PKLren 757. art.).

Lehengo fasea, hots, instrukzioa, instrukzioko epaileei dagokie (PKLren 14.2 art.). Baina delitua epaitzeko eskuduna Zigor Epaitegi Zentral edo Entzutegi Nazionala izanez gero, instrukzioa Instrukzioko Epaitegi Zentralari dagokio. Gainera, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegiek ere eskumena izango dute dagozkien materiei dagokienez (PKLren 14.5 eta BJLOren 87. ter art.).

Ahozko epaiketarako eskumenari dagokionez, prozedura laburtuan bi organo aipatu beharra dago: probintzia-entzutegia eta zigor- epaitegia, eta horiekin batera, Entzutegi Nazionala eta Zigor Epaitegi Zentrala beraien eremuan.

Zigor-epaitegia eskuduna izango da honako delitu hauek epaitzeko (PKLren 14.3 art.), eta horiekin batera Zigor Epaitegi Zentrala, bere eremuan:

- Gehienez, bost urteko askatasun-gabetze zigorra duten delituak.
- Munta edozein izanda, diru-zigorra duten delituak.
- Gehienez hamar urteko beste edozein izaeratako zigorra dutenak.
- Aipatutako delituekin zerikusia duten faltak, intzidentalak izanda edo ez izanda, baldin eta beren egiteek edo frogek delituarekin edo egileekin lotura badute. Kasu horretan, zigor-epaitegiak badu eskumena aipatutako delituekin loturiko faltak epaitzeko, nahiz eta delitu eta falten egileak berak ez izan.

Zigor-epaitegien eskumenaren zigor-muga gainditzen duten, baina prozedura laburtuaren eremu barruan dauden delituak epaitzeko probintzia-entzutegia izango da eskuduna (PKLren 14.4 art.), edo Entzutegi Nazionala, bere eremuan. Hau da:

- Bost baino urte gehiagoko eta bederatzi urte arteko espetxeratzea.

- Hamar baino urte gehiagoko gaitasun-gabetze bereziak; lana eta kargu publikoa, egoitza-eskubidea, gida-baimena eta armak edukitzea kentzea.
- Faltak, intzidentalak edo lotutakoak izanik.

Prozedura laburtua Auzitegi Gorenaren edo Justizi Auzitegi Nagusien aurrean pertsona aforatuen aurka egindako auzietan ere aplikatuko da, baldin eta zigorra kontuan hartuta haren eremu barruan sartzen bada.

### **1.3.3. Prozedura laburtuaren ezaugarriak**

Prozedura laburtuaren bitartez oso ohikoak diren larritasun gutxiko delituzko egitateak epaitzen dira. Hori dela-eta, prozedura hau arautu zenetik praktikan gehien erabiltzen den prozedura da.

Egile batzuen aburuz, prozedura arruntaren mota laburtu bat da; izan ere, PKLk prozedura arrunterako jasotako arauak era subsidiarioan aplikatzen dira, baldin eta bateraezinak ez badira. Baina ez da ahaztu behar prozedura laburtuak prozedura arruntetik desberdintzen duten berezko ezaugarriak dituela, haren garapena bizkortu, izapideak erraztu, gutxitu, eta batzuetan kentzeko helburua baitu.

Lehen esan denez, prozedura hau instrukzioaren eta epaitzaren funtzioak desberdintzeko sortu zen; baina horretaz aparte, legegileak oso xede zehatza zuen: gizarteko errealitateak eskatzen zituen ekonomia eta bizkortasun prozesala lortzea.

Gorago esan denez, prozedura laburtuaren ezaugarrietako bat izapideen azkartasuna da. Bizkortasun hori lortzeko, legeak hainbat neurri hartzen ditu:

- Prozedura atzeratzen dituzten hainbat izapide bertan behera utzi ditu legeak, adib. ofendituak edo kaltetunak alderdi moduan epaiketean agertzeko ez da beharrezkoa kereila aurkeztea, baizik eta nahikoa izango da beren borondatea adieraztea akzioak eskaintzeko momentuan (PKLren 761.2 art.); interpreteei ez zaie titulu ofizialik eskatzen (PKLren 762.8 art.); lapurreta, ebasketa, eta maualdelituetan gauzen aurre-existentziari buruzko informazioa instrukzioko epaileak haien gainean dudak dituenean baino ez da eskatzen (PKLren 762.9 art.);

inputatuaren identitatea eta adin-nagusitasuna NAN, pasaporte edo antzeko dokumentuen bitartez zehazten da; peritu-txostena peritu bakarrak egin dezake (PKLren 778.1 art.); gainera, heriotzaren zioak eta zirkunstantziak zehazteko auzitegi-medikuaren irizpena nahikoa ez denean bakarrik burutuko da autopsia (PKLren 778.4 art.).

- Eskumen-arazoen prozedura arindu eta bizkortu da (PKLren 759. art.)
- Aurretiazko eginbideen funtzioa ere aldatu egin da; zentzu horretan, aurretiazko eginbideen fasean ez dira ezinbesteko eginbideak bakarrik burutzen, ahozko epaiketa prestatzeko beharrezkoa diren guztiak baizik.
- Ez da ahaztu behar lotutako delituei buruz PKLren 762.6 artikulua aurreikusitako araua. Artikulu horrek lotutako delituak pieza bananduetan epaitzeko aukera arautzen du, baldin eta bakoitza pieza batean egiteko eta inputatu bakoitza hainbat prozesutan epaitzeko elementuak badaude.
- Inputatuaren adostasunaren bitartez instrukzio-fasea saihesten da (PKLren 779.1.5 art.). Akusatuak, defentsaren onarpenarekin bat, kondenarik larriena eskatzen duen akusazioarekin adostasuna eman dezake defentsa idazkian bertan (PKLren 784.3 art.), akusatzaileek, akusatuak eta bere abokatuak elkarrekin sinatutako kalifikazio-idazki batean (PKLren 784.3 II art.), edo ahozko bistan, frogak burutu baino lehen (PKLren 787.1 art.). Adostasunak prozesuaren amaiera dakar eta jurisdikzio-organoa lotesten du, egitateak delituzkoak ez direnean edo inguruabar aringarri edo salbuesleak daudenean izan ezik.
- Fase saneatzailea. PKLk ahozko epaiketa hasi baino lehen aurretiko ahozko izapide bat aurreikusten du balizko hauste prozesalak eta oinarrizko eskubide prozesalak aztertzeko (PKL 786.2 art.). Fase hori alderdiek eskatuta irekitzen da eta hartan, prozesuaren garapenean eragina izan dezaketen arazoak aztertzen dira.
- Inputatua agertu gabe epaiketa aurrera eramateko aukera dago (PKLren 786 art.). Horrela, delituaren biktimak edo kaltetunen eskubideetan eragina izan ditzaketen alferrikako luzamenduak saihesten dira. Hala eta guztiz ere, akusatua bistan agertu gabe prozesuarekin jarraitzeko baldintza batzuk bete behar dira: a) justifikatu gabeko ez-agerpena; b) zehaztutako pertsonari edo bizilekuan forman zitazioa egin izana; c) eskatutako askatasun gabetze-zigorra bi baino urtetik gorakoa ez izatea, edo seikoa, beste izaera desberdin batekoa denean; d)

akusazioak eskatu izana; e) defentsa entzun izana. Akusatu bat baino gehiago egonez gero, prozesuak jarraituko du besteei dagokienez.

- Bestalde, hogeita hamar egunetik gora luzatzen diren atzerapenak mugatzen dira, epaile edo auzitegiko kide baten aldaketarengatik denean izan ezik (PKLren 788.1 I art.). Era berean, erantzukizun zibila exekuzioaren momenturako uzten da, izan ere, sententzian bertan berau zehazteko oinarriak azalduko dira (PKLren 788.1 II art.). Beraz, adibidez, kalteen tasazioak ez du bistaren atzerapena ekarriko, baldin eta egitateen kalifikazioan eraginik ez badauka. Dena dela, defentsak froga osagarriak egiteko eskatzea nahiko izango da bista atzeratzeko, akusazioaren kalifikazioen aldaketek egitateen tipifikazioetan edo inguruabar astungarriak aintzat hartzea berekin dakarrenean (PKLren 788.4 art.).

Baina bizkortasunaz aparte, prozedura laburtuaren arauak, biktima ez ezik, inputatua ere babesten duten bermeak ezartzen dituzte. Biktimari dagokionez, alde batetik, diru-erantzukizunak segurtatzeko sistema berri bat (PKLren 764. art.), eta bestetik, ibilgailu motordunen zirkulazioa dela-eta egindako delituetan behin-behineko pentsioa (PKLren 765. art.) aurreikusten dira.

Ibilgailu motordunen zirkulazioarekin lotutako egitateengatik diru-erantzukizuna segurtatzeko kautelazko neurriei dagokienez, PKLk hainbat aurreikuspen jasotzen ditu:

- Hasteko, erantzukizunak aseguraturuta egonez gero, aseguru-etxeari, edo bere kasuan Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoari, nahitaezko asegurua mugara arte segurtatzeko errekerituko zaio, eta gainontzekoa zuzeneko erantzule zibilak edo subsidiarioak bermatu beharko du. Dena dela, aipatutako erakundeak ez dira prozesuko alderdiak izango, errekeritutako fidantzari dagokionez defendatzeko bere eskubideari kalterik egin gabe (PKLren 764.2 art.).
- Biktimaren aldeko behin-behineko pentsioa erabaki daiteke, aseguru-etxe edo Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren kontu, nahitaezko asegurua mugara arte betiere. Hemen gehitu behar da egokiak diren errekursoak tarteratzeak ez duela pentsioaren jasotzea geldiaraziko (PKLren 765.1 art.).

- Ibilgailuaren, eta zirkulazio eta gida-baimenen interbentzioa erabakitzea dago (PKLren 764.4 art.). Kasu horretan, interbentzioa aldi berean kautela- eta ikerketa-neurria izango litzateke.

Orain aztertu direnez aparte, legeak biktimak babesteko bestelako neurriak jasotzen ditu:

- Polizia judizialak, esku hartzen lehengoa denean, kereila aurkeztu gabe auzian alderdi moduan agertzeko eta abokatu izendatzeko edo ofizio-txandaren bat eskatzeko eskubideak idatziz jakinarazi behar dizkie kaltetunei eta ofendituei. Poliziak horrela egin ezean, idazkari judizialak egingo du. Informazio hori ahalik eta bizkorren jakinaraziko zaie, baina horren faltak ez du prozesua geldiaraziko (PKLren 766.1 eta 2 art.).
- Auzian agertu ez diren arren, prozesuan burutzen diren jarduerak jakinarazi behar zaizkie. Horrela gertatzen da, prozesuan akusatzaile gehiagorik ez izanik, fiskalak largespena eskatzen duenean. Fiskalaren eskaera biktimei jakinarazita, horiek akzioa egikaritzen ez badute, epaileak fiskalaren goiko hierarkikoarengana jotzea dauka, largespenari buruzko iritzia eskatzeko; jarraian auziaren behin betiko largespena erabakiko da (PKLren 782.2 art.). Era berean, ahozko bistaren data eta prozesuan emandako sententzia jakinaraziko zaie (PKLren 785.3, 789.4 eta 792.4 art.)

Inputatuaren ikuspuntutik ere, legeak hainbat berme aurreikusten ditu:

- Prozesatzeko autoa bertan behera uzten da. Prozedura laburtuan ez dago prozesatzeko autorik, inputatuaren eskubideak mugatzen zituen bide bilakatua baitzen. Gainera, gaur egun alderdi akusatuaren defentsa teknikoa indartzen da, atxilotuari lagundu eta epaitza betearazi arte defendatzen duena abokatu bera izan behar duelako. Horrekin lotuta azpimarratu behar da, prozedura arruntean ez bezala, prozedura laburtuan tarteko fasea instrukzioko epailearen aurrean garatzen dela. Horrek esan nahi du instrukzioko epailea dela akusazioa egiteko eta ahozko epaiketa zabaltzeko zio nahikorik dagoen erabakitzen duena. Baina ez du egingo prozesatzeko autoaren bidez -esan denez ez dagoelako-, baina

kriminalitatezko seinalerik dagoen kontrolatuko du, bai aurretiazko eginbideak, bai akusazio-idazkiak aztertu ondoren (PKLren 783.1 art.).

- Inputatuak abokatu bat izendatzen ez badu, ofizioz egingo da. PKLren 767. artikulua araber, abokatuaren izendapena beharrezkoa izango da atxiloketa burutzen den edo jardueretatik delitu baten inputazio bat ondorioztatzen den momentutik. Hemen gehitu behar da ahozko epaiketa hasi arte ez dela beharrezkoa prokuradorearen izendapena; momentu hori iritsi arte abokatuak defentsa eta ordezkaritza burutuko ditu (PKLren 768. art.).
- Lehenengo agerpenean idazkariak dagozkion eskubideak jakinaraziko dizkio inputatuari eta notifikazioak egiteko Espainian helbide bat edo bere izenean horiek jasoko dituen pertsona bat izendatzeko errekerituko zaio, eta aukeratutako helbidean edo pertsonari egindako zitazioak bera agertu gabe epaiketa burutzea ahalbidetuko duela ohartaraziko zaio, baldin eta lehen azaldu diren baldintzak betetzen badira. Jarraian, epaileak inputatzen zaizkion egitateen berri emango dio inputatuari (PKLren 775. art.).
- Jakina denez prozedura laburtuan inputatua prozesuan agertu gabe epaitzea dago. Horrelako prozesu batean emandako sententziaren kontra deuseztapen-errekurtsoa tartera daiteke (PKLren 793. art.).
- Ibilgailu motordunen erabileraren eta zirkulazioaren ondoriozko delituetan, inputatua Espainiatik kanpora joan daiteke, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badira. Kontuan hartu behar da baimen hau eman litekeela inputatuak aldeztatik bere helbidea edo ohiko bizilekua atzerrian baleuka: 1) inputatuak erantzukizun zibilak behar bezala bermatzea eta bere balizko ez-agerpenarengatik erantzuteko kauzia ematea; 2) Espainian notifikazioak egiteko helbidea zehaztea; 3) behin-behineko espetxeratze-egoeran ez izatea; eta amaitzeko, 4) bera agertu gabe epaiketa burutuko dela edo auzi-ihes deklaratu zaiola jakinaren gainean jartzea, zio horrengatik epaiketaren atzerapena erabakitze baldintzak betetzen ez badira (PKLren 765. art.).
- Amaitzeko, sententziak ezin izango du akusatzaileek eskatutakoa baino zigorr altuagorik ezarri, ezta beste delitu batez zigortu ere, baldin eta horrek babestutako ondasun juridikoaren aldaketa edo egitateen funtsezko aldaketa badu berekin, alderdietako batek aldeztatik epaileak adierazitako

planteamendua onartzen duenean izan ezik (PKLren 789.3 art., 788.3 artikularekin lotuta).

Prozedura laburtuan polizia judizialak PKLren 770. artikulua aurreikusten dituen eginbideak burutzen ditu eta horrela, haren ikerketa- eta segurtatze-lana indartzen da. Hauek dira zereginak:

- Biktimari laguntzea. Horretarako, medikuak edo osasun-langileak agertzea eskatuko du.
- Egitateak argitzeko eta froga-iturriak segurtatzeko egokia denean, polizia judizialak akta jasotzearekin batera, argazkiak (edo irudiaren beste erreprodukzio-bide bat) aterako ditu.
- Desagertzeko arriskua dagoenean, delituarekin zerikusia izan dezaketen efektu, instrumentu eta froga guztiak jaso eta zainduko ditu, epailearen esku uzteko. Beraz, polizia judizialak berehalako kautelazko neurriak hartzeko ahalmena dauka.
- Pertsona baten heriotzaren kasuan, gorpu-altxaketa egin dezake, gorpua bide publiko edo beste zirkulazio-toki batean badago. Gorpua egokia den lekura eramanez, etendako zerbitzua berrezarri eta epaileari jakinaraziko dio. Kasu horretan, argazkiak atera eta lekuan bertan seinalatuko du gorpuaren kokapen zehatza.
- Egitateen lekuan dauden pertsonen datu pertsonalak eta helbideak, telefono-zenbakiak, eta abar jasoko ditu.
- Kasua denean, ibilgailua eta bere zirkulazio-baimena eta egitatea leporatzen zaion pertsonaren gida-baimena interbenituko ditu. Aurreko kasuan bezala, honetan ere berehalako kautelazko neurria hartzeko ahalmena dauka polizia judizialak.

Amaitzeko, prozedura honetan Ministerio Fiskalak betetzen dituen funtzioak aipatu behar dira. Badakigu instrukzioa burutzeko eskumena ez dagokiola Ministerio Fiskalari, instrukzioa judiziala dela; hala eta guztiz, legeak fiskalaren eskumenak indartu nahi izan ditu fase honetan (PKL 773. art.). “Zigor prozesu deklaratioa” lanean gai hau luze aztertu denez gero, ondoren Ministerio Fiskalak prozedura laburtuan dituen funtzio garrantzitsuenak azalduko dira:

- Jardueretan akzio penalak eta zibilak egikaritzea bere gain hartzen ditu. Gainera, inputatuaren berme prozesalen errespetua eta delituaren biktima eta kaltearen eskubideak zainduko ditu (PKLren 773.1 I art.).
- Prozedura honetan izapideak bultzatzea eta erraztea dagokio bereziki Ministerio Fiskalari. Horretarako, instrukzioak emango dizkio polizia judizialari, jardueretan parte hartuko du, eskura dauzkan datuak eta frogabideak jakinaraziko ditu, eta frogak burutzea edo kautelazko neurriak hartzea nahiz altxatzea eskatuko dio instrukzioko epaileari. Bestalde, ikerketaren amaiera, hau da, atariko prozedura ixtea eskatuko du, haren iritziz zigor-akzioa egikaritzeko beste eginbide burutu denean (PKLren 773.1 II art.).
- Delitua osa dezaketen egitateen berri duenean, Ministerio Fiskalak berak edo polizia judizialaren bitartez egokitzen hartzen dituen eginbideak buru ditzake, egitateak eta balizko erantzuleak egiaztatzeko. Ministerio Fiskalak atxiloketa agin dezake, baina ezin izango du epailearen eskumenaren diren eginbiderik burutu, bizilekuan sartzea eta miaztea, adibidez. Gainera, edozein pertsona zita dezake deklarazioa hartzeko (PKLren 773.2 art.).
- Eginbideak burutu ondoren, egitateak delituzkoak ez direnean Ministerio Fiskalak berauek artxibatuko ditu, kalte dunei eta ofendituei jakinarazita. Dena den, horiek instrukzioko epailearen aurrean beren salaketa jartzeko eskubideak izango dute. Kontrako kasuan, hau da, egitateak delituzkoak izanik, egokia den prozedura hasteko jardun den guztia helaraziko zaio instrukzioko epaileari (PKLren 773.2 I art.).
- Egitate berei buruzko prozesuaren berri izan bezain pronto, Ministerio Fiskalak eginbideak burutzeari utziko dio (PKLren 773.2 II art.).

#### **1.3.4. Instrukzio-fasea: aurretiazko eginbideak**

Prozedura laburtuan, instrukzioko faseari aurretiazko eginbideak deitzen zaio (PKLren 774. eta hurr. art.).

Polizia judizialak eta Ministerio Fiskalak prozedura laburtuan dituzten funtzioak kontuan izanik, baliteke organo hauen ikerketa dela-eta prozesua hastea. Polizia



judizialaren kasuan, jarduera guztiak atestatuan jasoko dira eta instrukzioko epaileari helaraziko zaio (PKLren 772.1 art.). Ikerketa agindu zuena Ministerio Fiskala izanez gero, instrukzioko epailearen esku utziko ditu atxilotua -egonez gero-, delituaren efektuak eta burututako eginbideak, eta aurretiazko eginbideak hasiera eskatuko du (PKL 773.2 art.). Beste batzuetan, prozedura laburtuaren hasiera instrukzioko epaileak berak agindutako eginbideen ondorioa izan daiteke.

Dena dela, prozedura laburtuaren arauen arabera prozesua hasiz gero, egitateak horren mugen barruan ez daudela egiaztatzen bada, prozeduraren aldaketa burutuko da: hau da, prozedura arruntera edo Zinpekoen Epaimahaiaren prozedura berezira, bere eskumenaren egitateak izanez gero. Gainera, inputatuak, abokatuak lagunduta, egitateak onartzen baditu epailearen aurrean eta PKLren 801. artikulua mugak gainditzen ez badira, epaiketa arinaren ildotik joko da (PKLren 760 eta 779.5 art.). Egitateek falta osatzen badute, ordea, edo jurisdikzio militarren eskumena badira, edo inputatua adingabea izanez gero, eskuduna den organoari helaraziko zaio auzia.

### **1.3.5. Tarteko fasea: ahozko epaiketa prestatzeko fasea**

Ikerketa-egintza guztiak amaitu ondoren eta instrukzioko epaileak prozedura laburtuaren bidea erabakita, Ministerio Fiskalari eta alderdi akusatzaileei helaraziko dizkie eginbideak, haiek akusazioa egin dezaten. Momentu horretan, ahozko epaiketaren irekiera, largespena edo eginbide berriak egiteko prozedura laburtuaren hasiera-autoa ezeztatzea eska dezakete (PKLren 780. art.). Prozedura arruntean ez bezala, laburtuan, auzia ez zaie akusatuei ere helarazten (zentzu horretan Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 15eko 186/90 sententzia gogora ekarri behar da). Alderdi akusatzaileek hamar eguneko epea izango dute, eta beste hamar egunez luzatzea dago epaileak egokitzat hartzen duenean. Epe barruan fiskalak idazkia aurkezten ez badu, epaileak haren goiko hierarkikoari egiteko errekerituko dio (PKLren 781.2 eta 3).

Prozedura laburtuan, largespenari buruzko erabakia instrukzioko epaileari dagokio; arruntean ordea, organo epaitzagilearen eskumena da.

Akusatzaile guztiek largespena eskatuz gero, horrek epailea lotesten du eta largespena erabaki beharko luke, ZKren 20. artikulua 1, 3, 5 eta 6. zenbakietako zioetan oinarritzen denean izan ezik –hots, erotasun, pertzepzioaren aldaketa, beharrian-egoera

eta beldur gaindiezinaren kasuetan-, baina prozesuak jarraituko luke erantzukizun zibila eta segurtasun-neurriak ezartzeari dagokienez.

Akusatzaile partikularrik ez izanik, fiskalak bakarrik eskatuz gero, epaileak honako aukera hauek izango ditu: a) largespena erabaki; b) fiskalaren goiko hierarkikoarengana auzia bidali, largespenari buruzko egokitasun edo desegokitasuna adierazteko; c) agertu ez diren kalte eragindakoei eta ofendituei erabaki horren berri eman, nahi izanez gero akzio egokiak egikaritu ahal izateko (PKLren 782.2 art.).

Nahiz eta akusatzaileetariko batek ahozko epaiketaren hasiera eskatu, epaileak ofizioz erabakiko du largespena, epailearen ustez egitateak delituzkoak ez badira edo kriminalitateko arrazoizko seinalerik ez badago (PKLren 783.1 art.).

Legeak aurretiazko frogaren arauak jasotzen ditu. Instrukzioko epailearen ustez frogaren bat ahozko epaiketaren ekitaldian burutu ezin bada, edo burutuz gero, atzerapen-zioa izango balitz, aurretiaz egitea erabakiko du, betiere alderdien kontradikzioa bermatuz (PKLren 777. art.). Eginbide hori bideo bidez edo idazkariak kautotariko idatzizko akta bidez dokumentatuko da eta froga-balioa eman ahal izateko grabatuta dagoena erreproduzitu edo akta irakurri beharko da, baina horretarako, alderdiak eskatu beharko du.

Prozedura arruntean ez bezala, laburtuan ahozko epaiketaren irekiera akusazio-idazkian bertan egiten da. Beraz, honetan adieraziko dira: ahozko epaiketaren hasieraren eskaera, uzi penala eta zibila, froga-proposamena, eta aurretiazko frogaren proposamena. Azpimarratzekoa da prozedura arruntean lehenengo idazki batean ahozko epaiketaren irekiera eskatzen dela, eta bigarren batean, kalifikazioa aurkezten dela. Prozedura laburtuan, aldiz, bi jarduerak batzen dira idazki berean: ahozko epaiketaren irekieraren eskaera eta kalifikazioa.

Fiskalak edo akusatzaile partikularrak bakarrik eskatuta ahozko epaiketa irekitzea erabaki bazen, largespena eskatu zuenari helaraziko zaio, nahi izanez gero, akusazioa aurkeztu ahal izateko (PKLren 783.1 II art.).

Ahozko epaiketa hasiz gero, jarduera guztiak akusatuei helaraziko zaizkie, horiek defentsa-idazkiak aurkez ditzaten (PKLren 784. art.).

### **1.3.6. Ahozko epaiketa**

Instrukzioko epaileak ahozko epaiketaren irekiera erabakiko du autoz. Auto hori ez dago errekurritzerik; dena dela, alderdiek beren eskaerak errepikatzeko aukera izango dute epaitu behar duen organoaren aurrean (PKLren 783.4 art.). Auto horretan epaitu behar duen organoa zehaztu, eta akusatu eta erantzule zibilen aurkako kautelazko neurriei buruz erabakiko da (PKLren 783.3 art.).

Ahozko epaiketa irekita inputatua epatuko da eta akusazio-idazkiak emango zaizkio. Hark abokatuak lagunduta eta prokuradoreak ordezkaturata agertu beharko du. Lehen esan denez, une horretan beharrezkoa izango da prokuradorea izendatzea. Hari eta hirugarren erantzule zibilei jarduerak helaraziko zaizkie, hamar eguneko epe komunean defentsa-idazkia aurkez dezaten (PKLren 784. art.).

Defentsa-idazkian akusatuak honako jarrera hauek izan ditzake: a) Akusazio-idazkietan emandako kalifikazioei eta erantzukizunei aurka egin -izan ere, hauxe izango litzateke benetako defentsa-idazkia- eta ahozko epaiketarako frogen proposamena egin; b) akusazio-idazkien kalifikazioak eta erantzukizunak onartu, eta zigorrik larriena eskatzen duen idazkiarekiko adostasuna eman; c) kalifikazio-idazki bat aurkeztu akusazioarekiko adostasuna adierazteko. Azken kasu horretan, akusatzaile, akusatu eta bere abokatuaren baterako idazkia izango litzateke, baina ahozko bista hasi baino lehen aurkeztu beharko da (PKLren 784.3 II art.).

Defentsa-idazkia aurkezteko epe barruan akusatua leku ezezagunen batean badago, deitu eta bilatzeko errequisitoria ematea aginduko da, baldin eta: a) PKLren 775. artikulua bizilekuaren izendapena egin ez bazuen; eta b) edozein kasutan, eskatutako zigorra bi urtetik gorakoa bada, askatasun-gabetze zigorra izanik, edo sei urtetik gorakoa bestelako izaera duen zigorra izanik. Akusatua agertzen ez bada, auzi-ihes deklaratuko zaio (PKLren 784.4 art.).

Defentsa-idazkiak jasota, idazkari judizialak epaituko duen organo eskudunari bidaliko dizkio eta alderdiei jakinaraziko zaie (PKLren 784.5 art.). Organo horrek autoz proposatutako froga onartu edo ukatu, eta kasua denean, aurretiazko frogari buruz egokia dena erabaki, eta ahozko bistaren saioen eguna zehaztuko du. Auto berean onartutako frogak burutzeko beharrezko komunikazioak egitea agintzen da, alderdiek horrela eskatu bazuten (PKLren 785.1 I art.).

Frogak onartu edo ukatzen dituen autoa ezin da errekurritu; hala eta guztiz ere, alderdiak ahozko epaiketaren saioen hasieran berriz eska dezake. Izan ere, momentu honetara arte alderdiek eta Ministerio Fiskalak egokitzat hartzen dituzten txostenak, ziurtagiriak eta gainontzeko dokumentuak gehi ditzakete auzira (PKLren 785.1 II art.).

Ahozko bistarako data zehazteko akusatuaaren egoera -espetxeratuta dagoen edo ez-, froga burutzeko zailtasuna, edo eragina izan dezaketen bestelako zirkunstantziak hartuko dira kontuan (PKLren 785.2 art.). Epaiketaren eguna eta lekua biktimari jakinaraziko zaizkio, berau prozesuko alderdia ez den arren (PKLren 785.3 art.).

Ahozko bista zehaztutako egun, ordu eta lekuan hasiko da eta beharrezkoa izango da akusatuaaren eta bere abokatuaren agerpena. Horrela izan ezean, bista esekiko da. Dena dela, lehen aipatutako baldintzak beteta, ahozko bistaren jarraipena erabaki daiteke. Ez da horrela gertatuko agertzen ez dena erantzule zibila denean (PKLren 786.1 art.).

Idazkariak akusazio- eta defentsa-idazkiak irakurriz emango dio hasiera ahozko epaiketari. Jarraian, alderdiek eskatuta, berauek ahoz parte hartzeko txanda bat irekiko da. Txanda horretan alderdiek egokitzat hartzen dutena adieraz dezakete honako gai hauei buruz: jurisdikzio-organoren eskumena, oinarrizko eskubideren baten urraketa, aurretiaz erabaki beharreko artikulak, ahozko epaiketa esekitzeko balizko zioak, jardueren deuseztapena, eta proposatutako edo ekitaldian bertan proposatzen diren frogen helburua eta edukia.

Aurkeztutako arazoak ekitaldian bertan erabakiko ditu epaileak edo auzitegiak. Erabakia ezin izango da errekurritu, baina aurretiazko protesta eginda, prozesua amaiazten duen sententziaren aurkako helegitean arazoa berriz aurkeztea liteke (PKLren 786.2 art.).

Froga burutu baino lehen, defentsak prozesuaren amaiera eska dezake, akusatua adostasuna ematen duenean. Adostasunik egon ezean, onartutako frogak burutuko dira.

Frogak burutzeari dagokionez, prozedura arruntaren arauak aplikatzen dira, salbuespen batzuekin. Adibidez, peritu-txostena peritu bakarrak eman dezake (PKLren 788.2 art.).

Froga guztiak burutu ondoren, alderdiek behin betiko kalifikazioak aurkeztuko dituzte, behin-behinekoak aldatu edo berresteko. Behin betiko kalifikazioetan akusazioak egitateen zigor-tipifikazioa aldatu edo partaidetza, exekuzioaren maila altuagoa nahiz inguruabar astungarriak aintzat hartuz gero, jurisdikzio-organoak saioaren atzerapen bat erabaki dezake, -gehenez hamar eguneko-, defentsak eskatzen duenean. Atzerapenaren helburua da alegazioak era egokian prestatzea, eta kasu denean, nahi dituen frogak eta deskarguko elementuak aurkeztea (PKLren 788.4 art.).

Zentzu berean, akusazio guztiek zigor-epaitegiaren eskumena gainditzen duen delitu moduan egitatea kalifikatzen duenean, bere eskumenik eza deklaratu du eta eskuduna den auzitegiari helaraziko dizkio jarduerak. Kasu horretatik kanpo, zigor-epaitegiak epaiketaren jarraipena edo amaiera erabakiko du, baina ezin izango du bere eskumen barruan dagoena baino zigor astunagorik ezarri (PKLren 788.5 art.).

Ondoren, frogaren balorazioa eta egitateen kalifikazioari buruzko ahozko txostenak egingo dituzte.

Behin ahozko bista amaituta, akta jasoko da eta epaileak edo presidentek eta magistratuek, idazkariak, fiskalak eta bi alderdien abokatuek sinatuko dute. Hartan burututako frogaren oinarrikoa, gertatutako intzidentziak, erreklamazioak, eta emandako ebazpenak azalduko dira (PKLren 788.6 art.).

Ahozko epaiketa amaitu eta ondorengo bost egunetan epaia emango da, idatziz (PKLren 789.1 art.). Hala ere, zigor-epaitegia eskuduna denean bakarrik, bistaren amaieran eta ekitaldian bertan ahoz eman dezake epaia, "in voce" izeneko epaia. Kasu horretan, epaitza-aktan edo horren eranskin batean dokumentatuko da, eta lehen

ikusitako eran eta epean idatziko da. Momentu horretan bertan fiskalak eta gainerako alderdiek ez errekurritzeko erabakia adierazten badute, epaileak epaiaren irmotasuna deklaratuko du.

Zigor-epaitegiek emandako epaiak apelazioan errekurri daitezke Entzutegi Probintzialaren aurrean, edo Entzutegi Nazionalaren aurrean, zigor-epaitegi zentral batek emandako epaiaren kasuan; Entzutegi Probintzialek edo Entzutegi Nazionalak emandakoak, aitzitik, kasazioan.

Epaia akusatua epaiketari agertu gabe eman bazen, hura agertzen denean deuseztapen-errekurtsoa tartera dezake (PKLren 793.2 art.).

Amaitzeko, kontuan hartu behar da akusatuak adostasuna eman bazuen, horrek prozesuaren amaiera eta epaia ahoz ematea dakarrela. Era berean, ahoz deklaratu da haren irmotasuna, baldin eta fiskalak eta gainontzeko alderdiek ez errekurritzeko erabakia adierazten badute. Dena dela, esan behar da adostasunaren baldintza guztiak errespetatuz gero, ez litzatekeela posible errekurritzea (PKLren 787.6 eta 7 art.)

## **1.4. Falta-prozedura**

### **1.4.1. Gai orokorrak**

Falta prozedura Zigor Kodeak zigortutako faltak epaitzeko bidea da. Eskumena bi organoren artean banatzen da: instrukzioko epaitegia, emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegia eta bake-epaitegia (PKLren 14.1 eta BJLOren 87. ter 1 d) art.).

Honela banatzen da eskumena aipatutako hiru organoen artean:

- Bake epaitegiak ZKren 620, 626, 630, 631, 632 eta 633. artikuluek jasotako faltak epaituko ditu.
- Emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegia: ZKren 617.-622. eta 623.-628. artikuluek aurreikusitako faltak, baldin eta biktima ustezko delitugilearen emaztea edo emazte ohia bada, edo harekin afektuzko harremana izan badu, edo ustezko delitugilearen, bere emaztearen edo neskalagunaren zuzeneko

ondorengoa bada, ustezko erasotzailearen edo haren emazte edo bizikidearen potestate, tutoretza, kuratela, babespena edo zaintzaren menpe dagoen adingabea edo ezgaitua bada.

- Gainerako kasuetan, epaitzeko eskumena instrukzioko epaitegiari dagokio.

Prozedura horren bitartez, epaitzen diren hausteen larritasun urria dela-eta, ezaugarri bereziak ditu: prozedura sinple eta bizkorra da. Ahozkotasan, hurrentasun eta kontzentrazio-printzipioek eraentzen dute; horrela, bista bakarrean burutzen dira frogak guztiak (PKLren 969. art.).

Aurreko bi prozeduretan ez bezala, falta-prozeduran ez dago instrukziorik, tarteko faserik, ezta epailearen inputazio-egintzarik ere ahozko epaiketa ireki ahal izateko. Epaileak falta osatzen duten egiteen berri hutsa izatea nahikoa da akusatzaileei entzun gabe ofizios inputatua zitatzeko. Hala eta guztiz ere, zitazioarekin batera leporatzen zaizkion egitateen berri, edo kasua denean, salaketa edo kereilaren kopia emango zaio. Gainera jakinaraziko zaio bere defentsarako baliarazi nahi dituen frogak edukita bista-ekitaldira joan behar duela (PKLren 962.2 art.).

Behin prozesua hasi ondoren, ahozko epaiketari ekiten zaio. Horretan salatzaileak edo kaltedunak falta jazartzeko eta akusazioa eginez alderdi moduan eratzeko asmoa berretsi ondoren, uziak ahoz adierazten dira; ondoren, frogak burutu eta epaileak sententzia emango du.

Falta-epaiketetan ez da beharrezkoa abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea (PKLren 969.1 art.). Baina horrek ez du esan nahi, nahi izanez gero, erabiltzerik ez dutenik. Horrela jakinaraziko zaie ahozko bistarako zitazioa egitean (PKLren 962.2, 964.3 eta 967.1 art.).

Falta-epaiketa burutuko da nahiz eta akusatua ziorik eman gabe honetan ez agertu, baldin eta zitazioa egokia egin bada, eta epailearen ustez haren deklarazioa beharrezkoa ez bada (PKLren 971. art.). Dena dela, akusatua epaiketan ez agertzeko aukera izango luke epaitegiaren mugape barruan bizi ez bada; kasu horretan, bere defentsa idatziz egikaritu eta alegazioak eta frogak abokatu edo prokuradore ahalmendun baten bitartez aurkez ditzake (PKLren 970. art.).

Eskuduna den organoa, hasiera-egintzak jaso bezain pronto, ahozko epaiketara deituko die alderdiei. Kasua denean exhortoaren bitartez egingo dira galdeketa batzuk (PKLren 967. art.).

#### **1.4.2. Prozeduraren garapena**

Egitatearen izaera eta burutze-era kontuan izanik, falta-epaiketaren hainbat izapidetze aurreikusten ditu legeak, 38/2002 legearen ondorioz. Izan ere, PKLren 962 eta 964. artikuluek falta-epaiketa mota bi jasotzen dituzte: batetik, etxeko indarkeriaren edo ondarearen aurkako faltak, eta bestetik, gainerakoak, baldin eta PKLren 964. artikulua ezarritako baldintzak betetzen badira. Horietaz aparte, PKLren 965. artikulua beste falta-epaiketa mota bat ezartzen du: guardia-zerbitzuan burutu ezin diren epaiketak.

Epaileak faltaren berri izan ondoren, eta behin epaiketaren tokia, eguna eta ordua zehaztuta, zitazioak egingo dira: a) Inputatuaren zitazioa idatziz egingo da, salaketa edo kereilaren egitateak jakinarazteko. Horretarako kereila edo salaketaren kopia edo inputaturiko egitateen azalpen laburra itsatsiko da); gainera jakinaraziko zaio bere defentsarako baliarazi nahi dituen frogak edukita epaiketara joan beharko duela (PKLren 962. II art); b) Fiskala ere zitatuko da, falta pribatua denean izan ezik, edo falta erdi-pribatuetan, kaltetunak edo bere ordezkari legalak salaketa jarrita. Falta erdi-publikoak izanez gero, baliteke Ministerio Fiskala bistan ez agertzea; horrela bada, salatzailearen deklarazioak akusazioaren balioa izango du bistan. c) Kereilariak edo salatzaileak, kasua denean; d) biktimak eta kaltetunak; eta amaitzeko e) egitateen berri izan dezaketen lekukoak.

Lehen adierazi denez, inputatua epaiketara agertzen ez bada, horrek ez du bistaren atzerapena ekarriko, baldin eta zuzen zitatu bazen eta epaileak haren agerpena beharrezkoa ez dela uste badu.

Epaiketa zehaztutako toki, egun eta orduan burutuko da, eta ezin bada ekitaldi bakarrean amaitu, data berri bat zehaztuko da harekin jarraitzeko. Bista publikoa izango da, “ateak itxita” egitea erabakitzen denean izan ezik, baldin eta legezko baldintzak ematen badira. Bistan bertan salatzaileak edo kereilariak epaiketara alderdi moduan



aurkeztu nahi duten, eta salaketa edo kereila oinarritu duten akusazio zehatzak adieraziko dituzte; azken horiek aldeztu aurretik irakurriko dira. Gauza bera egingo du fiskalak, hau dagoenean. Jarraian akusatuari galdeketa egingo zaio, onartutako froga burutu eta alderdiek ahozko alegazioak egiteko txanda irekiko da. Amaitzeko akusatuari “azken hitza” izateko eskubidea egikaritzen utziko zaio (PKLren 969.1 art.).

Bistaren amaieran esan eta jardun den guztia aktan jaso eta epaia emango da; ezinezkoa bada, hurrengo hiru egunetan. Epaia alderdi eta ofenditu nahiz kaltetu jakinaraziko zaie, nahiz eta azkenak prozesuan agertu ez. Jakinarazpenean, helegite egokiak, organo eskuduna eta epeak ere agertuko dira (PKLren 972 eta 973. art.).

Epaia bake-epaitegiak eman bazuen, horren barruti judizialeko instrukzioko epaitegiaren aurrean apelazioan errekurri daiteke (BJLOren 87. d) art.); eta instrukzioko epaitegiak eman bazuen, Entzutegi Probintzialaren aurrean; kasu horretan, magistratu bakar batek osatuta (BJLOren 82.2 art.). Epaia notifikatu eta hurrengo bost egunetan errekurtsioa tarteratu ahal izango da (PKLren 976.2 art.). Apelazioan emandako epaiaren aurka ez dago errekurtsorik.

PKLren 975. artikulua arau berezi bat jasotzen du: falta-epaiketaren emandako epaia irmo bihurtuko da epaitza ezagutu ondoren, ekitaldian bertan ez errekurritzeko intentziora adierazten badute. Dena dela, epaia betearazi ahal izateko epaiketaren aurkeztu ez diren kaltetuek eta ofendituek errekurritzeko duten epea amaitu arte itxaron beharko da (PKLren 974.1 art.). Ez da ahaztu behar nahiz eta horiek prozesuan agertu ez, errekurritzea dutela.

### **1.4.3. Falta-prozedura motak: berehalako prozedura eta prozedura arrunta**

Prozedura Kriminaleko Legeak bi falta-prozedura mota aurreikusten ditu: prozedura arrunta eta berehalako prozedura. Bataren eta bestearen egokitasuna zehazteko irizpideak honako hauek dira: falta burutzeko era, hau da, falta goria den ala ez; epaitu behar duen organoa eta epaileak egitateen berri izateko era; eta amaitzeko guardia-zerbitzuko instrukzioko epaitegi batek epaitzerik duen ala ez.

PKLren 964. artikulua falta-epaiketa arrunta burutzeko era jasotzen du. Prozedura horren arauak falta guztiei aplikatzen zaizkie, PKLren 962 eta 965. artikuluen zirkunstantziak ematen direnean izan ezik.

Poliziaren atestatua jasota edo salaketa nahiz kereila onartuta, epaileak berehala burutuko du epaiketa zirkunstantzia konkretu batzuk biltzen badira: inputatua identifikatuta egotea, guardia-zerbitzuan zehar epaitegian agertzeko interesatu guztiak zitatu ahal izatea, zitatuak epaiketaren agertzea, edo bere kasuan, euren agerpena beharrezkoa ez izatea; guardiako epailea eskuduna izatea, eta froga egoki eta beharrezko guztiak burutu ahal izatea.

#### A) Berehalako epaiketa

PKLren 962. artikulua berehalako falta-epaiketa arautzen du baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badira: a) epaitu beharreko egitateak ZKren 617. artikulua aurreikusitako izatea, hau da, tratu txarrak edo lesioak, edozein kasutan; 623.1 artikulua, laurehun euro gainditzen ez duen ebasketa-falta goria; 620. artikulua aurreikusitako, hots, mehatxuak armak erabilia edo horiek gabe, hertsapenak, irainak, edo larritasun gutxiko laidoak, egitateak ZKren 173.2 artikulua aipatutako pertsonak ukitzen dituztenean -biktima erasotzailearen ezkontidea denean, edo harekin harreman afektibo, egitatezko edo familiarra duenean-; b) Gainera, beharrezkoa izango da epaiketa guardia-zerbitzuan burutu ahal izatea eta atestatua eman behar zaion instrukzioko epailea edo barruti judizial bereko beste bat eskuduna izatea, eta falta-epaiketa poliziaren atestatuari jarraiki hastea (PKLren 962.1 art.). c) Amaitzeko, beharrezkoa da epaiketaren ekitaldian froga egoki guztiak burutu ahal izatea.

Polizia judiziala bera arduratzen da epaiketarako zitazioaz; hark salatua, ofendituak edo kaltetunak eta balizko lekukoak zitatuko ditu berehala guardiako epaitegiak agertzeko. Azken horri atestatua eta burututako jardun guztiak helaraziko zaizkie (PKLren 962. art.). Guztiei jakinaraziko zaizkie ez-agertzearen ondorioak, ez-agertzeak ez duela galaraziko epaiketa berehala burutzea, eta baliarazi nahi dituzten frogak edukita joan behar dutela.

Alderdiak agertuta, guardiako epaileak erabakiko du epaiketa berehala egin edo atzeratu egiten den, alderdietako bat ez-agertzea eta beharrezko frogabideak ekitaldian bertan burutzerik dagoen kontuan harturik. Guardia-epaileak eskuduna izan beharko du falta-epaiketa berehala burutzeko eskumenen eta banaketa-arauen arabera (PKLren 963.3 art.).

Bestalde, falta kasu guztietan, guardiako epaitegiak berehalako epaiketa burutu ahal izango du, ofendituak berak salaketa aurkeztu duenean, baldin eta salatua identifikatuta izanik, posible bada egitateetan inplikatu guztiak bere aurrean agertzeko zitatzea guardia-zerbitzuan (PKLren 964.2 art.). Posible ez bada, prozedura arruntaren ildotik jo beharko da.

Etxeko indarkeriaren falten kasuetan, guardiako epaitegi berezi bat aurreikusten da, zortzi edo instrukzioko epaitegi gehiago dituzten barruti judizialetan. Dena dela, falta mota horietan berehalako epaiketa posible ez bada, banaketa-arauak guardia-zerbitzuan ezagutzen hasi zen epaile bera epaiketa arruntan ere epaitzen jarraitzeko moduan ezarri beharko dira.

## B) Prozedura arrunta

Epaiketa guardia-zerbitzuan burutu ezin denean eta instrukzioko epaitegi berari edo barruti judizial bereko beste bati badagokio, PKLren 965. artikulua 1. arauri jarraituko zaio. Epaiketa eperik laburrenean burutuko da, baina epe hori ezin izango da zazpi egunetik gorakoa izan. Horrela, falta-epaiketak berehalakoa izateari utziko dio.

Amaitzeko, falta-epaiketa burutzeko eskumena beste barruti judizial bateko instrukzioko epaitegi bati edo barruti judizial bereko bake-epaitegi bati badagokio eta guardia-zerbitzuan burutu ezin bada, guardiako epaitegiak epaile eskudunari bidaliko dizkio jardunak berak epaiketaren data finkatu eta zitazioak egin ditzan (PKLren 965.1 art.).

## 1.5. Metaturiko prozesu zibila

PKLren 100. artikulua dioenez, “delitu edo falta guztiek erruduna zigortzeko zigor-akzioa sortarazten dute, eta akzio zibila ere sor daiteke gauza itzultzeko, kaltea konpontzeko eta delitu-egitateak egindako kalte-galerak ordaintzeko”. Beraz, delituzko egitatea burututa, bi akzio egikari daitezke: zigor-akzioa, erruduna zigortzeko helburuz, eta akzio zibila, sortutako kaltea ordaintzeko.

Zigor-prozesuan zigor-akzioarekin batera akzio zibila ere egikari daiteke, ofendituak horri uko egiten ez badio, edo prozesu zibilerako gordetzen ez badu. Bi akzioak egikaritzuz gero, prozesu bakarra egongo da, zigor-prozesua, baina bi objektu izango ditu: zigor-objektua, egitate kriminalak eta akusatuak osatua, eta zibila, kalte-ordainaren uziak osatua. Beraz, zigor-organo berak bietaz ezagutzeko eskumena izango du.

PKLren 108 eta 112. artikuluetatik ondorioztatzen denez, zigor-akzioa egikaritzen denean, akzio zibila ere erabiltzen dela ulertuko da. Izan ere, Ministerio Fiskalak biak egikaritzeko ditu, prozesuan akusatzaile partikularra izanik edo ez izanik, ofendituak horri uko egiten dionean edo prozesu zibilerako gordetzen duenean izan ezik.

Baina kontuan hartu behar da batzuetan zigor-prozesuan akzio zibila bakarra izan daitekeela, adibidez, zigor-erantzukizunaren salbuespen inguruabarrak direla-eta largespena ematen denean (ZKren 20.1, 2, 3, 5. eta 6 art.). Kasu horretan, zigor-prozesuak aurrera jarraituko du, baina erantzukizun zibilari dagokionez bakarrik; beraz, zigor-prozesuak objektu zibila baino ez luke izango.

Baina, zelan egikaritzen da akzio zibila zigor-prozesuan? Alderdi akusatzaileek kalifikazio- edo akusazio-idazkien bitartez delituengatiko prozeduretan eta ahozko bistan bertan, falta-prozeduran (PKLren 650, 790.5 eta 969. art.). Aktore zibilaren kasuan, PKLren 651. artikulua konklusio-idazkien bidez, zibila uzi bakarra izanik; izan ere, uzi zibilak horren froga-proposamena eta defentsa-txostenak mugatuko ditu (PKLren 320 eta 375. art.).

ZKren 109. artikulua arabera, delitu edo falta burutzen duenari, kaltea konpontzea, hots, erantzukizun zibila dagokio. Hala eta guztiz ere, batzuetan akusatuak ez diren

hirugarren pertsonak ere erantzukizun zibila izan dezakete: erantzule zibilak, zuzenekoak edo subsidiarioak.

Prozesuan zehar erantzukizun zibilak segurtatzeko bermeei dagokienez, kautelazko hainbat neurri erabaki daitezke; hauek kereilan bertan eska daitezke. Zentzu horretan, balizko erantzukizun zibilak betetzeko kalkulatuaren heren bat gehiago eskatuko da fidantzan; eta egon ezean, zenbateko horrengatik enbargatuko da (PKLren 589. art.). Zuzeneko erantzuleei edo subsidiarioei exijituko zaie, baldin eta aktoreak eskatzen badu.

PKLren 616.-618. artikuluek bide intzidental bat aurreikusten dute hirugarren erantzuleak aurka egin ahal izateko. Hori pieza bananduan izapidetu eta auto bidez erabakiko da (PKLren 619 eta 620. art.). Ahozko bistan, berriz, errepikatu ahal izango da.

PKLren 590.-614. artikuluek fidantza, horren mota eta enbargoen araei dagokien guztia arautzen dituzte.

Akusatuak kalifikazio-idazkietan erantzukizun zibilaren aurka egin edo hori onar dezakete, eta hirugarren erantzukizun zibilen kasuan, beren idazkietan. Idazki horietan baliarazi nahi dituzten frogak proposatuko dituzte (PKLren 652. art.). Kontuan hartu beharra dago falta-epaiketan jarduera horiek ahozko ekitaldian bertan burutuko direla, aipatutako idazkirik ez baitago.

Epaiaren prozesuko objektua izan diren erantzukizun zibileko gai guztiak erabakiko dira (PKLren 742.2 art.). Horrela, erabaki guztiak errekurritu ahal izango dira bakarrik edo zigor-erabakiekin batera.

## **2. KAPITULUA. PROZESU BEREZIAK ETA PROZEDURAZKO BEREZITASUNAK**

**2.1. Prozesu berezien eta prozedurazko berezitasunen arteko desberdintasuna. 2.2. Prozedurazko berezitasunak. 2.2.1. Senatarien eta Diputatuen kontrako prozesuetan. 2.2.2. Kalumniagatiko eta irainagatiko prozesuetan. 2.2.3. Edozein hedabidek egindako delituengatiko prozesuetako ezaugarriak. 2.3. Prozesu bereziak. 2.3.1. Prozesu militarra. 2.3.2. Adingabeen prozesua. 2.3.3. Estradizio pasiboa. 2.3.4. Atxilotzeko eta emateko aginduen betearazpena Europan.**

### **2.1. Prozesu berezien eta prozedurazko berezitasunen arteko desberdintasuna**

Gai hau azaltzeko orduan garrantzizko bereizketa egin behar da. Beharrezkoa da prozesu berezietatik prozedurazko berezitasunak desberdintzea. Batzuetan, bi kontzeptuak nahasten dira edo biak prozesu bereziak direla uste da.

Lehenengo kasuan, prozedurazko berezitasunen kasuan, prozesuak arruntak dira baina berezitasun batzuk dauzkate; ez dira, beraz, beste prozesu berri batzuk. Berezitasun horiek jarduera prozesalaren hasierari eragiten diote, hau da, atariko prozedurari (edo instrukzio-faseari) edo neurri kautelarrei, baina ez prozedurari berari. Horrela bada, prozesua arau orokorren arabera garatuko da (arau horiek zigor-prozesu adierazlean azaldu zirenak dira). Prozedurazko berezitasunetan senatarien eta ahaldunen kontrako auziak sartzen dira, baita partikularren kontrako kalumniak edo laidoak ere, eta inprentaren edo beste argitalpen bideen bidez egindako delituak.

BJLOren 410. eta PKLren 757.-778. eta MFEOren 60. artikuluen arabera, epaile, magistratu eta Ministerio Fiskalaren kideei zigor-erantzukizuna eskatzeko beharrezkoa zen aurretiko epaiketa egitea; berezitasun hori baldintza bat zen kereila onartzeko. Maiatzaren 22ko 5/1995 Zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoak betekizun hori kentzen du; horrela agertzen da bere lehenengo xedapen gehigarrian.

Baina, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak, BJLO aldatzen duena, aurretiko epaiketa berriro ezarri ez duen arren, instrukzio-epaileari baimentzen dio aurrekariak biltzeko bere eskumena zehazteko, baita zigor-egitatearen garrantzia edo egoztearen sinesgarritasuna baieztatzeko ere. Beraz, prozesu bat ezagutzen duen epailearen edo magistratuaren kontra kereila jartzen bada, eta beti kereila onartu baino lehen, instrukzio-epaileak beharrezkoak diren aurrekariak jaso ditzake. Azaldutakoaz gain, egitate horiek auzipetzeko arau orokorrak erabiliko dira, forupekoari buruzkoak izan ezik.

Bigarren kasuan, prozesu bereziak ezaugarri prozesal hauek dituzte:

A) Zigor Kodetik kanpo dauden egitate zigorgarriak auzipetzen dira; egitate horiek ez dituzte epaitegi eta auzitegi arruntek auzipetzen, hau da, BJLOren barruan dauden organo jurisdikzionaletan, beste organo desberdin batzuek baizik; eta gainera, ez dituzte PKLk ezartzen dituen prozedurak erabiltzen, beste batzuk baizik (prozesu militarren kasua da, adibidez).

B) **Prozesu berezia da**, beraz, egitateak Zigor Kodean ezartzen diren arren, prozesu hori PKLtik kanpo arautzen da. Beraz, prozesu horretan adingabeak agertzen direnean prozesu berezia da; eta horixe da, hain zuzen ere, prozesu bereziaren ezaugarria. Atal honetan Zinpekoen bidezko epaiketa barne hartzen da, delituzko egitate zehatzetarako erabiltzen dena.

C) Prozesu berezien barruan honako bi prozedura hauek sartu behar dira: estradizio pasiborako prozedura, eta atxilotzeko eta emateko Europako aginduen betearazpena.

Azkenik, gogoratu behar da urriaren 24ko 38/2002 Legeak, Xedapen Indargabetzaile bakarrak (PKL partzialki aldatu zuena), indargabetzen duela abenduaren 26ko 62/1978 Legearen 5. artikulua, gizakiaren oinarritzko eskubideen jurisdikzio-babesari buruzkoa. Beraz, egitate horiek auzipetzeko prozeduraren berezitasunak indargabetzen ditu.

## **2.2. Prozedurazko berezitasunak**

### **2.2.1. Senatarien eta diputatuen kontrako prozesuetan**

EKren 71.2 artikulua ezartzen du diputatuek eta senatariek, beren agintaldian, immunitate osoa izango dutela eta ezin atxilotuko dituztela ageri-ageriko delituaren kasuan baino. Ezin izango dituzte egotzi, ezta auzipetu ere ez, dagokion Ganberak, aurretiaz, baimena eman ezean. Gai horri buruz beharrezkoa da honako arau hauek aztertzea: PKLren 750.-778. artikulua; 1912ko otsailaren 9aren Legea, senatarien eta diputatuen kontrako auziak ezagutzeko eskuduntzari buruzkoa; Kongresuaren Arautegiaren 10.-14. artikulua; Senatuaren arautegiaren 21 eta 22. artikulua; eta BJLOren 57. artikulua.

Beharrezkoa da azaltzea immunitate parlamentarioari egiten zaiola aipamena hemen eta ez senatarien eta diputatuen bortxaezintasunari, azken horrek ez duelako ondoriorik gai honi dagokionez. Bortxaezintasunaren eta immunitatearen kontzeptuak desberdinak dira. Bortxaezintasuna senatariek edo diputatuek beren iritziak ardurarik gabe adierazten dituztenean sortzen da.

Immunitatea, ordea, abantaila bat da, hau da, haien agintaldian ezin izango diete errua egotzi edo auzipetu beren Ganberaren baimenik gabe. Desberdintasun hori Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 19ko 243/1988 sententziak jasotzen du. Immunitateak atxiloketa barne hartzen du, delitu goria izan ezik; horrela ezartzen dute EKren 71.2, Kongresuaren Arautegiaren 11. eta Senatuaren arautegiaren 22. artikuluek.

Auzitegi Gorenaren bigarren Epaimahaiak diputatuen eta senatarien kontrako auzi kriminalak izapidetu eta auzipetzen ditu (1912ko Legearen 1. art. eta BJLOren 57.2 art.). Jakinarazi egingo zaie falta edo egitate zigorgarria leporatu dietela defentsa-eskubidea erabil dezaten eta egotzitako egitateak nola gertatu ziren ere azalduko zaie. Errudunak diren aztarnak aurkitzen badira, jarduerak etengo dira eta dagokion Ganberari eskatuko zaio erregu-baimena deiturikoa (PKLren 118. bis art.); artikulua hau uztailaren 5eko 7/2002 Lege Organikoak sortzen du.



Orain arte aipatutakoak esan nahi du legebiltzarkidearen kontrako salaketa edo kereila aurkeztu ondoren, beren onarpenaz erabakiko dela eta onartu ondoren, esan den bezala egingo dela. Hau da, erregu-eskaera egiteko ez da nahikoa parlamentarioari ustezko egitate zigorgarria leporatzea. Beharrezkoa izango da egitatearen sinesgarritasunaren gainean uste sendoa izatea, kaltetunari entzutea eta ondoren, bere kasuan, jarduerak eten ahalko dira eta eskaera hori dagokion Ganberari helaraziko zaio.

Erregu-eskaerari dagokionez esan beharra dago ezinbesteko ezaugarria dela prozesua irekitzeko. Erregu-eskaeraren funtsezko helburua da herriaren ordezkariak babesteko baldin eta edonork, zio politikoengatik, saiatzten bada Ganberetako bileretara joan dadin galaraztea eta, beraz, Ganberen funtzionamendua eta osaera aldatzea (horrela azaltzen du Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 27ko 206/1992 sententziak).

Azaldu berri denak esan nahi du ez Kongresuak ez Senatuak ezin diotela uko egin beren kide baten kontrako zigor-auziaren segimenduari. Ezin dute kideen jokaera zuritu, baldin eta ustezko egitate zigorgarri gisa tipifikatzen bada eta ez badu aldaketa politikarik eragiten. Beraz, Ganberen aldaketa edo bere ohiko funtzionamendua aldatzea baldintzak bakarrik dira erregu-eskaera emateko orduan, eta erabakia arrazoitu behar da.

Erregu-eskaera eskatzen denean, jarduera prozesal osoa eteten da, eskera onetsi edo uko egin arte (PKLren 753. art.). Inputatua legebiltzarkidea dela jakin bezain laster (une horretan delako edo prozesua egiten den bitartean bihurtu delako), eginbideak Auzitegi Gorenera igorriko dira (neurri egokiak jarri ondoren) delitua estaltzea edo ihesa saihesteko (1912ko Legearen 2 eta 5. art.); une horretan legebiltzarkideak eskaera-erregua eska dezake. Baina, onura hori, berriz, ezin da erabili legebiltzarkide-egoera sententzia eman ondoren lortu denean eta sententziaren kontra helegitea jartzeko (ikus Auzitegi Gorenaren 2002ko abenduaren 19ko sententzia).

Baina kontrako kasuan, hau da, legebiltzarkidea auzipetzea aipatutako betekizuna bete gabe (erregu-eskaera eskatu gabe), epailearen jarduerak Estatuaren instituzioen kontrako delitua sor dezake (ZKren 501. artikulua arabera).

Senatariari edo diputatuari eragiten dizkioten eginbideak ere eten egingo dira, autoen edo probidentzien aldaketari (aurretik atxilotzea, kartzelatzea edo auzipetzea ezarri dituztenak) dagokionean izan ezik (1912ko Legearen 6. art.). Aipatutakoa hala izan arren, egotzitako legebiltzarkidea ager daiteke, nahi izanez gero, atariko prozeduran (deklaratzeko edo dokumentuak emateko, adibidez). Horrela gertatzen bada, jarduerak ez dira guztiz etengo; baina, etetea beti gertatuko da legebiltzarkidea egozten edo auzipetzen dutenean, eta erregu-eskaera betekizuna beharrezkoa izango da.

Auzitegi Gorena erregu-eskaera eskatzen duena izango da, eskudun bakarra delako auzia auzipetzeko eta Ministerio Fiskalaren bidez egingo du (PKLren 756. art. eta 1912ko Legearen 5. art.). Erregu-eskaeraren batera igorriko da karguen testigantza, egokiak diren jarduerak eta, izatekotan, fiskalaren txostena. (PKLren 755. art. eta 1912ko Legearen 11. art.)

Erregu-eskaera era egokian aurkeztu eta jaso ondoren, Ganberaren presidentek txostena eskatuko dio dagokion Komizioari, beren arautegietan aurreikusitakoaren arabera eta Plenoaren erabakipean utziko du (Kongresuaren Araudiaren 13.-14. art. eta Senatuaren Araudiaren 23. art.). Kongresuan, Komisiao Diputatuen Estatutuen Komisiao iraunkorra da (13, 46 eta 48. art.); Senatuan, berriz, Erregu-komisio orokorra da (22.2 eta 49. art.). Komisiaoak, gehienez, 30 eguneko epea dauka txostena emateko eta bere eztabaida lehenengo Plenoan egingo da.

Eskaturiko baimena emanda, prozedurak (sententzia eman aurretik Ganberak banatzeak ez dio prozedurari eragingo) jarraituko du delitu mota edo zigorragatik dagozkion izapideen arabera eta ezin da helegiterik jarri prozeduran emango den erabakiaren kontra. Estatuko Auzitegirik Altuenak auziaz ezagutzen duenez, helegitea jartzeko bidea ixten da (ikus Konstituzio Auzitegiaren uztaillearen 5eko 42/1982 eta martxoaren 16ko 353/1988 sententziak).

Hala ere, honako bi arrazoi nagusi hauek emanez gero, erregu-eskaera ezeztatuko da: inputatua ez denean senataria edo diputatua; kasu horretan, dagokion epaileak edo auzitegiak ezagutuko du auzia, forupeko egoerarik ez dago eta (1912ko Legearen 8. art.). Bigarren kausa da ez dela erregu-eskaera onartzen.

Eztabaidatzen da Ganberak azter ditzaketen egitateak, auzipetu baino lehen, (ondorioz, jurisdikzio-funtzio barnean sartzen dira) edo, aldiz, bakarrik egiaztatu behar dute prozesua erabiltzen den Ganberen erregimena eta funtzionamendua aldatzeko eta balorazio politikoa denez jurisdikzio organoek ezin dute burutu. Esandakoari gehitu behar zaio Konstituzio Auzitegiak Ganberen erabakiak aztertu behar dituela (Konstituzio Auzitegiaren 42. artikulua irekitzen du babes-bidea Ganberen erabakien edo legeak ez diren egintzen kontra jotzeko). Horrek esan nahi du erregu-eskaera edo erreguzkoa bere helburutik aldentuz gero, eta eskubideei edo berme konstituzionalei eraginez gero, baliogabea izango dela eta, ondorioz, emango diren erabaki judizialak baliogabeak ere izango dira.

Ganberak erregu-eskaera jaso eta hurrengo 60 egunetan ez badute erantzuten, erregu-eskaera ezeztatu dutela ulertzen da, (Senatuaren Araudiaren 22.5 art. eta Kongresuaren Araudiaren 14. art.).

Arau horiek kontuan hartu behar dute Konstituzio Auzitegiaren 90/1985 sententzia. Aipatutako sententziak ezartzen du ukatze-zioak arrazoitu behar direla, nahiz eta ukatze-zioak zigor-akziotik (erreguzkoa sortu zuena) ere ondoriozta daitezkeen.

Edozein kasutan, erreguzkoa desegokitasunagatik ukatzen bada, auzia artxibatu egingo da legebiltzarkideekiko, baina aurrera jarraituko du gainerako leporatutakoei dagokienez (PKLren 754. art. eta 1912ko Legearen 7.1 art.).

Ikasitako ezaugarriak senatariei eta diputatuei bakarrik aplikatzen zaizkie, eta ez Autonomia Erkidegoko Legegintza Ganberetako kideei. Azken horiek forupekoak dira eta beren Autonomia Estatutua aplikatuko zaie. Horrela, delituak edo faltak egiten badituzte eta bere barrutian egiten badituzte, Justizia Auzitegi Nagusiak ezagutuko ditu. Beste kasu batzuetan, Auzitegi Gorenak auzipetuko ditu: Iruñeko Foru Aldundiaren Presidentearen edo bere kideen kasuan, adibidez (ikus 1982ko abuztuaren 10eko LOren 27. art.) eta erreguzkoa ez da beharrezkoa izango haien kontra prozesua hasteko (ikus Konstituzio Auzitegiaren 36/1981 sententzia eta azaroaren 27ko 206/1992 sententzia).

Esan beharra dago Presidenteari eta gobernuko kideei dagokienez ezaugarriren bat dagoela. Traizio edo estatuaren segurtasunaren kontra delitu bat egozten zaienean

(beren betebeharrak betetzean burutzen badituzte), beharrezkoa da Kongresuko kideen laurdenak proposatzea haien kontra kausa kriminala bultzatzeko eta, gainera, proposamen hori gehiengo osoarekin onartuko da (EKren 102. art.).

### **2.2.2. Kalumniagatiko eta irainagatiko prozesuetan**

Mota honetako egitatearen auzipetzea oso zaila da bere lanketa ez delako bateratua, banatua baizik. Beraz, delitu hauetako prozedura desberdina da inputatua agintaria edo erakundea bada edo, aldiz, partikularrak badira. Azken kasu horretan, partikularren kasuan, kontuan hartu behar da nola egin diren ustezko kalumnia edo egitate iraingarriak.

Lehenengo egoeran, Espainiako Koroaren kontrako kalumniak edo irainak (hau da, Erregearen, bere oinordekoen edo arbasoen, ezkontidearen, erregeordearen edo erregeordetzaren kide baten kontra) barne hartzen dira, eta egin daitezke beren betebeharren zioengatik edo ez (ZKren 490.3 eta 491. art.).

Bigarren egoeran, Gorteen, Autonomia Erkidegoko legebiltzarkideen (edo beren Komisioen kontra, Autonomia Erkidegoko legebiltzarkideak ordezkatzan dituztenean) kontrako kalumniak edo irainak barne hartzen dira; baita Gobernuaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Auzitegi Gorenaren, Autonomia Erkidegoen Auzitegi Nagusien edo Autonomia Erkidegoen Gobernuaren Kontseiluaren kontra ere eta armadaren eta segurtasun-indarren kontra ere bai.

Azpimarratu beharra dago “exceptio veritatis” delakoa onartzen dela. Horrek esan nahi du akusatuak egoztearen kontra froga aurkez dezakeela, baina kasu hauetan bakarrik: Gobernu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusi, Konstituzio Auzitegi, Auzitegi Gorena, Autonomia Erkidegoen Auzitegi Nagusi edo Autonomia Erkidegoen Gobernuaren Kontseiluaren kontra kalumniak edo irain larriak egozten direnean (ZKren 504, 207 eta 210. art.); eta armadaren edo segurtasun-indarren kontrako irainak egozten direnean (ZKren 505 eta 210. art.).

Partikularrak direnean, bereiztu behar da nola sortu diren ustezko kalumnia- edo irain-egitateak. Aipatutako egitateak idatziz egin badira, kontuan hartu behar da beren

publizitatea. Egitateak edozein hedabideren (irudizkoak nahiz hitzezkoak) bitartez sortu badira, ZKren 816.-823. artikuluen ezaugarriak aplikatuko dira. Publizitaterik egon ezean, honako arau hauek beteko dira: PKLren 804. artikulutik 807. artikulura bitartean agertzen direnak. Artikulu horiek ezartzen dute kereilarekin batera ustezko kalumnia edo iraina duen dokumentua aurkeztu behar dela (PKLren 80. art.). Atariko prozedura amaituko da kereilatuak auzipetutako egitateak onartzen dituenetan eta kereila aurkeztu duenari jarduerak emango zaizkio akusazioa egiteko (PKLren 807. art.).

Baina, ustezko kalumniak edo irainak ahoz egin badira eta publizitaterik gabe, PKLren 808. artikulutik 815. artikulura bitartekoak hartu behar dira kontuan. Kasu horretan, instrukzio-epaileak kereila aurkeztu duenari, kereilatuari eta lekukoei (erreferentzienak ez badira) dei egingo die ahozko epaiketara jotzeko, kereila aurkeztu eta hurrengo 3 egunen barruan (epea 8 egunetara arte luzatuko da legezko ziorik badago). Epaiketa egin ondoren (kereilatua agertu edo ez kontuan hartu gabe), instrukzio-epaileak erabakiko du kereila jarri duenari espedientea bidaliko dion akusazioa burutzeko eta atariko prozedura amaituko du. Egindakoaz akta egingo da eta parte-hartzaileek sinatuko dute.

Kereila edo iraina prozesuak iraun duen bitartean gertatzen bada, beharrezkoa izango da auzia ezagutzen duen epailearen edo auzitegiaren lizentzia (PKLren 805. art.).

Prozesu mota honek ezaugarri hauek ditu:

1. Delituzko egoera hauek auzipetzea ez da prozesu berezi bat, instrukzio-aldiari eragiten dioten ezaugarriak baizik. Instrukzio-aldia bukatu ostean, dagokion prozesuak jarraituko du. Baina aplikatu beharreko prozeduraz zalantza asko zegoen. Doktrinak eztabaidatzen zuen aplikatu beharreko prozedura prozesu laburtua edo arrunta zen. Azkenean, Auzitegi Gorenak (1994ko urtarrilaren 24ko sententzia) gatazka konpondu zuen eta prozesu laburtua zela egokiena ezarri zuen.
2. Partikularraren kontrako kalumniak zein irainak, publizitaterik gabe eginak, delitu pribatuak dira. Ezaugarri horrek baldintza batzuk dakartza; honako hauek:

A) Delitu horien prozedura alderdiak eskatzen duenean bakarrik has daiteke eta kereilaren bitartez egin behar da; ez da agertzen Ministerio Fiskala. Baina, iraindua funtzionarioa, agintaria edo polizia bada, eta kalumniak edo irainak beren lanari buruz egin badira, ofizioz jardungo da (ZKren 215.1 art., azaroaren 25eko 15/2003 LOk aldatua).

B) ZKren 215. artikulua legitimazioa zehazten du.

C) Adiskidetze-ahalegina eskatzen da eta egiaztatzen ez bada, prozesuak ez du jarraituko (prozesuak, berriz, jarraituko du adiskidetzea izaten denean); ikus PKLren 804 eta 278. art., eta 460. eta hurrengoak, prozesua burutzeari buruz).

D) Irainduaren barkamenak (epaia eman aurretik eginez gero) akzio kriminala iraukitzen du eta prozesua amaitu dela adierazi nahi du (ZKren 215.3 eta 130.5 art., azaroaren 25eko 15/2003 LOk egindako aldaketaren arabera, iraindua adingabe edo ezindua bada).

3. Frogabideak mugatzen dira eta, kasu batzuetan, frogaren objektua diren egitateak murrizten dira. Lekukoen frogan zuzeneko lekukoak, bakarrik, hartzen dira kontuan, ez erreferentziazkoak. Irainengatikoz auzian, erruztatuak ezin ditu bere alegazioak frogatu, nahiz eta kalumniengatikoz auzian onartu (ZKren 207. art.). “Exceptio veritatis” delakoa da, hau da, egiaztatu nahi da auzia sortu duten egitateak benetakoak direla eta, ondorioz, absoluzioa lortu (ikus Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 11ko 52/1985 sententzia). Erruztatuak “exceptio veritatis” alegatzen badu, atariko prozedura ez da bukatuko kereilatzaileak egoztearen egitateak argitu arte, inputatuak bere frogak presta ditzen. Epaileak emango duen epean ez badu egiten, instrukzioa bukatuko da eta ez egitea kontuan hartuko da, akusatuari kalterik ez egiteko.

4. Kondena-epaia ematen bada, egitate zigorgarritik ondorioztatzen diren kalte-ordainak, materialak zein moralak, zehaztuko ditu (kontuan hartzen da laidoa sortzen dela burutzean eta hedatzean). Gainera, irainduak, hala eskatzekotan, egin zen hedabide berean plazaratuko da kondena-epaia.

### **2.2.3. Edozein hedabidek egindako delituengatiko prozesuetako ezaugarriak**

Hainbat delitu jasoak geratzen dira, hau da, hedabideen bitartez egiten dira eta horrexegatik jakiten da egin direla. Ezaugarri horrek berezitasun prozesalak dakartza. Erreza da delitua egin dela jakitea baina zaila da, batzuetan, egilea nor den ezagutzea; beraz, egitate zigorgarriaren hedapena zabala da. Esan beharra dago berezitasun prozesalek atariko prozedurari eragiten diotela eta ez auzipetzeari, eta dagokion prozedurari jarraituko zaiola.

Berezitasunak PKLren 816. artikulutik 823. artikulura bitartekoetan arautzen dira. Edozein hedabideren (idatzizko, ahozko edo ikusizko) bidez egindako delituak bi ondorio dakartza:

1. Ale grafikoak eta delitua egiteko bekarrezkoak diren osagaiak bahitzen dira delituaren baliabide edo efektuak direlako (PKLren 816 eta 822. art.). Edo debekatzen da ustezko delitua egin den hedabidea zabaltzea eta proiektatzea (PKLren 823. bis art.). Erabakiaren kontra helegitea aurkez daiteke eta errekurtsua aurkeztu eta hurrengo bost egunetan ebatziko da (PKLren 823. bis art.).
2. Benetako egilea nor den bilatuko da; hori lortzeko hainbat eginbide erabiliko dira: delitua egunkariaren bidez egin bada, egunkariaren arduradunek (zuzendariak, erredaktoreak) deklaratu beharko dute eta egile materialek ere bai (PKLren 817 eta 818. art.).

Egilea nor den zehazteko honako hau hartu behar da kontuan:

- a) Erruztatuaren aitortza ez da nahikoa egitateen egile bakartzat hartzeko eta auziak beste pertsona batzuen kontra jarraituko du, bere benetako egilea ez dela uste bada (PKLren 820.1 art.).
- b) Prozesuak idazkiaren benetako egileen edo eragileen kontra behar du. Baina, ezin dituztenean haiek (benetako egileak edo eragileak) auzipetu (Espainiatik kanpo bizi direlako edo auzi-ihesaren deklarazioa badago), prozesua argitalpen-

zuzendariaren, argitaratzailearen edo inprimatzaileen kontra abiatuko da, aipatutako ordenari jarraituz (ZKren 300. art.). Haien kontra kondena-epaia lortzeko beharrezkoa da bere jarduera doluz eginda izatea edo errudunak izatea; bestela, errugabetasun-presuntziorako eskubidea urratuko da.

Prozesua haietako norbaiten kontra hasten bada eta geroago benetan erantzun behar duena agertzen bada, hasitako auzia artxibatuko da eta beste bat abiatuko da haren kontra, epai irmoa ematen denean izan ezik (PKLren 820.II eta 821. art.).

Atariko prozedura bukatuko da egile edo egile ordezkatzailea zehazten denean eta jarduerekin batera, egitate zigorgarria egin den idazki edo inprimakia lotuko da (PKLren 823. art.).

## **2.3. Prozesu bereziak**

### **2.3.1. Prozesu militarra**

Espainiako Konstituzioaren 117.5 artikulua jurisdikzio-batasunaren printzipioa ezartzen du. Printzipioa auzitegien antolakuntzaren eta funtzionamenduaren oinarria da. Baina, kasu horretan, jurisdikzio militarren ezaugarriei buruz ari da. Jurisdikzio militarrek eskumena duen bakarra da delitu eta falta militarrek ezagutzeko eta setio-egoeretan ere parte hartzeko (abenduaren 13ko 13/1985 LOren bere 99. artikulua apirilaren 13ko 2/1989 LOren xedapen gehigarriak aldatua).

1987ko uztailaren 15eko LOk (abenduaren 15eko [Planta](#) eta lurralde-antolakuntzaren 44/1998 Legeak osatua,) zehazten ditu jurisdikzio horren organoak (kontuan hartu behar da 1988ko apirilaren 5eko Legeak, Defentsaren Kidego Juridiko Militarra sortzen duela).

Justizia Militarren organoak honako hauek dira: Epaitegi Togadun Militarra, Lurralde Auzitegi Militarrek, Auzitegi Militar Zentrala eta Auzitegi Goreneko Militar Aretoa.



Delitu eta hutsegite militarren auzipetzeak arau bereziak ditu, apirileko 13ko 2/1989 LO on zehaztuak. 1. artikulutik 447. artikulura bitartekoek zigor-prozesu militarra arautzen dute eta gainerako artikuluek diziplinazko auzietako errekurtsua (448.-518. art.) eta izaera zibileko prozedura (hau da, Indar Armatueta kideen testamentu-epaiketa edo abintestato judizioa azaltzen da).

Prozesu militarra zigor-prozesu arruntaren antzekoa da. Prozesu militarren arautegian erregimen, jardueren unea eta forma jasotzen dira (Xedapen Orokorrak 1.-6. art.); lurralde-eskumena 9. artikulutik 11. artikulura bitartekoek zehazten dute eta 2/1989 LOk eskumen-arazoan erabakitzeko arauak ezartzen ditu (12.-24. art.). Baina, prozesuko izapideen benetako arauak 122. artikuluan agertzen da eta 323. artikuluraino luzatuko da, prozesu arrunta deritzona. Prozesu bereziak 384.-414. artikuluetan arautzen dira, aginte judicial militarren auzipetzeko prozesu bereziarekin batera (432.-447. art.); falta-epaiketarekin amaitzen da (415.-431. art.). LOk arautzen ditu errekurtsuak eta betearazpena 324.-383. artikuluetan. 1989ko Lege Organikoak xedapen batzuk jasotzen ditu, organo militarren barneko gobernuari, bere kideen inpartzialtasunari, jardueren uneari eta formari eta beste organo batzuekiko harremanei buruzkoak (25.-121. art.).

Zigor-prozesu militar honetan Ministerio Fiskal Militarrek atariko prozesuari hasiera eman diezaiolke, prozesu laburtuan gertatzen den modu berean (122 eta 123. art.). Defentsa-eskubidea zigor-prozesu arruntan bezalaxe arautzen da (125. art.), nahiz eta hainbat salbuespen erabiltzen diren jakiteko nor izan daitekeen defendatzailea (126. art.). Kaltetunari akzioak eskaintzen zaizkio zigor-alderdi edo alderdi zibil bihurtzeko (127. artikulua, 4/1987 LOaren 168 artikuluekin batera, salbuespenak jasotzen ditu gerra- kasuan).

Jarduera prozesala has daiteke alderdiak eskatzen duelako zein ofizioz. Lehenengo kasuetan, alderdiak eskatuta, beharrezkoa da salaketa jartzea (135. artikulua zehazten dituen salbuespenekin eta, egoera batzuetan, prozeduraren betekizuna da, hau da, bakarrik alderdiak eskatzen duenean delituaren kontra joaten da -130.6 art.-) eta kereila, hainbat kasu berezitan. Salaketa Fiskal Militarren aurrean aurkez daiteke eta prozesu laburtuan bezala aritzen da.

Prozesu militarra aginte militarrek eskatuta has daiteke (115. art.). Prozesua “partea” deritzonaren bidez hasten da eta epaile togadun militarrek atestaturik egongo du (4/1987 LOren 115 eta 116. art., eta Prozedura Militarren Legearen 144 eta 145. art.).

“Notitia criminis” deritzonak prozesua irekitzen du eta epaile togadun militarrek, zalantza izatekotan, aurretiazko eginbideei hasiera ematen die prozesua zehazteko, (141.-143. art.). Behin bide prozesala zehaztuta, prozedura arrunta edo berezia izan daiteke:

A) Prozesu arrunta aukeratzen da egitate zigorgarriak auzipetzeko. Bere egitura sumarioaren antzekoa da (gogoratu behar da PKLk sumarioa arautzen duela), helburu eta eduki berberarekin (146.-243. eta 253.-273. art.). Errekurtsoei dagokienez, esan beharra dago gora jotzea zuzena dela, erreforma-helegiterik ez dago eta; sumario fase honetan kexa-errekurtsoa jar daiteke. Erdiko fasea 274.-292. artikuluek jasotzen dute eta epaiketa plenarioa edo ahozko judizioa, 293.-323. artikuluek.

Ahozko epaiketa ikasi zenean, akusatuaren adostasuna azaldu zen (ahozko epaiketan bakarrik aplikatzen zen eta ez zen posible prozesu arruntan). Akusatuaren adostasuna erabiltzen da prozesu arrunt militarren eskatutako zigorra hiru urtetik gorakoa ez denean eta ez dakar berekin lanpostua galtzea (305. art.). Beste berezitasun bat da ikus-entzunezko frogak erabil daitezkeela (311. art.) eta posible da, alderdiak hala eskatua eta beharrezkoa izanez gero, epaiketa etetea behin betiko kalifikazioak egin baino lehen, egindako frogak oso zailak direlako edo bista luzeegia delako (313. art.).

B) Bigarren bidea berezia da; delitu jakin batzuk ezagutzeko prozesu bat da (384.-396. art.). Prozesu hori prozesu laburtuaren antzekoa da, baina ez da zehazten zigorraren arabera, jokaeraren arabera baizik; beraz, desertzio-delituei aplikatzen zaie (Zigor Militarreko Kodearen 120. art.). Prozesu berezia prozesu arrunta baino bizkorragoa da eta hainbat jardura judicial kentzen dira (auzipetze-autoa, adibidez). Aipatutakoak ez du eragozten instrukzio-epaileak kautelazko neurriak ezartzea (388. art.). Prozesu horretan, sumarioaren orde

prestatzeko eginbideak deritzonak egin ondoren, ahozko epaiketa hasiko da (prozesu arruntean gertatzen den moduan -397.-406. art.-).

C) Prozesu “sumarisimo” delakoa prozesu berezia ere bada (397.-406. art.), eta arautzen dena epaile togadun militarrei, auditore-presidenteei eta epaitegi militarreko batzordekideei zigor-erantzuna eskatzeko aukera.

Prozesu sumarismoaren berezitasuna bere aplikazio-eremua da: gerrako denboraldirako xedatzen da eta delitu gorria gertatzen denean edo Indar Armaturen moral, diziplina edo segurtasunari eragiten dietenean ere aplikatzen da. Prozesu horren ezaugarriak arintasuna eta prozesuaren bermeak dira: prozesatuak behin-behineko espetxean egon behar du beti; epaileak ezespren edo errekusatzeak egiten diren une bertan erabaki behar ditu; instrukzio-epaileak emandako erabakien kontra ezin dira errekurtsoak aurkeztu.

Aginte judicial militarrek auzipetzeko prozedurari dagokionez, ezaugarrienetako bat da “aurrejudizioa” ez dela beharrezkoa prozedura hasteko (betekizuna 1995eko maiatzaren 22ko LOk kentzen zuen).

Delituengatik auzietan ematen diren sententzien kontra edo behin betiko largespen-autoen kontra kasazio-errekurtsoa jar daiteke Auzitegi Goreneko Militar arloko aretoaren aurrean, prozedura kontuan hartu gabe; baina, ezin da errekurtsorik jarri Areto horrek egindako erabakien kontra (324. art.).

D) Azkenik, hutsegiteak edo faltak auzipetzeko bide berezi bat zehazten da (415.-424. art.). Prozesu berezia da eta PKLk arautzen duen faltengatik prozesuaren antzekoa da. Helegitea aurkezteko epea 48 ordukoa da edo bestela jar daiteke sententzia jakinarazten denean. Batetik, 407.-414. artikuluek arauak zehazten dituzte akusatua agertzen ez denean zer egin jakiteko eta auzi-iheslari deklaratzeko. Bestetik, 324.-327. artikuluek kasazio-errekurtsoa arautzen dute.

### 2.3.2. Adingabeen prozesua

Betidanik, Ordenamendu Juridikoak kontuan hartu du adingabeko delitugilearen auzipetzea eta zehapena ezartzeak erregimen berezia izan behar duela. Gaur egun, arautze berezia urtarrilaren 12ko 5/2000 LO n aurkitzen da. Lege organiko hori Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 14ko 30/1991 sententziatik dator, Adingabeen Babeserako Auzitegien Legea aldatu zuena (1984ko ekainaren 11). 5/2000 Lege Organikoa indarrean egon aurretik, abenduaren 22ko 7/2000 LOk aldatu zuen (7 eta 9. artikuluei eragiten die eta laugarren eta bosgarren xedapen gehigarriak sortu ditu), eta abenduaren 22ko 9/2000 LOk 18 urtetik gorako eta 21 urtetik beherako gazteen xedapenak eten zituen.

5/2000 Lege Organikoa adingabeen arautegia osatzen du, 1996ko urtarrilaren 15eko Legearekin batera (adingabearen babes zibilerako). Lege berriaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- a) Nahiz eta legea kriminala izan eta zigorrak ezarri, hezten eta gizarteratzen duen lege bat da.
  
- b) Ofiziozko printzipioa bultzatzen du, adingabearen interesa interes orokorra bezalakoa baita eta bere babesa nagusitzen du. Beraz, prozesu horretan, Ministerio Fiskalak garrantzi handia du mota honetako interesak defendatzeko orduan (auziaren instrukzioa zein akusazioa egiten du). Baina, akusazioa ez du berak bakarrik egikaritzen, kaltetunak ere akusazio partikularra egikaritu dezake (horrela ezartzen du 25eko azaroaren 15/2003 LOren bigarren azken xedapenak, ZK aldatzen duena), baita akzio zibila ere, erantzukizun zibila eskatzeko (PKLkoaren antzekoa da). Baina, ez da herri-akusazioa onartzen (25. artikuluari eta Zioen Azalpenari jarraituz). Jardueren erregimen prozesala PKLkoaren antzekoa da, eta bere berme guztiak onartzen ditu. Gainera, adierazpen onuragarriak onartzen dira adingabea babesteko (adibidez, “prozesua” hitza ez da erabiltzen), eta aplikatzen eta betearazten diren zehatze-neurriak arinagoak dira.

Adingabeen Zigor Erantzukizunaren Legeak bi motatako arau ditu: arau orokorrak eta arau bereziak; egoera zehatzei aplikatzeko dira.

Lehenik, arau orokorrak azalduko dira:

a) Arau orokorrak 14 urtetik gorakoek eta 18 urtetik beherakoek egin dituzten delitu eta faltak auzipetzeko erabiltzen dira eta, salbuespen moduan, 18 urtetik gorakoei eta 21 urtetik beherakoei aplikatzen zaizkie, instrukzio-epaileak horrela zehazten duenean (defentsari, Ministerio Fiskalari eta kide teknikoari entzun ondoren); ZKren 69. art. eta 5/2000 Lege Organikoaren 4. art. Baina, arau horiek aplikatzeko beharrezkoak dira betekizun batzuk: delituek eta faltek ez dute larriak izan behar, eta ez dute min larririk eragiteko asmorik izan behar. Bestalde, ez du aurrekaririk egon behar eta ezaugarri pertsonalak kontuan hartzen dira tratamendua aplikatzeko (teknikariei entzun ondoren).

Hamalau urtetik beherako adingabeak instituzioen esku egongo dira babesa izan dezaten. Instituzio horiek Autonomia Erkidegoen menpe egoten dira eta auziaren jarduerak igorriko zaizkie haiei, fiskalak hala aginduta. Adingabeei 1996ko urtarrilaren 15eko Adingabea Babesteko Legearen neurriak aplikatuko zaizkie.

b) Auzia ezagutzeko eskumena Adingabeko Auzitegiak du (egitateak egin diren tokikoak, 2. art.). Egitate zigorgarria leku bat baino gehiagotan egin bada, adingabeko helbidearenari dagokio eta, haren ordezt, PKLren 18. artikulua arauak aplikatuko dira (hau da, zigor handiagoarekin zigortutako egitate zigorgarriarena; instrukzioa egiten duen lehenengo epaitegiarena; edo, auziak denak batera hasi direnean edo hasieraren datarik ez denean agertzen, Auzitegi Nagusiak zehazten duena).

Adingabeko Auzitegien eskuduntza probintzia osoan zehar zabaltzen da eta egoitza hiriburuan bertan izango du, nahiz eta eskumen gehiago edo gutxiago izan ditzakeen. Azken kasu horretan, egoitza eremu judizialaren hiriburuan kokatuko da (dagokion Autonomia Erkidegoaren Legeak zehaztuta). (Ikus BJLOren 96 eta 97. art.).

c) Ministerio Fiskalaren lana nabaria da, prozeduraren hasiera bere esku baitago; prozedura ofizioz edo alderdiak eskatuta hasiko da, Ministerio Fiskalak horrela onartuz gero. Fiskalak berak instrukzioaren jarduera guztia garatuko du (6. art.), baina neurri kautelarrei edo oinarrizko eskubideei eragiten dieten eginbiderik hartu gabe (egoera horretan, epaileari eskatu behar zaio neurri kautelarrak ezar ditzan edo jardun dezan (17.5 art eta 23. art.)). Fiskalak, egitateak larriak ez direnean eta adingabeak ez duenean zigor-aurrekaririk, ez dio espedienteari hasiera emango eta erakundeen menpe utziko du adingabea (18. art., erantzukizun zibilaren atalari eragin gabe). Egitateak ez badira garrantzitsuak, fiskalak bertan behera utziko du atariko prozedura; egoera horretan beharrezkoa da biktimaren eta erasotzailearen artean adiskidetzea egotea edo erasotzaileak hitz ematea egindako kaltea konponduko duela edo Talde Teknikoak proposatutako heziketa-jarduera egingo duela (19. art.). Ministerio Fiskalak egozteko betebeharra du edo auzia artxibatzea eska dezake.

5/2000 Legeak aurreikusten zuen prozedimendu honetan akusazio-sistema nagusitzen zela eta kaltetunaren herri-akzioa eta akzio partikularraren egikaritzea debekatzen zuela. Hala ere, azaroaren 25eko 15/2003 LOren Bigarren Xedapen Gehigarriak baimentzen du egitate zigorgarriak ukitutako zuzeneko kaltetunak, bere oinordekoak edo ordezkioak akusatzaile partikular gisa aurkezteko aukera (5/2000 Legearen 25. artikulua berak akusatzaile partikularraren eskubideak zehazten ditu). Esan beharra dago Legeak froga-proposamenerako muga bat ezartzen duela: froga-proposamena egitatei buruz eta egindako ezaugarriei buruz ariko da, eta ez adingabearen egoera psikologikoz, hezitzaileaz, eta egora sozialaz (25. d art.).

Akusazio-printzipioari dagokionez, epaileak fiskala edo akusatzaile partikularraren eskaerei lotuta dago eta ezin du haiek eskatutakoak baino neurri larriagoak ezarri (8. art. eta azaroaren 25eko 15/2003 LOren Bigarren Xedapen Gehigarria); baina, epaileak egitateen kalifikazio desberdina edo eskatutako neurri desberdinak proposa ditzake.

Epaileak auziari buruzko eskuduntzarik ez daukala uste badu, jarduera prozesalak jurisdikzio-organo eskudunera bidaliko ditu, eta eskumena utziko du beste jurisdikzio-organo baten mesedetan (21. art.).

e) PKLk zehazten du adingabeek adindunen eskubide berberak dituztela. Beraz, espedientea hasi bezain laster, beren eskubideak esango zaizkie, eta letradua izendatzeko aukera ere emango zaie; gainera, adingabeek eginbideetan parte har dezakete eta frogak proposatu. Epailleak, erabaki garrantzitsuak hartu baino lehen, adingabeak entzungo ditu eta Adingabeko Epaitegiaren Talde Teknikoren laguntzaz baliatuko da (22. art.).

Talde horretako funtzioa ez da soilik adingabeari laguntza ematea, baizik eta fiskal eta epaileari txostenak ematea adingabearen egoera psikologikoaz, hezitzaileaz eta abar, eta adierazten du beharrezkoa den auzia jarraitzea ala ez (27. art.).

Adingabearen deklarazioak beti letradun defendatzailearen aurrean eta guraso-agintea, tutoretza edo zaintza dutenen aurrean egiten dira; eta horiek egon ezean espedientearena ez den instrukzio-fiskalaren aurrean (17.2 art.).

f) Erabaki judizialak epai-itxura izango du eta, horrela erabakitzen badu, 7. artikuluan jasotzen den hainbat neurri ezarriko ditu (9. art. kontuan hartuta). Erabaki judizialaren betearazpena Autonomia Erkidegoen erakunde publikoei dagokie (41. art.) eta Adingabekoen Epaillearen menpe geratuko dira (44. art.).

Martxoaren 1eko 232/2002 Errege Dekretuak Justizia Ministerioan erregistro bat sortzen du. Bertan, prozesu hauetan emandako epai irmoak jasotzen dira. Helburua da Adingabeko Epailleak eta Fiskalak pertsona zehatzei buruz hainbat aurrekari izatea eta bertan eskuratutako datuak estatistikak egiteko erabiltzea.

Adingabeen epailleak, ofizioz edo Fiskaltzak nahiz adingabearen letraduak hala eskatuta, epaian jasotako neurriaren betearazpena eten dezake (horiei, talde teknikoaren ordezkariari eta adingabeak babesteko erakunde publikoaren ordezkariari entzun ondoren), baldin eta ezarritako neurriak ez badu bi urtetik gorako iraupenik. Etendura denbora zehatz batez luzatuko da eta, asko jota, bi urtez. Etendura hori epaian bertan erabakiko da edo, irmoa denean, auto arrazoituan. Edozein kasutan, etendura horren baldintzak zehaztu beharko dira (40. art.).

Ezarritako neurriaren betearazpena eteteak baldintza hau bete behar du: zigortuak portaera ohoragarria (eteteak irauten duen bitartean) izan behar du eta beharrezkoa da gizarteratu nahi izatea (40.2 art.).

Etetea eskatzeko dauden legitimatuek ezarritako neurria ordezkatzeko eska dezakete edo, baldintzen arabera, bertan behera uzteko (biktimarekin adiskidetzegatik, esate baterako) (51. art.).

g) Errekurtsoei dagokienez, hiru errekurtso mota aurreikusten dira:

1. Erreforma-errekurtsoa, Adingabeen Epailen auto eta probidentzien kontra jar daiteke; errekurtsoa erabakitzen den autoaren kontra ere helegitea jar daiteke (41.2 art.).

2. Apelazio-errekurtsoa prozedura eteten duten epaien eta autoen kontra jar daiteke, baita betearazpena eteten duten autoen kontra ere (14. art.), eta neurri kautelarrak ezartzen dituzten autoen kontra (28 eta 29. art.). Entzutegi Probintziala izango da era horretako helegiteak erabakitzeko eskuduna (ikus abenduaren 9ko 9/2000 LOren 41. art.). Helegitea autoen kontra jarriz gero, PKLren prozedura laburtu gisa izapidetuko da (41.3 art.).

3. Kasazio-errekurtsoa, epaitegien doktrina bateratzeko erabiltzen da; Auzitegi Goreneko Bigarren Salaren aurrean jartzen da, Entzutegi Probintzialak edo Entzutegi Nazionalak apelazioetan emandako erabakien kontra.

h) Zigor-erantzukizunarekin batera erantzukizun zibila galdegin daiteke. Fiskaltzak egikarrituko du erantzukizun zibila eskatzeko akzioa, salbu eta kaltetunak akzio horri uko egiten dionean (kaltetunak berak, erantzukizun zibilaren pieza banandua ireki dela jakinarazten zaionetik hilabeteko epean), akzioa egikaritzen duenean edo hori bere buruarentzat erreserbatzen duenean, jurisdikzio zibilean egikaritzeko (61. art.), Kode Zibileko eta Prozedura Zibilaren Legeko manuek ezartzen dutenaren arabera. Erantzun zibilaren hedapena ZKren arau orokorrari jarraituz zehazten da: erantzun zibila egitateak egin dituenari eskatzen zaio, 18 urtetik gorakoa bada; adingabea izatekotan,



gurasoei, tutoreari eta zaintzaileei ere (hurrenez hurren) eskatuko zaie. Dena dela, epaileak erantzun zibila gutxitu ahalko du adingabearen portaeran gurasoek izan duten eraginaren arabera.

Arriskua bermatu bada, aseguratzailerei erantzukizun zuzena eskatuko zaie aseguratu duten mugara arte (63. art.).

i) Legeak ez badu espresuki aurreikusten, PKLren prozedura laburtuaren arauak aplikatuko dira (Lehenengo Azken Xedapenak adierazitakoaren arabera).

j) Azkenik, egiturari dagokionez, espedienteak bi fasetan banatzen dira: instrukzio-fasea, eta tarteko fasea edo ahozko epaiketa:

1. Instrukzio-fasea. Fiskalari dagokio. Adingabeek egindako egitateak ezagutzen direnean hasten da. Fiskalak jarduerak egiaztatu ondoren, prozedura artxibatu edo bere jarraipena erabakiko du.

Bigarren egoera horretan, adingabeen epaileari jakinaraziko zaio; hark espediente irekiko du, baita erantzuteko pieza banandua ere. Adingabeari jakinaraziko zaio espediente ireki dela, defentsa-eskubidea egikaritu dezan (22. art.) eta kalte eragindakoei ere jakinaraziko zaie dagozkien erantzun zibilak eska ditzaten (kasu horretan, prozeduran parte hartuko dute, akusazio partikular gisa). Adingabeen epaileak eskuduna ez dela esan dezake; orduan, dagokion organo jurisdikzionalari bidaliko dizkio jarduerak.

Instrukzioa hasi ondoren, fiskalak erabaki hauek har ditzake:

a) Espedienteari hasiera emateari uko egitea, egitateen izaera eta garrantzia kontuan hartuz eta, orduan, adingabea aginte zibilen menpe jarriko du. Erantzun zibilaren piezaren izapidetza jarraituko du, bere kasuan.

b) Instrukzioari hasiera ematea uko egitea, biktima eta erasotzailearen artean adiskidetzeari, kaltea konpontzeko adostasunik edo heziketa-ekintza betetzeko akordiorik dagoenean (egitateak arinak direlako). Adingabeak ez baditu bere adostasunak betetzen, auzia berriz irekiko da.

c) Instrukzioak jarraituko du.

Instrukzioa amaitu ondoren, fiskalak Adingabeen Epaileari igorriko dizkio jarduerak, erabaki hauetakoren bat adierazteko:

a) Akusazioa egingo du eta alegazio-idazkia aurkeztuko du (bere edukia PKLren antzekoa da).

b) Largespena eskatuko du, PKLn jasotako zioak adieraziz.

c) Adingabeen Babeserako Erakunde Zibilei helaraziko zaizkio jarduerak.

2. Tarteko-fasea. Fase hori Adingabeen Epailearen aurrean egiten da, fiskalak alegazio-idazkia egin ondoren. Idazkia defentsari helaraziko zaio, alegazioak egin ditzan eta eskatutako neurriekin ados jar daiteke, askatasuna gabetzeari buruzkoak ez badira. Adostasunik ez badago, fiskalari eta defentsari entzun ondoren, epaileak erabaki hauetako bat hartuko du:

a) Adingabeen babeserako erakunde zibiletara helaraztea jarduketak, edo eskuduntza duen organo jurisdikzionalera.

b) Defentsak proposatutako eginbideak gauzatzea, fiskalak instrukzioa ezeztu baitu.

c) Epaiketa egiteko eguna eta ordua finkatzea.

Ikustaldira agertzeko epaileak honako hauek deituko ditu: fiskala, kaltetuna (agertu bada), talde teknikoaren ordezkari bat eta adingabea, legezko ordezkariarekin (epaileak egoki irizten badio) batera.

Epaiketaren saioak jendaurrean izango dira, baina pribatua izango da adingabearen edo biktimaren interesa kontuan hartuz, eta inoiz ez da baimenduko hedabideak agertzea. Adingabea epaiketa-gela uzteko erabaki daiteke, ofizioz edo alderdiak hala eskatua, haren interesak babesteko.

Epaiketaren saioa amaituko da, adingabea eta bere defentsa fiskalak egindako adierazpenekin ados badaude (eta bere kasuan, akusazio partikularrekin). Orduan, adostasun-epaia emango da. Fiskalak eskatutakoarekin ez badator bat defentsa baina bai adingabea, epaileak ikustaldia jarraituko duela erabakiko du. Egitateei buruz adostasunik badago, baina ez eskatutako neurriekin, ikustaldiak jarraituko du puntu hori argi dadin.

Akordiorik ez badago, froga berriak proposa daitezke, oinarrizko eskubideak urratzea alega daiteke eta epaileak egitateen beste kalifikazio bat proposa dezake edo alderdiek eskatutakoen neurri desberdinak (baina eraginkorrak izateko alderdiek onartu beharko dituzte). Gero, froga egingo da, Talde Teknikoari, fiskalari, defentsari eta adingabeari berari entzungo zaie eta epaiketa epaiaren zain geldituko da.

Arau bereziei dagokienez esan beharra dago adingabeek egindako giza hilketa edo hilketa (ZKren 138 eta 139. art.), eraso sexuala (ZKren 179 eta 180. art.), terrorismoa (571.-580. art.) eta Zigor Kodean 15 urteko edo gehiagoko espetxe-zigorrekin zigortutako edozein delitu auzipetzeko erabiliko direla (7/2000 LO).

Kasu horietan, arau prozesalak eta penalak arrunt aplikatuko dira eta ez Legearen 4. artikulua; hau da, ez dira aplikatuko Adingabearen arauak, baizik eta Zigor Kodearenak.

Terrorismo-delituetan, Adingabeen Epaitegi Zentralak auzipetuko ditu; Auzitegi Nazionalean du bere egoitza. Prozedura arruntaren bidez auzipetzen dira delitu mota horiek eta ezaugarri bereziak daukate: auzi horiek ezin dira metatu adingabeen kontrako beste auzi batzuekin, adingabea berbera izan arren; auzi horretan neurrien betearazpena lehentasunezkoa da, beste Adingabeen Epaitegi batzuek ezarritakoaren aurrean; Entzutegi Nazionaleko Zigor Aretoak Adingabeen Epaitegiaren autoen eta epaien kontrako helegiteak ezagutuko ditu; kasazio-errekurtsoaren erregimena prozedura arruntak duena bezalakoa da; neurriak gogorragoak dira (adibidez, barnealdi-neurriak 8 urteko iraupena du -Laugarren Xedapen Gehigarriaren arabera, 9.5 art. kontuan hartuz).

### 2.3.3. Estradizio pasiboa

Estradizioa botere betearazlearen ekintza bat da. Gobernu batek, bere lurraldean aterpetu den pertsona bat beste nazio bateko Gobernu bati, hark eskaturik, entregatzea da, egin duen delituagatik epaitua izan dadin edo, kondenatua izan baldin bada, ezarri zaion zigorra edo segurtasun-neurriak bete ditzan.

Ekintza politiko bat da, baina Estatu errekerituaren jurisdikzio-organoen parte hartzea beharrezkoa da. Egoera horiek arautzen dituen Legea martxoaren 21eko 4/1985 Estradizio Pasiboaren Legea da. Estradizio pasiboa aplikatzen da ustezko delitugile bat beste Estatu bateko lurraldean babesten denean. Baina beharrezkoa da Estatuak ustezko delitugilea onartzea, bestela, hau da, Estatuak ez badu onartzen eta bere kanporatzea agintzen du, ezin da estradizioa onartu.

EKren 13.3 artikulua ezartzen du estradizioa bakarrik onartzen dela ituna edo legea betetzen denean, elkarrekotasun printzipioaren arabera.

Gai horren araberrako itunak ugariak dira; itun bat nabarmentzekotan azpimarra daiteke Estradizioaren Europako Hitzarmena (Parisen egindakoa, 1957ko abenduaren 13an). Hitzarmen hori 1982ko apirilaren 21ean berretsi zen eta Protokolo Erantsiak Estrasburgon egin ziren, 1975eko urriaren 15ean eta 1978ko martxoaren 17an, hurrenez hurren (1985eko otsailaren 18an berretsi ziren). Hitzarmen garrantzitsua da, Estatu askok sinatu baitzuten eta estradizioari buruzko Espainiako legeria (1958ko apirilaren 6koa) aldatu baitzen Europako arautegira moldatzeko.

Garrantzia ere badu Terrorismoa Ezabatzeke Europako Hitzarmenak, 1977ko urtarrilaren 27koa (1980ko maiatzaren 9an berretsi zena).

Jarraian, estradizio eskatzeko prozesuaren izapideak azalduko dira. Legearen edukia kontuan hartuz egingo da azterketa:

- a) Lehenik eta behin, esan beharra dago estradizioa soilik egingo dela elkarrekotasun printzipioa kontuan hartuz. Beraz, ez dira onartuko zio politikoengatik egindako estradizio-eskaerak. Dena dela, kontuan hartu behar da terrorismo-delituak ez direla delitu politikoak (ikus Legearen 1. art. eta EKren

13.3 art.). Estradizioa ez zaie onartuko ez espainiarrei ez atzerritarrei, Espainiako Auzitegiek delitu horiek ezagutzekotan eta ordenamendu juridiko nazionalean hala ezartzen bada. (BJLOren 23. art.).

b) Estradizio-eskaera bi eratan egin daiteke: 1) Bide diplomatikoaren bitartez: orduan, Kanpo Arazoetarako Ministerioak Justizia Ministeriora bidaliko du eskaera (9.1 art.). 2) Idatziz; estradizioa eskatzen duen estatuko Justizia Ministroak galdegingo dio Espainiako Estatuari (7. art.). Kasu bietan beharrezkoa den dokumentazioa eman behar da egitateak ezagutzeko. Jatorrizko dokumentuak izango dira edo egiaztatutako kopia, eta itzulpen ofiziala beharrezkoa izango da (7.1 art.).

c) Estradizio-eskaera jaso ondoren, Justizia Ministerioak (8 eguneko epean) Gobernuan aurkeztuko du proposamena, prozedura ireki ala ez ebazteko; Gobernuak 15 eguneko epean erabakiko du. Gobernuak, epe horretan ez badu egiten, Ministerioak berak egingo du, haren ordeztuz, hurrengo hiru egunetan. Ez bada eskaera onartzen, eskatu duen estatuari jakinaraziko zaio eta errekeritua espetxean badago, aske utziko dute (9. art.). Ebazpena baieslea izanez gero, prozedurak jarraituko du eta hiru fasetan garatuko da: onarpen-fasea, epailearen erabakiaren fasea eta behin betiko ebazpen-fasea, nahiz eta, hainbatetan, azken fase hori ez agertu.

Lehenengo fasea, onarpen-fasea, Instrukzioko Epaitegi Zentralean garatzen da. Hara, Epaitegira, Justiziako Ministerioak bidaliko du espedientea (11. art.). Fasearen edukia errekeritua nor den jakitea da, onartzen duen ala ez estradizioa, eta epaileak eskaera onartzen duen jakitea. Fase horretan instrukzio gehigarria egin daiteke egitateak hobeto ezagutzeko. Hori egiteko agertze bat egingo da; bertan fiskalari deituko dio eta errekerituak letraduarekin joan behar du eta, egoki denean, itzultzaile batekin. Agertzean errekerituari galdetuko diote estradizioa nahi duen eta epaileak, egileen bidez, ebazpena emango du; erabakiaren kontra erreforma-errekurtsoa jar daiteke eta ondoren, Justizia Ministeriora bidaliko da. Ez bada estradizioa onesten, epaileak askatuko dio errekerituari.

Batzuetan, ofizioz edo alderdiek hala eskatua, epaileak espedientean agertzen diren datuak osatzeko eginbideak egiteko aginduko du, 30 eguneko epearen barruan. Emandako epea amaitu ondoren, aurrekoan adierazitakoan moduan jarraituko du prozesuak (12. art.).

Bigarren fasea, erabakiaren fasea, Entzutegi Nazionalan garatzen da (Zigor Aretoaren aurrean, hain zuzen). Hasi egingo da Instrukzioko Epaitegi Zentralak estradizio-eskaera onartzen duenean (aurreko fasean).

Fasearen egiturak bi aldi ditu: instrukzio-aldia eta kontraesan-aldia. Entzutegi Nazionalak erabaki beharko du eskatutakoa emango duen bi alditan. Entzutegiak uste badu eskatutakoa ez dela bidezkoa, Gobernuari jakinaraziko dio; erabakia loteslea da eta prozedura bukatuko da (6. art.).

Behin estradizio eskaera onartu ondoren, epaitegiak Entzutegi Nazionalera bidaliko du espedientea eta hark fiskalari eta defentsari (egon ezean ofizioz izendatuko da) jakinaraziko die, eta beharrezko aurrekariak eskatu ahal izango dituzte.

Ondoren, epaiketa egiteko eguna finkatuko da eta estatu errekerituaren ordezkariari dei egingo dio (hala eskatzen bada eta epaitegiak onartzekotan, elkarrekikotasun-printzipioa kontuan hartuz). Epaietan frogak egingo dira estradizioaren ezaugarriak egiaztatzeko (estrادizioaren ezaugarriak legean eta aplikaturiko hitzarmenetan jasotzen dira); 14. art.

Hurrengo hiru egunetan epaitegiak estradizio-eskaerari buruz erabakiko du, autoaren bidez; epaileak esango du estradizioa egokia den eta errekerituaren objektuak (hartu dizkiotenak) eskatzen dituen estatuari eman ala ez (15. art.). Erabakiaren kontra kexa-errekurtsoa jar daiteke eta Entzutegi Nazionalaren Aretoaren Osoko Bilkurak emango du ebazpena (erabakia eman duten magistratuek eta errekurtsoa ebazten dutenenak desberdinak dira); 15. art.

Estradizio-eskaera onartu ezik, erabaki irmoaren testigantza bidaliko da Justizia Ministeriora Kanpo Arazoetarako Ministerioari jakinarazteko (halaber, berak

ordezkaritza diplomatikoari jakinaraziko dio). Epaitegiak errekeritua aske uzteko aginduko du (17. art.).

Estradizio-eskaera onartzen bada hurrengo fasera sartuko da:

Hirugarren fasea, behin betiko erabakiaren fasea da. Gobernuari dagokio eta bakarrik aplikatzen da Entzutegi Nazionalak estradizioa onartzen duenean. Baina Entzutegi Nazionalaren erabakiak ez du Gobernu lotesten. Beraz, Gobernuak uko egin ahalko du estradizio-eskaera burujabetasunaren kontra doanean edo ordena publikoa edo estatuaren garrantzizko interesen kontra badoa (6. art.). Gobernuak ematen duen ebazpenaren kontra ez dago errekurtsorik. Beraz, fase horretan, Entzutegi Nazionalak Justizia Ministerioari jakinaraziko dio bere erabakia, hark Gobernuari jakinaraz diezaion. Halaber, estradizioa onartuz gero, Gobernuaren erabakiak eskatu duen estatuari jakinaraziko zaizkio, Kanpo Arazoetarako Ministerioren bitartez. Orduan, estraditutua emango du, 19. artikulua agintzen duen bezala. Baina, estradizio-eskaera ez bada onartzen, Espainiatik bota egingo dute errekeritua (18.3 art.).

d) Estradizioa eskatzen duen estatuak errekerituaren atxiloketa eta behin-behineko espetxea eska dezake. Neurri kautelarrak dira eta kondena-epai irmoa edo atxilotzeko agindu irmoa dagoenean eskatzen dira. Dena dela, eskaera egiteko beharrezkoa da ondoren estradizioa-eskaera aurkeztea. Estradizio-eskaera egin ezean, berrogei eguneko epean ezarritako neurri kautelarrak bertan behera geratuko dira (10.I art.).

Justizia Ministerioak ere neurri kautelarrak ezar ditzake, nahiz eta ez eskatu, uste badu beharrezkoak direla estradizio-eskaeraren ezaugarrien arabera (9.2 art.). Baina, epaileak prozedura jarraitzeko Gobernuaren erabakia jaso ezean berrogei eguneko epean, bertan behera utziko ditu neurri kautelarrak (10.II art.).

Azkenik, prozedura jarraitzea erabakitzen denean, atxiloketa egingo da beti eta Instrukzioko Epaitegi Zentralak errekerituaren egoerari pertsonalari buruz erabakiko du, prozedura izapidetzen duen bitartean (11. art.).

e) Bukatzeko, 20. artikuluan jasotzen den estradizioa kontuan hartu behar da eta posible da onartutako estradizioa hedatzea, baldin eta 21. artikulua baldintzak betetzen badira. Edozein modutan, estradizio eskaera horiek ez dute eraginik ikusirik prozeduraren arauetan.

#### **2.3.4. Atxilotzeko eta emateko aginduen betearazpena Europan**

Izena izan arren (“Europako atxilotzeko agindua”) Estradiziorako Europako prozesu bat da. Europar Batasuneko estatuen arteko justizia-lankidetzaz ari gara. Atal honetan, Espainiako Estatuan izaera hori duen eskaera betetzeko prozedura azalduko da:

##### **A) Eskuduntza**

Instrukzioko Epaitegi Zentralei eta Entzutegi Nazionaleko Zigor-arloko Salari dagokie eskuduntza eta Justizia Ministerioa Aginte Zentrala izango da.

Instrukzioko Epaitegi Zentralek atxilotzeko eta emateko aginduak jasotzen dituzte eta beraiek erabakiko dituzte baldin eta pertsonak estatuari ematea baimentzen badu eta fiskalak ez badu ukatze-ziorik hautematen. Beste kasu batean, aipaturiko ezaugarriak ez badira betetzen, Entzutegi Nazionaleko Zigor-arloko Salak ezagutuko du uzia, behin Instrukzioko Epaitegi Zentralak jarduerak bidali ondoren.

Justizia Ministerioak, Aginte Zentralaren antzera, parte hartuko du Europako Atxilotze agindu batekin batera hirugarren estatu batek estradizio-eskaera aurkezten badu, pertsona beraren kontra. Orduan, Justizia Ministerioak lehentasuna ezarriko du (martxoaren 14ko 3/2003 Legearen 2, 10, 18 eta 23. art. eta BJLOren 65.4 eta 88. art.).

Ez da beharrezkoa izango aginte judizialaren aurrean prozedura jarraitzea Espainiako Estatuari pertsona bat eman diotenean, Europako agindua betez, beste Estatu batek eskatu arren (Espainiari entregatu baino lehenagoko arau-hausteengatik); eta, aldi berean, 3/2003 Legearen 1 eta 2. artikuluetan baldintza



batzuk agertuz gero. Adibidez, kaltetunak Espainia utz dezakeen arren, ez du egin aske utzi ondorengo 45 egunen barruan.

## B) Prozedura

Behin atxilotzeko agindua jaso ondoren, Instrukzio Epaitegi Zentralak espainierara itzulita dagoela egiaztatuko du. Horrela ez bada, bertan behera utziko du prozedura eta bidali duen aginte judizialari jakinaraziko zaio akatsa zuzen dezan. Edozein kasutan, Justizia Ministerioari jakinaraziko dio atxilotzeko agindua jaso duela.

Atxilotzeko agindua zuzena bada edo bere akatsak zuzendu ondoren, Epaitegi Zentralak atxilotzeko agindua emango du kaltetunaren edo kaltetunen kontra, PKLren arabera, aurretik bete behar den betekizunen bat agertu ez bada behintzat edo zioen bat atxilotzeko agindua ukatzekotan.

Hala ere, atxilotzeko agindua ematen da beti Europako aginduan zehazturiko egitateak betiko espetxe-zigorrekin zehatuak daudenean. Kasu horretan, betearaziko da igortze-estatuak kondena berresteko edo barkaberatasun arauak dituenen (3/2003 Legearen 11.1 art.). Betearazpena baldintzapean jarriko da egitateak ez daudenean 9. artikulua zehaztutako zerrendaren barruan, baina igortze-estatuak zigortzen ditu 12 hilabete baino gehiagoko espetxe-zigorrekin edo zigorra 4 hilabeteko espetxe-zigorrekin dago zigortua. Egoera horietan betearazpena baldintzatzen da egitateak Espainian ere zigorgarriak izatera (9.2 art.).

Hamabigarren artikulua Europako aginduaren betearazpena ukatzeko zioak jasotzen ditu. Beraz, agindua ukatzen da kaltetuna, edozein estatutan, egitate berberengatik zigortu dutenean edo, Espainiako zuzenbidearen arabera, arduragabea bada bere adina kontuan hartuz. Europako agindua ere ukatu egingo da egitate berberengatik, Espainian, artxibatze agindu bada edo Espainian egitate horiengatik zigor-prozesu bat jarraitzen ari badira (12.2 art.).

Behin atxilotzeko agindua eman eta lortu ondoren, atxilotua Instrukzioko Epaitegi Zentralaren menpe jarriko da, 72 orduz, gehienez. Atxilotze hori

errekeritu egin duen aginte judizialari jakinaraziko zaio eta atxilotuari Europako agindua dagoela jakinaraziko dio, aginduaren edukia, berak errekeritzen duen estatuari entregatzea baimentzen duen eta, bere egoeragatik, dituen eskubideak (3/2003 Legearen 3. art.).

Une horretatik aurrera, atxilotuari entzungo diote 72 orduz, gehienez, bere abokatuaren eta fiskalaren aurrean eta, beharrezkoa bada, itzultzaile bat egongo da. Deklarazioa PKLri jarraituz egingo da.

Atxilotuari egingo zaion lehenengo galdera da errekeritu duen estatuari ematea baimentzen duen. Baimentzekotan, autoa emango da 10 eguneko epean (autoaren kontra ezin da helegiterik aurkeztu) eta estatuari emango zaiola ebatsiko da. Atxilotuak ematea onartu ezean, defentsari eta fiskalari entzungo zaie emateko ukatze-zioei buruz eta froga proposatuko dute. Jardun horiek bukatuta, Entzutegi Nazionaleko Zigor-arloko aretora bidaliko dira, hark 60 egunean ebatz dezan (ebazteko epea luza daiteke 30 egunez, bidezko ziorik badago); 3/2003 legearen 14, 18 eta 19. art.).

Gogoratu behar da emateko baimenak edo adostasunak ondorioak sortuko dituela baimena aske eman denean eta aldaezina dela dakienean. Ematearen ukatzeko zioak atxilotzeko aginduaren betearazpenaren berberak dira (3/2003 Legearen 12. artikuluan jasotakoak).

Ematearen erabakia errekeritu duen aginte judizialari jakinaraziko zaio eta Espainiako poliziak burutuko du hurrengo hamar egunetan. Epe horretan ezin bada ematea egin, beste 10 eguneko epe bat finkatuko da. Emateko agindua bertan behera gera daiteke gizatasun arrazoi larriengatik, nahiz eta burutu behar den aipaturiko arrazoiak desagertzen direnean (hurrengo hamar egunetan). Eta errekeritu duen estatuak ez badu errekeritua jasotzen, askatu egingo du; baina egoera hori ezin da erabili egitate berberetan oinarritutako Europako ondorengo agindu bat ez betearazteko (3/2003 Legearen 20. art.).

Errekeritua ematean, delituaren objektuak edo efektuak kendu eta Espainiara ailegatzean itzultzen zaizkio. Baina, efektuak bahituraren menpe gelditzen

direnean, ez zaizkio objektuak edo efektuak emango edo aldi baterako emango zaizkio, errekeritu duen estatuan prozesua jarraitzeko (3/2003 Legearen 22. art.).

C) Hainbat atxilotzeko agindu edo estradizio-eskaera elkarrekin batera agertzen badira:

a) Europako aginduak batera agertzen dira. Egoera hori gertatzen da pertsona berberarekin hainbat estatuk atxilotzeko aginduak ematen dituztenean eta lehentasuna zehaztu behar da haiek betetzeko.

Instrukzio Epaitegi Zentralari dagokio eskuduntza. Epaitegiak erabakiko du honako egoera hauek kontuan hartuz: egitateak non egin diren, egitateen larritasuna, atxilotzeko aginduen data eta egitateen edukia auzipetzea edo zigorra betetzea den (3/2003 Legearen 23.1 art.).

b) Europako Atxilotze aginduak eta estradizio-eskaerak elkarrekin agertzen direnean, Instrukzio Epaitegi Zentralak Justizia Ministeriora, Aginte Zentrale den aldetik, bidaliko ditu jarduerak. Hark erabakitzeko proposamena egingo du, Ministroen Kontseiluaren esku utziko duena, hark atxilotzeko aginduen lehentasuna ezar dezan (lehen azaldutako ezaugarriak kontuan hartuz); izapidea 1985eko matxoaren 21eko Estradizio Pasiboaren Legearen arabera egingo da (3/2003 Legearen 23. art.).

Atxilotzeko aginduari lehentasuna emanaz gero, Instrukzioko Epaitegi Zentralari aginduko zaio prozedura jarraitzeko. Estradizio-eskaerari, ordea, lehentasuna ematen bazaio, izapideak hasiko dira.

Ikasitako arauak aplikatuko dira errekeritu duen Estatuarekin hitzarmenik ez dagoenean. Baina, hitzarmena badago, arau bera aplikatu behar da prozedura errazten duenean (3/2003 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarria).

Europako aginduari buruzko adierazpenak osatu behar dira 3/2003 Legearen 24. artikulutik 29. artikulura bitartekoetan jasotzen diren arau zailekin, berezitasun-printzipioari buruzkoak direnak.

### **3. KAPITULUA: DELITU JAKIN BATZUK BIZKOR EPAITZEKO PROZEDURA**

**3.1. Arautzea. 3.2. Aplikazio eremua. 3.3. Ikertze-fasea. 3.3.1 Polizia-fasea. 3.3.1.1 Polizia-eginbideak. 3.3.1.2 Polizia-eginbideen helburua. 3.3.2. Epaille-fasea: premiazko eginbideak. 3.3.2.1 Guardia-epaitegiaren eskumena. 3.3.2.2 Polizia-atestatua. 3.3.2.3 Epaille-fasea burutzea. 3.3.2.4 Kautelazko neurriak. 3.4. Largespenaren edo ahozko epaiketaren gaineko erabakia. 3.5. Ahozko epaiketa prestatzea. 3.5.1 Akusazio partikularra eratu ez denean. 3.5.2 Akusazio partikularra eratu denean. 3.5.3. Defentsa-idazkiak. 3.5.4 Adostasuna eta bere baldintzak. 3.6. Ahozko epaiketa, aurka egitea eta betearazpena. 3.6.1 Ahozko epaiketaren berezitasunak. 3.6.2 Epaiari aurka egitea. 3.6.3. Epaiaren betearaztea**

#### **3.1. Arautzea**

Epaiketa bizkorrak Prozedura Kriminaleko Legearen 795. artikulutik 803. artikulura bitartekoetan arautzen dira (III. Titulua, “Delitu jakin batzuk bizkor epaitzeko prozedura” izenekoa). Horrez gain, epaiketa bizkorren arauetan aurreikusi ez den orori prozedura laburtuaren arauak aplikatuko zaizkio ordezko gisa (PKLren 795.4 art.).

Geroago aztertuko den legez, prozedura arruntekin alderatuta, prozedura hauetan Polizia Judizialak dauzkan eginkizunak gehitu egin dira, eta gauza bera gertatzen da guardia-epaitegien eginkizunei dagokienez.

#### **3.2. Aplikazio eremua**

PKLren 795. artikulua araberak, prozedura bizkorra erabili ahal izateko hiru baldintza bete behar dira. Lehenengoa zigorraren larritasunarekin lotuta dago; bigarrenak prozedura hasteko ezarri egiten dio; hirugarrenak, aldiz, gutxienez artikuluan ezarritako inguruabar bat egotea eskatzen du (edo ageri-ageriko delitua izatea, edo artikulua berak zerrendaturiko delituetatik bat izatea, edo instrukzioa erraza izatea).

a) Zigorraren larritasuna

Prozedura honen bitartez ebatz daitezkeen delituei bost urte arteko espetxe-zigorra egotzi behar zaie, edo beste zigorrak izanik, bakarka, batera edo hautabidez, horien iraupena askoz jota hamar urte artekoa izango da, zenbatekoa edozein izanda ere. Baldintza horri esker epaiketa bizkorren bidez delitu “txikiak” besterik ez dira ezagutuko.

#### b) Prozedura hasteko era

Zigor-prozesuak polizia-atestatuaren bidez hasi behar izan du; gainera, honako egoera hauetako batek gertatu behar izan du:

- Edo polizia judizialak norbait atxilotu eta guardia-epaitegiaren esku utzi behar izan du, edo
- Inor atxilotu gabe, norbaiti guardia-epaitegira bertaratzeko zitazioa egin behar izan dio poliziak.

Halaber, nahiz eta ustezko delitugilea atxilotu edo aurkitu ez den, hura bizkor identifikatu eta aurkituko dela pentsatzen denean, polizia judizialak ikertzen jarraituko du, eta ikerketa guztiak atestatu bakarrean agerraraziko ditu. Atestatu hori ustezko delitugilea atxilotu edo zitazioa egin bezain laster helaraziko zaio guardia-epaitegiari, hark instrukzioa egin dezan (PKLren 796.4 art.).

#### c) Hurrengo inguruabarretatik gutxienez bat egotea

*1. Ageri-ageriko delitua izatea:* PKLren 795.1.1 artikulua arabera, ageri-ageriko delitutzat jo behar dira:

1a. Delitugilea delitua egiten ari denean, edo hori egin eta berehala ustekabeen harrapatzen denean.

Delitugilea ustekabeen harrapatua izan dela hurrengo egoeratan ulertuko da:

- Delitua egiten ari den une berean atxilotzen denean.

- Delitua egin eta berehala atxilotzen denean, baldin eta pertsekuzioak irauten badu edo eteten ez bada delitugilea pertsegitzen dutenen eremutik kanpo ez dagoen bitartean.

1b. Delitua egin eta berehala tresna edo aztarnekin ustekabean harrapatua izan dena, delitu horretan parte hartu duela agerian uzten badute.

2. *PKLren 795.1.2 artikulua ezarritako delituetatik bat izatea:* a) Lesioak, derrigortzeak mehatxuak edo ohiko indarkeria fisikoa nahiz psikikoa, delitu horiek Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aipaturako pertsonen aurka egin badira; b) Ebasketa-delituak; d) Lapurreta-delituak; e) Ibilgailua erabiltzeko lapurreta-eta ebasketa-delituak; f) Trafiko-segurtasunaren kontrako delituak; g) Zigor Kodearen 263. artikulua aipaturiko kalte-delituak; h) Zigor Kodearen 368. artikulua bigarren tartekaduran ezarritako osasun publikoaren kontrako delituak; i) Zigor Kodearen 270, 273, 274 eta 275. artikuluetan aurreikusitako jabetza intelektualaren eta industria-jabetzaren gaineko ageri-ageriko delituak.

3. *Beste egitate zigorgarri batzuk, instrukzioa erraza izango dela pentsatzen denean.*

### **3.3. Ikertze fasea**

Fase honen barruan bi aldi desberdintzen dira: polizia- eta epaile-fasea.

#### **3.3.1. Polizia-fasea**

Gorago esan denez, ustezko delitugilea ezagutzea epaiketa bizkorra hasteko baldintzat hartzen da, poliziak atxilotu duelako edo guardia-epaitegiaren aurrean agertzeko zitazioa egin diolako. Horrek adierazten du polizia judizialak epaiketa bizkor guztietan parte hartuko duela, ustezkoa erantzulea atxilotuz edo zitazioa emanez. Gainera, polizia judizialak egindako atestatuak izugarritzko garrantzia edukiko du prozesuan, guardia-epailearen premiazko eginbideak hasteko abiapuntua izango baitira.

Hori dela-eta, Prozedura Kriminaleko Legeak beren-beregi arautu ditu polizia judizialaren jardunak, jarraian aztertuko den moduan.

### **3.3.1.1. Polizia-eginbideak**

Prozedura laburtuaren esparruan emandako jardunez gain, polizia judizialak PKLren 796. artikulua berariaz epaiketa arinerako aurreikusitako eginbideak burutu behar izango ditu:

1. Ofendituari laguntza ematean, osasun-arloko langileei laguntza eskatuko die, eta laguntza horren txostenaren kopia eskatu behar die polizia-atestatuari batu ahal izateko. Era berean, aztertu beharreko pertsona ezin denean guardia-epaitegira joan, mediku forentsea bertan egotea eskatuko du poliziak.

2. Guardia-epaitegira abokatuaren laguntzarekin agertzeko eskubidea jakinaraziko dio egitateen ustezko erantzuleari, bera atxilotu ez duten arren. Izan ere, horrek abokatuaren laguntzarekin agertzeko borondatea adierazi ezean, poliziak Abokatuaren Elkargoari ofiziozko bat izendatzea eskatuko dio.

3. Guardia-epaitegiaren aurrean agertzeko zitazioa egingo die honako pertsona hauei:

- Polizia-atestatuan salatu den pertsonari, atxilotu ez denean; ez agertzeak dituen ondorioak jakinaraziko zaizkio.
- Lekukoei ez-agertzearen ondorioei buruz ohartarazpena ere egingo zaie. Hala ere, ez da beharrezkoa atestatuan parte hartu duten segurtasun-indarren kideei zitazioa egitea, baldin eta beren adierazpena atestatuan bertan jasota badago.
- Edozein enpresa, industria edo jardueraren erabilera edo ustiapenetatik sortzen den diruzko erantzukizunen arriskua bereganaturiko aseguratzaileei (ZKren 117. art.), baldin eta beren nortasuna ezaguna bada.

4. Hartutako gaiak Toxikologiako Institutuari, Legezko Medikuntzaren Institutuari edo kasuan kasuko laborategiari helaraziko die, haien analisisa beharrezkotzat jotzen denean. Erakunde horiek berehala egingo dute analisisa, eta biderik bizkorrenetik bidaliko diote guardia-epaitegiari, eta betiere aurreko ataletan aipatutako zitazioaren aurretik. Horrez

gain, analisia epe horretan bidaltzea ezinezkoa bada, poliziak kontrol judizial egokiarekin bere kabuz egin ahal izango du.

5. Alkoholemia-kontrolak bide-segurtasunari buruzko legeriaren arabera egingo dira; baina odol-analisirik edo antzekorik egiten denean, osasun-arloko langileei egitea eskatuko zaie, eta emaitza ahalik eta bizkorren guardia-epaitegiari bidali beharko diote, betiere zitazioaren eguna eta ordua baino lehenago.

6. Tasatu beharreko objekturen bat guardia-epaitegiari bidaltzea ezinezkoa bada, berehala eskatuko da kasuan kasuko aditu edo zerbitzua bertaratzea, objektua aztertu eta txostena emateko. Txostena ahoz eman ahal izango da guardia-epaitegiaren aurrean.

### **3.3.1.2. Polizia-eginbideen helburua**

Aipatutako eginbideek helburu bikoitza daukate:

- Alde batetik, horien bitartez materiala batzen da, geroago atestatuarekin batera guardia-epaitegiak erabiliko duena. Era horretan, ikerketa aurreratu egiten da.
- Beste aldetik, polizia judizialak burututako eginbideak errepikatzea saihesten da, epaileak egoki baderitzo.

### **3.3.2. Epaille-fasea: premiazko eginbideak**

Prozedura honetan polizia judizialaren eginkizunak gehitu diren heinean, epailearenak murriztu egin dira. Hala ere, epaille-fasearen gainean hainbat osagai hartu behar dira aintzat:

#### **3.3.2.1. Guardia-epaitegiaren eskumena**

PKLren 799. artikulua arabera, epaiketa arinen epaille-fasea guardia-epaitegiaren aurrean burutuko da, Instrukzio Epaitegiaren guardia-zerbitzuan zehar. Beraz, epaiketa arinen esparru honetan, PKLren 14 eta 15. artikuluetako lurralde-eskumenaren arau arruntak ere aplikatzen dira.



Hala ere, guardia-zerbitzua iraunkorra ez bada, eta hogeita lau ordutik gorako iraupena badu, epaileak epea beste hirurogeita hamabi ordu gehiagoz luzatu ahal izango du, baldin eta atestaturia guardia-zerbitzua amaitu baino berrogeita zortzi ordu lehenago jaso bada (PKLren 799.2 art.).

### **3.3.2.2. Polizia-atestatua**

Ikerketari dagokionez, poliziak burututako eginbideek –atestatuan jasota geratuko direnak- berebiziko garrantzia izango dute prozedura hastean:

- Alde batetik, polizia-atestatua –poliziak lortutako objektu, tresna eta frogekin batera- jasotzean has daiteke epaile-fasea.
- Bestetik, litekeena da epaile-fasea beharrezkoa ez izatea, guardia-epaileak poliziak egindako jardunak eta jasotako gaiak prozedura jarraitzeko nahikoak direla pentsatzen badu (PKLren 798.2.1 art.).

### **3.3.2.3. Epaile-fasea burutzea**

#### *a) Objektu, tresna, froga eta polizia-atestatua aurkeztea*

Polizia-atestatua aurkeztearekin hasten da fase hau; Polizia Judizialak delituaren gainean bereganatutako balizko agiri, objektu, tresna eta frogekin batera aurkeztu behar da atestaturia.

Agertutako alderdiei eta Ministerio Fiskalari entzun ostean, epaileari burututako eginbideak nahikoak direla iruditzen bazaio, prozedura jarraitzeko autoa emango du ahoz eta errekurriezina izango da. Bestetik, guardia-epaileak egitatea faltatzat jotzen badu, berehala ebatziko du falta-epaiketarako prozeduraren bidez (PKLren 798.2.1 art.).

#### *b) Premiazko eginbideak burutzea*

Epailearen iritziz, aldiz, premiazko eginbideren bat burutu behar bada, Ministerio Fiskalaren parte-hartze aktiboarekin aginduko ditu autoaren bidez, komenigarria den

edo inguruabarrek gomendatzen duten hurrenkeran (PKLren 797.1 art.). Auto hori errekurriezina da.

PKLren 797. artikulua premiazko eginbideak zerrendatzen ditu:

- Atxilotuaren edo egotziaren zigor-aurrekariak eskuratuko ditu.
- Leporatutako egitateen kalifikazio juridikorako beharrezkoa bada:
  - Polizia Judizialak eskaturiko aditu-txostenak lortuko ditu, horiek jaso ez baditu.
  - Egokitzen eta proportziozkotzen jotzen denean, eta alde aurretik hori egin ez bada, mediku forentseak epailearen aurrean agertu diren pertsonak aztertu eta kasu kasuko aditu-txostena emateko aginduko du.
  - Atzemandako edo kendutako objektuak tasatzea aginduko du, aurretiaz egin ez bada.
- Atxilotuari edo egotziari adierazpena hartuko dio, PKLren 775. artikuluko baldintzak betez.
- Poliziak zitatutako eta horretara agertu diren lekukoei adierazpena hartuko die.
- Delituaren ofendituari eta mindutakoari 109 eta 110. artikuluen arabera dituzte eskubideen berri emango die.
- Egokitzen jotzen bada eta lekukoa agertuz gero, ezagutze-saioan egotziaren azterketa burutuko du.
- Beharrezkotzat jotzen bada, lekukoen, lekuko eta egotzien edo egotzien arteko bekaldurak egiteko aginduko du.
- Bere iritziz bere aurrera agertu beharreko pertsonen zitazioa egiteko aginduko du, zitazioa ahozkoa bada ere. Dena dela, beren adierazpena atestatuan jasota dagoen segurtasun-indar eta kidegoetako kideei ez zaie zitaziorik egingo, horien adierazpen berria beharrezkotzat jotzen duenean izan ezik.
- Edozein eginbide aginduko du, baldin eta ikerketarako egokia bada eta bertan edo hurrengo hirurogeita hamabi orduetan burutzen bada.

*d) Froga aurreratua egiteko aukera*

Arrazoiz pentsatzen bada, edozein zioengatik, frogaren bat ahozko epaiketan ezin izango dela egin edo haren etetea eragingo duela, guardia-epaileak berehala burutuko du froga hori, betiere alderdien arteko kontraesana bermatu ondoren. Eginbide hori soinua eta irudia grabatzeko eta erreproduzitzeko balio duen euskarrian dokumentatu behar da, edo Idazkari Judizialak eskuetsitako aktan, parte-hartzaileak adierazita. Epaian froga moduan balioetsi ahal izateko, horren gainean interesa duen alderdiak eskatu beharko du grabazioa erreproduzitzea edo eginbidea irakurtzea ahozko epaiketan (PKLren 797.2 art.).

*e) Agerturiko alderdiei eta Ministerio Fiskalari entzutea*

Premiazko eginbideak burutu ostean, epaileak alderdi akusatzaileei eta Ministerio Fiskalari entzungo die hartu beharreko ebazpenaren gainean. Horiek egotziari edo erantzule zibilarri kautelazko neurriak ezartzea eskatu ahal izango dute (PKLren 798 art.).

*f) Guardi-epaitegiak har ditzakeen ebazpenak*

- Bere iritziz burututako eginbideak nahikoak badira, epaiketa azkarra jarraitzeko ahozko autoa emango du; auto hori errekurriezina izango da, eta Idazkari Judizialak aktan dokumentatu beharko du.
- Nahiz eta gauzatutako eginbideak nahikoak direla pentsatu, epaiketa arina ez jarraitzea erabaki daiteke hurrengo egoeratan:
  - Bere ustez egitatea arau-hauste penala ez bada, edo ez bada behar beste justifikatu halakoa gertatu denik, edo egilea nor den jakin ezean, behin-behineko largespena emango du (PKLren 798.2.1 art., 779.1.1 artikularekin lotuta).
  - Egitatea delitua izan beharrean falta bada, falta-prozeduraren bidez epaituko du berehala (PKLren 798.2.1 art.).
  - Egitatea jurisdikzio militarrek epaitu behar badu, jurisdikzio horren organo eskudunaren alde inhibituko da (PKLren 798.2.1 art., 779.1.3 artikularekin lotuta).

- Egotzi guztiak adingabeak badira, jardunak adingabeen fiskalari helaraziko zaizkio, honek adingabeen zigor-erantzukizunari buruzko legearen izapideak burutu ditzan (PKLren 798.2.1 art., 779.1.3 artikularekin lotuta).
- Buruturiko eginbideak nahikoak ez direla pentsatzen badu, prozedura laburtuaren aurretiazko eginbide gisa aurrera egitea aginduko du; egoera horretan epaileak burutu beharko diren eginbideak, edo amaiera eragozten duen zioa edo inguruabarrak, era arrazoituan adierazi beharko ditu (PKLren 798.2.2 art.).
- Bidezkoa denean, kendutako objektuak itzultzea aginduko du (PKLren 798.4 art.).

#### **3.3.2.4. Kautelazko neurriak**

PKLren arabera, guardia-epaileak bi unetan agin ditzake kautelazko neurriak:

- Lehenengoz, premiazko eginbideak burutu eta berehala, Ministerio Fiskalak eta agertutako alderdiek entzutean (PKLren 798.1 art.).
- Bigarrenez, prozedura arina jarraitzeko ahozko autoa eman ondoren, alderdiei entzun ostean (PKLren 800.1 art.).

Beste aldetik, epaileak alde zuzenetik hartutako kautelazko neurrien gainean ere erabaki beharko du, kasuan kasuko ebazpenean -largespenaren autoan edo prozedura arina jarraitzeko ahozko autoan-.

Kautelazko neurrien aurka erreforma- zein apelazio-helegitea aurkez daitezke; apelazioa erreformaren helegite ordezkatzailer moduan edo zuzenean aurkeztu ahal izango da (PKLren 798.3 art., 766. artikularekin lotuta).

### 3.4. Largespenaren edo ahozko epaiketaren gaineko erabakia

PKLren 800 eta 801. artikuluek ahozko epaiketaren prestatze-fasea arautzen dute; hori guardia-epaitegiaren aurrean berehala eta oso epe murritzean egingo da. Hala ere, fase honen xedea ez da bakarrik ahozko epaiketa-fasea prestatzea (akusazioa eginez eta epaiketarako egin beharreko zitazioak burutuz), berau ekiditeko helburua ere izan baitaiteke (largespena ematea erabakitzen bada).

Arestian aipaturiko PKLren 798.1 artikuluan aurreikusitako entzunaldian –epaiketa arinerako prozedura jarraitzeko ahozko autoa eman aurretik-, epaileak agerturiko alderdiei eta Ministerio Fiskalari entzungo die epaiketa jarraitzeari buruz. Izapide honetan egoera hauek gerta daitezke:

- Akusatzaile partikularrak zein Ministerio Fiskalak PKLren 637 eta 641. artikuluek aurreikusitako zioaren batean oinarrituz largespena eskatuz gero, epaileak hala aginduko du, salbuespen batekin: ZKren 20. artikuluko 1, 2, 3, 5 eta 6. puntuetako egoeraren batean egonez gero, jardun guztiak akusatzaileei itzuliko dizkie, haiek kalifikazioak egin ditzaten; hortik aurrera epaiketa burutuko da epaia eman arte, balizko erantzukizun zibila eta segurtasun-neurriak ezarri ahal izateko.
- Ministerio Fiskalak largespena eskatzen badu, eta akusazio partikularrik ez badago, hori eman aurretik ezagunak diren ofenditu eta kaltetunei jakinaraz diezaieke, haiek hamabost eguneko epean akusazioa aurkeztu ahal izateko. Baina ez agertzea erabakitzen badute, epaileak largespena eman beharko du.
- Ministerio Fiskalak edo akusazio partikularrak ahozko epaiketa irekitzea eskatzen badute, guardia-epaileak hala aginduko du, largespena emateko arrazoiak ematen direnean izan ezik (PKLren 800.1 art., 783.1 artikuluekin lotuta). Ahozko epaiketa irekitzearen erabakia errekurriezina den ahozko auto ziodunaren bitartez egingo da, agirian dokumentatu beharko dena (PKLren 800.1 *in fine* art.).

### **3.5. Ahozko epaiketa prestatzea**

Ahozko epaiketa irekitzen denean, Prozedura Kriminaleko Legeak bi egoera desberdintzen ditu: epaiketan dagoen akusazio bakarra Ministerio Fiskalarena izatea, edo horrekin batera, akusazio partikularra ere egotea.

#### **3.5.1. Akusazio partikularra eratu ez denean**

Arestian aipatu den legez, honetan Ministerio Fiskalarena izango da akusazio bakarra. PKLren 800.2 artikulua araber, honako hauek dira orain aztergai dagoen egoeran ematen diren urratsak:

- Lehenengoz, Ministerio Fiskalak berehala aurkeztu behar du akusazio-idazkia, edo akusazioa ahoz egingo du.
- Bigarrenez, guardia-epaileak ahozko epaiketa burutzeko zitazioak egingo dizkie alderdiei; horrez gain, Fiskalak hori proposatu ondoren, froga burutzeko agertu beharreko pertsonen zitazioa ere egingo zaie (frogak onartzearen gainean organo epai-emaileak erabakitakoari kalterik egin gabe; PKLren 800.3, III art.).
- Hirugarrenez, akusatuak (PKLren 800.2 art.), Fiskalak aurkeztutako akusazioa ikusita, defentsa-idazkia aurkeztuko du. Izapide hau bi eratan egin daiteke:
  - Berehala, ahoz zein idatziz.
  - Akusatuak defentsa-idazkia aurkezteko epea eska dezake. Egoera horretan, guardia-epaileak, egotzitako egitatearen inguruabarrak eta ikerketan zehar agerturiko gainontzeko datu guztiak aintzat hartuta, epea finkatuko du hurrengo bost egunetan; idazkia eskuduna den Zigor Epaitegiaren aurrean aurkeztu beharko dute.

#### **3.5.2. Akusazio partikularra eratu denean**

Aurretik aipaturikoarekin alderatuta, kasu horretan jarraitu behar den izapidea desberdina da; epaiketa bizkorrean, Ministerio Fiskalarekin batera akusazio partikularra dagoenean, honako hauek dira ahozko epaiketa ireki ondoren eman beharreko urratsak:

- Lehenengo eta behin, epaileak akusazio partikularra eta Ministerio Fiskala epatuko ditu, akusazio-idazkiak bi egun arterainoko epean aurkez ditzaten (PKLren 800.4 art.).
- Aurrekoaren ostean, epaileak ahozko epaiketa burutzeko zitazioak egingo dizkie alderdiei zein burutzeko agertu beharreko pertsoneri (PKLren 800.2 art.).
- Hirugarrenez, epaileak akusatua epatuko du defentsa-idazkia aurkez dezan.

Beste alde batetik, Ministerio Fiskalak akusazioa dagokion epean aurkeztu ezean, PKLren 800.5 artikulua honako hau xedatzen du:

- Epaileak hierarkian goragoko Fiskalari akusazio-idazkia bi eguneko epean aurkeztea eskatuko dio.
- Goragoko Fiskalak idazkia epean aurkeztu ezean, ahozko epaiketa irekitzea eskatzen ez duela ulertuko da, eta largespen askea emango du epaileak.

### **3.5.3. Defentsa-idazkiak**

Defentsa-idazkiei dagokienez, honako hau azpimarratu beharra dago:

- Horiek bertan aurkeztu behar dira, edo guardia-epaileak adierazitako epean (epea inoiz ez da bost egunekoa baino luzeagoa izango, PKLren 800.2.III artikulua araberan).
- Zigor Epaitegiaren aurrean aurkeztu behar dira, auzia epaitzeko eskuduna dena.
- Idazkiak aurkeztu ondoren, edo horiek aurkezteko epea prekluitu ondoren, epaileak proposatutako frogak aztertuko ditu, eta autoa emango du berehala horiek onartzeko edo ukatzeko; era berean, autoan froga aurreratua egiteko beharrezkoa dena ezarriko du (PKLren 800.6 art., 785. artikuluaekin lotuta).

### **3.5.4. Adostasuna eta bere baldintzak**

Epaiketa bizkorren ezaugarri nagusietako bat da akusatuak guardia-epaitegiaren aurrean adostasuna eman dezakeela eta horrek epaiketa laburtzen du. Honako hauek dira adostasun horren ezaugarriak:

Legeak bi egoera aurreikusi ditu:

- Akusazio partikularra eratu bada, defentsa-idazkian eman behar den adostasuna akusaziorik larrienean izan beharko litzateke (PKLren 800.5 art.).
- Prozesuan dagoen akusazio bakarra Ministerio Fiskalak egindakoa bada, akusatuak adostasuna eman beharko du guardia-epaitegiaren aurrean. Kasu horretan, guardia-epaileak adostasun-epaia emango luke hurrengo betekizunak gertatzen direnean (PKLren 800.1 art.):
  - Ministerio Fiskalak ahozko epaiketa irekitzea eskatzea, eta epaileak hori erabaki ostean, Fiskalak bertan akusazio-idazkia aurkeztea.
  - Egitateak delituaren kalifikazioa jasotzea, eta horien zigorra hiru urte arteko espetxealdia, edozein isun-zigor, edo beste izaera bateko zigorra izanez gero, hamar urte baino gehiagokoa ez bada.
  - Espetxe-zigorraren kasuan, eskaturiko zigorrak edo zigorren batuketak, heren batean murriztu ondoren, bi urtekoa ez gainditzea.

Ikusi ahal izan denez, adostasuna prozesuaren lehenengo izapidetzan eman behar da. Izan ere, adostasuna ofiziozko abokatua izendatu aurretik eman behar dela – konfiantzazko bat izendatzen ez denean-, eta horrek defentsa-eskubidea arrisku bizian jar lezakeela azpimarratu du Doktrinak. Gainera, adostasuna guardia-epaitegiaren aurrean eman behar da, adostasun-epaia emango duena; guardia-epaitegia instrukzioa burutzeaz arduratzen dela aintzat hartuta, epaiketa bizkorren esparruan gertatzen den sistema hau, oro har, zigor-ordenan indarrean dagoen organoen bitasun-printzipioaren erabat aurka legoke, instrukzioa gauzatzeaz eta epaia emateaz organo bera arduratzen baita.

Beste alde batetik, guardia-epaileak adostasunak PKLren 787. artikuluko baldintzak betetzen dituela kontrolatu ondoren, adostasun-epaia emango du ahoz, agirian jasoko dena. Epaian eskaturiko zigorra baino heren batean murriztuta ezarriko da. Halaber, ezarritako zigorra askatasun-gabetzailea bada, eta akusatuak delitutik sortutako erantzukizun zibila guardia-epaileak ezarritako epean ordaintzeko konpromisoa hartzen badu, zigorra eteteko edo ordezkatzeko erabakia hartuko du epaileak; eta gauza bera gertatuko da akusatuak menpekotasuna gainditzeko edo horretarako sendabidean egoteko konpromisoa hartzen duenean (PKLren 801.3 art.). Baina aipatutako



konpromisoak bete ezean, epaileak autoaren bidez zigor guztia –murrizketarik gabe- ezarriko dio akusatuari.

Adostasunarekin bukatzeko, adostasun-epaia eman ondoren, guardia-epaileak kondenatua aske uzteko edo espetxean sartzeko bidezkoa dena erabakiko du, eta erabaki horretatik sortutako agindeiak egingo ditu; horren ondoren, jardun guztiak epaiarekin batera dagokion Zigor Epaitegiari helaraziko dizkio, hark betearazpenarekin jarrai dezan (PKLren 801.4 art.).

### **3.6. Ahozko epaiketa, aurka egitea eta betearazpena**

#### **3.6.1. Ahozko epaiketaren berezitasunak**

Epaiketa bizkorren ahozko epaiketari dagokionez, epaiketa laburturako PKLren 786, 787 eta 788. artikuluek aurreikusten dituzten izapideak aplikatzen dira (PKLren 802.1 art.), jarraian aipatuko diren ñabardurekin.

- a) Zuzena den zioagatik ahozko epaiketa ezin bada zehazturiko egunean egin, edo ezin bada ekitaldi bakar batean bukatu, epaileak ahalik eta egunik hurbilena aukeratuko du epaiketa egiteko edo jarraitzeko, eta hurrengo hamabost egunen barruan beti; interesdunei data horren berri emango zaie (PKLren 802.2 art.).
- b) Epaia emateko epea hiru egunekoa izango da, ikustaldia bukatzen denetik zenbatuta. Epaia *in voce* -ahoz- eman daiteke ere bai; kasu horretan, epaitza bera eta horren zioak dokumentatu beharko dira, idazkariaren fedearen bitartez edo aktaren eranskinean (hala ere, gero epaia idatzi beharko da; PKLren 802.3 art., 789. artikuluekin lotuta).

#### **3.6.2. Epaiari aurka egitea**

Ematen den epaiaren aurka honako hau gerta daiteke:

- a) Ahoz ematen bada, eta fiskalak eta alderdiek bere aurka helegiterik tarteratuko ez dutela adierazten badute, epaia irmo bilakatzen da.
- b) Beste edozein egoeratan epaiaren kontra apelazio-helegitea tartera daiteke Entzutegi Probintzialaren aurrean -edo Entzutegi Nazionalaren aurrean, epaia Zigor Epaitegi Zentralak eman zuenean-, PKLren 790, 791 eta 792. artikuluek prozedura laburturako aurreikusiriko izapideen bitartez gauzatuko dena, ondorengo zehaztasunekin (PKLren 803. art.):
- Formalizazio-idazkia aurkezteko epea bost eguneko izango da (prozedura laburtuan hamar egunekoa da).
  - Alegazioen idazkiak aurkezteko, gainontzeko alderdiek bost eguneko epea izango dute (laburtuan hamar egun dute).
  - Epaia ikustaldia burutu eta hurrengo hiru egunean eman beharko da (bost laburtuan), edo jardunak jaso eta hurrengo bost egunean, ikustaldia egin ezean (hamar, laburtuan).
  - Apelazio-helegite horren izapidetzak eta ebazpenak lehentasuna izango dute.
  - Akusatua egon barik emandako epaien aurka, PKLren 793.2 artikuluko deuseztasun-helegitea aurkeztu ahal izango da.
  - Adostasun-epaiaren aurka helegitea tartera daiteke bakarrik adostasunaren betekizun edo baldintzak bete ez direnean (PKLren 787.7 art.).

### **3.6.3. Epaia betearaztea**

Epaia irmo bihurtzen denean, berau eman zuen organoak betearazpenaz arduratu beharko du. Aurrekoa egiteko, betearazpenaren arau orokorrak eta PKLren 794. artikulua berariaz prozedura laburturako aurreikusten duena kontuan hartu beharko da:

- a) Epaitzan kalte-ordainaren zenbatekoa zehaztu ez bazen, alderdiek hori zehazteko egokitzen jotzen dituzten frogak eskatu ahal izango dituzte; gainontzeko alderdiei horren berri emango zaie, hamar eguneko epean beren eskubidearen alde komeni zaiena idatziz eska dezaten. Onartutako frogak burutu ostean, epaileak autoaren bidez

erantzukizun zibilaren zenbatekoa zehaztuko du; auto horren aurka apelazio-helegitea aurkez daiteke dagokion Entzutegi Probintzialaren aurrean.

Zigorraren barruan ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea gabetzea badago, baimena edo lizentzia berehala kenduko dira, eta Trafikoko Burutza Zentralari jakinaraziko zaio.

## **4. KAPITULUA: ZINPEKO EPAIMAHAIAREN AURREKO ZIGOR-PROZESU BEREZIA**

**4.1. Sarrera. 4.2. Zinpeko epaimahaia: kontzeptua eta testuingurua. 4.3. Zinpeko epaimahaiaren osaketa. 4.4. Zinpeko epaimahaiko kideen izendapena. 4.5. Zinpeko epaimahaiaren eskuduntzak eta funtzioak. 4.6. Zinpeko epaimahaiaren aurreko prozesua: berezitasunak, oro har. 4.7. Zinpeko epaimahaiaren aurreko prozesu bati ekiteko beharrezkoak diren elementuak eta zinpeko epaimahaiaren aurreko prozedura berezia prozedura arrunt bilakatzea. 4.8. Prozesuaren hasiera eta instrukzio osagarria. 4.9. Aurretiazko entzunaldia. 4.10. Zinpeko epaimahaiaren aurreko epaiketaren aurretikoak. 4.11. Zinpeko epaimahaiaren eraketa. 4.12. Ahozko epaiketa. 4.13. Deliberazioa eta berediktua. 4.14. Sententzia.**

### **4.1. Sarrera**

Zinpeko Epaimahaiaren aurrean burutzen den zigor-prozesu berezia aztertzekeo derrigorrezko da lehenik zinpeko epaimahaia bera aztertzea. Gai honen lehenengo zatian horri ekingo zaio, bigarren batean bere aurrean ematen den prozesua aztertzekeo. Edozein kasutan, erakunde horretan sakontzekeo atal honetan araudi hau izango da kontuan:

-5/1995, maiatzak 22ko Zinpeko Epaimahaiaren Lege Organikoa (1995eko maiatzaren 23ko EAO [122. zk.]).

-8/1995, azaroak 16ko aurreko legea aldatzen duen Lege Organikoa (1995eko azaroaren 17ko EAO [275. zk.]).

-1398/1995, abuztuak 4ko Errege Dekretua, zinpeko hautagaiak izateko zerrendak osatzeko zozketa arautzen duena (1995eko abuztuaren 5eko EAO [186. zk.]).

->385/1996, martxoak 1eko Errege Dekretua, zinpekoaren funtzioak betetzeagatik ordainketaren eta kalte-ordainaren eraentza ezartzen duena (1996ko martxoak 14ko EAO [64 zk.]).

-2067/1996, irailak 13ko Errege Dekretua, zinpeko epaimahaiaren hautagaiak izateko zerrendak osatzeko zozketa arautzen duen 1398/1995, abuztuak 4ko Errege Dekretua aldatzen duena (1996ko irailak 14ko EAO [223. zk.]).

-Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/1995, 1995eko abenduaren 27ko Zinpeko Epaimahaiaren aurreko prozesuari buruzko Zirkularra: bere aplikazio eremua.

-Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/1995, 1995eko abenduaren 29ko Zinpeko Epaimahaiaren aurreko prozesuari buruzko Zirkularra: Instrukzio Epaitegiaren jarduerak.

#### **4.2. Zinpeko epaimahaia: kontzeptua eta testuingurua**

Zinpeko epaimahaia herritarrek zenbait delituren epaiketean parte hartzea bideratzen duen erakunde da. Parte-hartze hori herritarren eskubide bat ez ezik, kolaborazio- edo laguntza-betebehar bat ere bada. Esku-hartze horren bi dimentsio horiek EK-k jasotzen ditu, 125 eta 118. artikuluetan, hurrenez hurren, eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidearekin (EKren 23.1 art.) eta epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidearekin, eta bereziki legeak aurretiaz zehaztutako epaile arrunterako eskubidearekin (EKren 24. art.) estuki lotu behar dira.

Espainiako historian erakunde hau azken aldiz 1978ko EK-k ezarri, eta 5/1995, maiatzak 22ko Zinpeko Epaimahaiaren Lege Organikoak (1995eko maiatzaren 23ko EAO [122 zk.]) garatu badu ere, aurretik beste Konstituzio batzuek ere ezarri zuten, hala nola, 1812ko Kadizkoak, eta ondorengo beste batzuek (1837koak, 1869koak eta 1931koak). Datei eta historiaren pasarteei erreparatuz gero, erraz asko antzeman daiteke.

Erakunde hau estatuko justizia-sistemaren barnean kokatu behar da. Ez da pentsatu behar justizia-sistema paralelo bati bide ematen dionik. Herritarra, oro har, epaileek eta magistratuek kudeatzen duten justizia-sistemaren parte bilakatzen du, eta justizia-administrazioaren benetako protagonista bihurtzen da.

#### **4.3. Zinpeko epaimahaiaren osaketa**

Zinpeko epaimahaia normalean 9 zinpekok eta Auzitegi Probintzialeko magistratu batek osatzen dute; azkenak presidente-lana burutzen du. Akusatua forupekoa bada, eta

ondorioz zinpeko epaimahaiaren aurreko epaiketa Auzitegi Gorenean edo Justizia Auzitegi Nagusi batean burutu behar bada, presidentea Auzitegi Goreneko Zigor Aretoko magistratu bat edo Justizia Auzitegi Nagusiko Areto Zibil-Penaleko magistratu bat izango da. Edozein kasutan, aipatutako 9 zinpekoekin batera ordezeko 2 zinpeko izendatuko dira (ZELoren 2. art.).

Nor izan daiteke zinpeko? Galdera horri erantzun baino lehen, kapitulu honen lehenengo lerroetan esandakoa gogora ekarri behar da: eskubide bat ezik, zinpekoa izatea herritar ororentzat, baldin eta eskubide horren egikaritza eragozten duen arrazoiren bat ematen ez bada, betebehar bat ere bada, ZELOk aurreikusten dituen bateraezintasun-, debeku- edo desenkusa-arrazoiak ematen ez badira behintzat (ZELoren 6. art.).

Zinpeko izan ahalko dira honako bost baldintza hauek betetzen dituztenak (ZELoren 8. art.):

- 1) adin nagusiko espainiarra izatea,
- 2) eskubide politikoen egikaritza osoa izatea,
- 3) irakurtzen eta idazten jakitea,
- 4) izendapenaren mementuan delitua burutu den probintziako edozein udalerritako auzotarra izatea,
- 5) eta zinpekoaren funtzioak burutzeko fisikoki, psikikoki edo sentorialki ezindua ez egotea.

Positiboki zinpeko nor izan daitekeen aurreikusi ondoren, ZELOk lan hori burutzeko ezgaitasun-, bateraezintasun- eta debeku-kariak jasotzen ditu (9, 10 eta 11. artikulua, hurrenez hurren).

Ez dute zinpeko izateko gaitasunik:

- 1) Dolozko delituagatik kondenatuek, baldin eta birgaitzea lortu ez badute.
- 2) Prozesatuek, eta ahozko epaiketa irekia duten akusatuek, eta atxilotuta edo behin-behineko espetxealdian daudenek, edo delituaren ondoriozko zigorra betetzen ari direnek.

- 3) Zigor-prozedura batean, enplegua edo kargu publikoa esekituta dutenek, esekipenak dirauen artean.

Zinpekoaren funtzioak burutzeko bateraezintasuna aldiz, hauek daukate:

- 1) Erregeak eta Espainiako errege familiakoek.
- 2) Estatuko eta autonomia erkidegoetako gobernuetako goi-kargu gehienek.
- 3) Batzar Orokorretako diputatuak eta senatariek, Europako Parlamentuko diputatuak, Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako kideak eta udalbatzetako hautesleak.
- 4) Auzitegi Konstituzionaleko Presidenteak eta magistratuak, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorreko Presidenteak eta kideak, Kontu Auzitegiko eta Estatu Kontseiluko Presidenteak eta kideak, Estatuko Fiskal Nagusiak, Herriaren defendatzaileak, eta Autonomia Erkidegoetako antzeko izaerako organoak eta erakundeak.
- 5) Jardunean dabilzan epaile, fiskal, idazkari judizial eta auzitegiko medikuek eta, oro har, Justizia Administrazioan zerbitzuak ematen dituztenek.
- 6) Lanean diharduten abokatuak eta prokuradoreak, eta unibertsitateko irakasle titular eta katedradunak.
- 7) Jardunean dabilzan segurtasun-indar eta gorputzetako kideak, zigor-erakundeetako funtzionarioak eta atzerrian misio diplomatiko akreditatuen arduradunak.

Pertsona bat ezingo da inoiz zinpekoa izan bere inpartzialtasuna zalantzan jartzen duen ingurumari bat dagoenean. ZELOren 11. artikulua ingurumari horiek honako kasu hauetan gertatzen direla adierazten du:

- 1) Zinpekoa aldi berean akusatzaile partikularra edo pribatua bada, edo aktore zibila edo erantzukizun zibildun hirugarrena.
- 2) Zinpekoak alderdietako batekin, magistratu batekin, edo abokatu eta prokuradore batekin ondorengo harremana badu: ezkontza-lotura, egitatezko harremana edo antzekoa; odolkidetasun ahaidetasuna; aurrekoen ardurapean edo tutoretzapean egon izana; aurrekoek delitu edo falta bategatik salatu edo akusatu izana; aurrekoekin auzi bat bukatzeke izatea; aurrekoekin adiskidetasun- edo areriotasun-harremanak izatea edo zinpekoak epaiketean lekuko, aditu, fidatzaile edo interprete moduan parte hartu behar badu.

### 3) Auzian interesa badu.

Oro har, desenkusa ezineko betebeharrak publiko eta pertsonala betetzen duten heinean, zinpeko lanetan diharduten herritarrek kalte-ordain bat jasoko dute (ZELoren 7. art.). Salbuespen gisa, legeak zinpeko lanak ez burutzeko ondorengo desenkusak aurreikusten ditu:

- 1) 65 urtetik gorakoa izatea.
- 2) Aurreko lau urteetan zinpeko funtzioak bete izana.
- 3) Izendapenak zinpekoari eragozpen handiak sortzea, bere familia zamak direla eta.
- 4) Interes orokor nabarmena duen lana burutzea, haren ordezkapenak kalte garrantzitsuak sortuko balitu.
- 5) Atzerrian bizitzea.
- 6) Jarduneko militar profesionala izatea, zerbitzu-arrazoiak direla eta.
- 7) Beste edozein kari, baldin eta zinpeko funtzioak betetzea era larrian eragozten badu.

#### **4.4. Zinpeko epaimahaiko kideen izendapena**

Bi urtean behin, Hauteskunde Erroldaren Bulegoko probintzia-ordezkaritzek zozketa bat egiten dute hurrengo bi urteetan zinpeko izateko hautagaien zerrenda finkatzeko. Entzutegi Probintzietako idazkari judizialek zerrenda horretan daudenei horrela jakinaraziko diete postaz. Horrekin batera, aurretik aztertu diren ezgaitasun- eta bateraezintasun-kariak eta desenkusatzeko arrazoiak adieraziko zaizkie, eta azken kasuan desenkusatzeko jarraitu beharreko prozedura ere azalduko zaie (ZELoren 13. art.).

Hurrengo 15 eguneko epean, zinpeko hautagaiek zerrenda horretatik kentzeko eskaera egin dezakete, beraien bizilekuko Lehenengo Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegian. Gainera, edozein herritarrek sala dezake zerrenda horretan agertzen den batek zinpeko lanetan jarduteko ezgaitasunen edo bateraezintasun bat duela (ZELoren 14. art.). 30 eguneko epean aurkeztutako idazkien gainean barruti judizialeko Epaille Dekanoak bere iritzia adieraziko du, zinpeko hautagaien zerrendan aldaketaren bat onartuz gero, eta Hauteskunde Erroldaren Bulegoko probintzia ordezkaritzeari egin beharreko aldaketak



egiteko eskatuko die. Epaiaren erabaki horren kontra ezin daiteke helegiterik tarteratu (ZELoren 15. art.).

Behin probintziako zinpeko hautagaien zerrenda osatuta, hartan agertzen diren hautagaiak, hurrengo urteko urtarrileko lehen egunetik aurrera, bi urteko epean zinpeko moduan aritzeko deituak izan daitezke. Horregatik, beren bizilekua edo zinpeko izateko gaitasuna edo bateraezintasuna aldatzen bazaie, horrela adierazi behar diote Entzutegi Probintzialari (ZELoren 16. art.).

Nola izendatzen dira kasu zehatzerako zinpekoak? Ahozko epaiketaren lehen bista ospatu baino 30 egun lehenago, zinpeko epaimahaia presiditu behar duen magistratuak auzitegiko idazkariari aginduko dio entzunaldi publikoan zozketa egiteko. Zozketa horretan probintziako zerrendatik ezagutu beharreko kasu bakoitzarentzat 36 zinpeko izendatuko dira. Idazkariak zinpekoei epaimahaia aritu behar den egun, ordu eta tokian egoteko deituko die. Zitazioan egin beharreko funtzio konstituzionalari buruzko informazioa, aintzatesten zaizkien eskubide eta betebeharrak, kalte-ordainaren zenbatekoa, eta zinpeko bezala aritzeko ezgaitasun-, bateraezintasun-, debeku- eta desenkusatzeko-kariei buruzko galdera-sorta bat bidaliko zaie. Galdera-sorta hori 5 eguneko epean bueltatu behar dute frankeatutako posta bidez, kasuan kasuko dokumentazioarekin batera. Magistratu-presidenteak aurkeztutako desenkusak onartzen dituen edo ez adieraziko du. Erabaki horiek direla eta, zinpeko hautagaien zenbakia 20 baino gutxiagokoa bada, beste zozketa bat egingo da, 20 hautagai izan arte.

#### **4.5. Zinpeko epaimahaiaren eskuduntzak eta funtzioak**

Zein kasutan aritu daiteke Zinpeko Epaimahaia? ZELOk (1. art.), oro har, Entzutegi Probintzialek ezagutzen dituzten pertsonen kontrako delituetan, funtzionario publikoek beren funtzioen egikaritzean burututako delituetan, ohorearen kontrako delituetan, askatasunaren eta segurtasunaren kontrako delituetan eta sute-delituetan arituko dela esaten du. Ñabardura gisa, gaineratu behar da, akusatua forupekoa bada, Auzitegi Gorenean eta Justizia Auzitegi Nagusietan ere arituko dela. Inoiz ez da arituko Entzutegi Nazionalean ezagutzen diren delituetan.

Bereziki, eta aipatutako mugen barruan, ondorengo delituak ezagutuko ditu: giza hilketa (ZKren 138.-140. art.), mehatxuak (ZKren 169.1 art.), sorospen-eginbearra ez betetzea (ZKren 195 eta 106 art.), bizilekua bortxatzea (ZKren 202 eta 204. art.), basosuteak (ZKren 352.-354. art.), agirien zaintzan desleialtasuna (ZKren 413.-415. art.), eroskeria (ZKren 419.-426. art.), eraginen trafikoa (ZKren 428.-430. art.), ondasunen bidegabeko eralgitzea (ZKren 432.-434. art.), iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak (ZKren 436.-438. art.), funtzionarioei debekatutako negoziatioak (ZKren 439 eta 440. art.), eta presoak zaintzean desleialtasuna (ZKren 471. art.). Horiez guztiez ezagutuko du hemen aztertzen den erakundeak akusatuaren parte-hartzea edo exekuzio maila edozein izanda ere, salbuespen bakarrarekin: pertsonen kontrako delituek burutuak egon beharko dute. Gainera, aurrekoekin lotutako delituez ere ezagutuko dute, baldin eta bi edo pertsona gehiagok aldi berean delitu desberdinak burutzen badituzte, edo bi edo pertsona gehiagok delitu bat baino gehiago burutzen badituzte toki edo denbora desberdinetan, horretarako hitzartuta, edo delituetakoren bat besteak burutzeko, exekuzioa errazteko edo zigorgabetasuna erdiesteko egin bada.

Ondoren ikusiko da aipatutako delitu horietan guztietan zein den zinpeko epaimahaiaren eta magistratu presidentearen lana. ZELOk biak argitzen ditu. Zinpekoek bi pronuntziamentu nagusi egin behar dituzte: batetik, magistratu-presidenteak justiziagarria den egitatea edo egitateak frogatuta dauden edo ez adierazi beharko dute beren berediktuan. Posible dute aipatutako egitateak eraldatzen ez dituzten beste batzuen gaineko iritzia ere ematea. Bestetik, akusatu bakoitzaren erruduntasuna edo erruduntasunik eza aldarrikatuko dute, betiere magistratu-presidenteak onartutako egitatei buruzko akusazioen gainean.

Beren funtzioen egikaritzean, legeak zinpekoei independentzia, erantzukizuna eta legearekiko menpekotasuna galdatzen die, EKren 117. artikularekin bat. Bere funtzioen egikaritzan beren independentzian mugatuta sentitzen badira, magistratu-presidentearengana jo ahal izanen dute hark babes ditzan (ZELOren 3. art.).

Magistratu-presidenteari dagokio zinpekoaren berediktua jasotzen duen sententzia ematea eta kasuan kasuko zigorra edo segurtasun-neurriak ezartzea (ZELOren 4. art.).

#### **4.6. Zinpeko epaimahaiaren aurreko prozesua: bere berezitasunak, oro har**

Prozesu horretan aritzen diren zinpekoak zuzenbidean adituak ez direnez, eta errugabetasun-presuntzioa babesteko asmoz, legelariak berezitasunak aurreikusten ditu prozesu honetan egitateak finkatzeko eta beroien frogak aztertzeko, batez ere bi fasetan: aurretiazkoan eta ahozko bistan. Premisa horrekin gure eskolako nagusiek, MONTERO AROCAk, GOMEZ COLOMER-ek, MONTÓN REDONDOk eta BARONA VILAR-ek, prozesu honi 8 ezaugarri nagusi egozten dizkiote:

1) Hurrentasun-printzipioan areagotzea: ahozko bistan, zinpekoen aurrean burututako frogen balioa indartzen da, eta instrukzio hutseko jarduerak indarra galtzen dute epaia finkatzeko orduan.

2) Ahozko bista irekitzeko ez da behar prozesamendu-autoaren gisako egozpen egintza formal bat. Epaille-instruktoarearen erabaki bat nahikoa da horretarako. Azken horretan, prozesuaren objektuaren zehazpena hasten da.

3) Epaitu beharreko egitateak progresiboki finkatzen dira: lehenengo, epaille-instruktoareak ahozko epaiketaren hasiera agintzen duenean eta ondoren, magistratu-presidenteak, behin betiko, bista ospatu aurretik.

4) Zinpeko epaimahaiak bere berediktua bakarrik benetako froga-indarra duten elementuetan oinarritu dezake. Hori dela eta, magistratu-presidenteak ez dizkie bestelakoak aurkeztuko.

5) Oro har, magistratu-presidenteak zinpekoen beredikturik gabe sententzia eman ahal dituen kasuetan ezik, haren sententzia zinpekoen pronuntziamenduaren menpe dago, ondorioz magistratuaren lana zinpekoak bere lana egoki egin dezan beharrezkoak diren jarduerak zehaztea eta antolatzea da.

6) Aurretiazko prozeduran ahozkotasuna eta kontraesantasuna irabazteko bidean, Ministerio Fiskalak eta abokatu defendatzaileak protagonismoa irabazten duten heinean, epaille-instruktoareak galdu egiten du. Horrela, esaterako, ezin da prozedura ofizioz hasi, zinpeko epaimahaiak ezagutu beharreko delitu bat eman eta norbanako jakin bati egotzi

ezin bazaio bederen. Gainera, prozesuarekin aurrera jarraitzeko, Ministerio Fiskalaren ezagutzapean jarri beharko da, eta hark esku hartu beharko du (PKLren 781. art.). Era berean, abokatu defentsariak, zinpeko epaimahaiak bere berediktua eman arte, haren pentzura egon behar du, eta epaimahaiaren aurrean burutu behar den ahozko epaiketari lehentasuna eman behar zaio, letratu hark izan ditzakeen edozein egintzaren aurretik (ZELOren 44. art.)

Prozesu horren berezitasunak edozein kasutan ZELOk jasotzen ditu. Horrek esaten edo arautzen ez duenerako, PKL aplikatu beharko da (ZELOren 24.2 art.).

#### **4.7. Zinpeko epaimahaiaren aurreko prozesu bati ekiteko beharrezkoak diren elementuak eta zinpeko epaimahaiaren aurreko prozedura berezia prozedura arrunt bilakatzea**

ZELOrekin eta PKLrekin bat (lehenengoaren 24. art. eta bigarrenaren 309 bis, 780 eta 789.3 art.) zinpeko epaimahaiaren aurreko prozesu berezia bakarrik bi baldintza betetzen direnean has daiteke:

- a) Baldin eta pertsona jakin bati (edo gehiagori) zinpeko epaimahaiaren eskuduntzakoa den delitu bat egotzi ahal bazaio, salaketa, kereila edo beste jarduera prozesal bat dela medio.
- b) Eta baldin eta instrukzioko epaileak egozpen hori burutzeko adina elementu daudela uste badu, elementu horiek beste prozesu bateko jardueratik edo/eta salaketa edo kereilan jasotako ustezko urratzailearen eta egitatearen ingurukoak finkatzeko egitateetatik eratorrita.

Ikerketa bat beste prozedura baten izapidetzari jarraituz hasi bada ere, egitateek zinpeko epaimahaiaren eskumenekoa den delitu bat osatzen badute, hasiera eman beharko zaio prozesu berezi horri (PKLren 780. art.).

Aurreko kasuetan instrukzioko epailek ez badu hemen aztertzen den zigor-prozesu berezia abiarazten, horrela eskatu ahal izango diote bai Ministerio Fiskalak bai epaile aurrean agertutako edozein pertsonak (egotziak berak ere).

Posible da ere, zinpeko epaimahaiaren aurreko prozesu berezi bezala abiarazi den kasua, PKLren irizpide orokorrekin bat prozedura arrunt batera ekartzea. ZELOk 4 kasu aurreikusten ditu:

1) Instrukzioko epaileak prozesu berezi honen lehen jardueretan ikertutako egitateak zinpeko epaimahaiaren eskumenekoak ez diren urraketak osatzen dituztela uste badu (ZELOren 28. art., 25. artikularekin bat).

2) Alderdi akusatzaileek, instrukzioko epaileak deitutako agerraldian, ahozko epaiketaren hasiera eskatu gabe, egitateak bere osotasunean zinpeko epaimahaiaren eskumenetik at geratzen direla adierazten dutenean. Egitateak, zati batean bada ere, zinpeko epaimahaiaren eskumenekoak badira, prozesu berezi honekin jarraitu ahal izanen da (ZELOren 29.5 art.).

3) Prozesuan aurrerago, aurretiazko entzunaldian, ofizioz edo alderdien eskariz, instrukzioko epaileak ezagutzen ari diren egitateak zinpeko epaimahaiaren eskumenekoa ez den delitu bat osatzen dutela uste badu (ZELOren 31.3 eta 34.4 art.).

4) Azkenik, posible da alderdi batek prozedura desagokitasuna aurkeztea aurretiazko arazo bezala eta instrukzioko epaileak onartzea (PZLren 36.1 a) art).

Hala ere, behin-behineko kalifikazioen aldaketak, hau da, egitateak zinpeko epaimahaiaren eskumenetik at geratzen direla adierazteak, ez du prozesu-aldaketa ekarriko (ZELOren 48.3 art.).

#### **4.8. Prozesuaren hasiera eta instrukzio osagarria**

Zinpeko epaimahaiari ezagutzea dagokion delitu baten ondoriozko prozesuari hasiera eman ondoren, instrukzioko epaileak jakinaren gainean jarriko ditu lehenbailehen inputatuak. Inputazioa zehazteko agerraldi batera deituko ditu 5 eguneko epean. Ministerio Fiskala eta aurkeztutako gainerakoak ere deituko ditu agerraldi horretara. Zitazioarekin batera inputatuei, aurretik bidali ez bazaie, onartutako salaketa edo kereila

helaraziko zaie. Edozein kasutan, inputatuak edo inputatuek derrigorrez beraiek aukeratutako edo bestela ofiziozko abokatuaren laguntza izango dute.

Agerraldi honen xedea inputazioa egin daitekeen edo ez zehaztea da. Ondorioz, prozedurak aurrera egingo du edo ez. Horretarako, instrukzioko epaileak lehenengo Ministerio Fiskala entzungo du. Ondoren, eta bata bestearen atzetik, pertsonatutako akusatzaileak entzungo ditu. Horiek bi aukera dituzte: inputazioa zehaztea edo largespena eskatzea. Jarraian inputatuaren abokatuak izango du hitza. Bere bezeroaren defentsarako dituen argudioak azalduko ditu. Hark ere, egoki baderitzo, largespena eska dezake (PKLren 637 eta 641. art.). Edozein kasutan, alderdiek, nahi izanez gero, ikerketa-diligentziak eska ditzakete. Diligentzia horiek agerraldia bukatu ondoren edo adostutako azken diligentzia burutzen denetik 5 eguneko epean eska daitezke.

Alderdiei eta Ministerio Fiskalari entzun ondoren, instrukzioko epaileak, inputazioa onartuz, prozedurarekin jarraitzea edo PZKrekin bat (637 eta 641. art.) largespena erabaki dezake. Bi aukerak aztertuko dira ondoren.

Ministerio Fiskalak eta gainerako alderdiek largespena eskatzen badute, epaileak, egoki baderitzo, PKLren 642 eta 644. artikuluekin bat, largespen-auto bat emango du. Horren kontra apelazioa tartera daiteke Entzutegi Probintzian.

Kontrako kasua aurkeztuko da ondoren. Instrukzioko epaileak inputazioa egokitzen jotzen badu, alderdiek eskatutako ikerketa diligentzietan buruz erabakiko du. Aurretiazko entzunaldian (ZELoren 30. art.) praktikatu ezinik, ahozko epailetaren irekiera eskatzeko garrantzitsutzat jotzen dituenak praktikatzea onartuko du (ZELoren 27.1 art.). Aurretik esan berri den bezalaxe, alderdiek diligentzia berriak eska ditzakete agerraldia bukatzen denetik edo onartutako azkenekoa burutzen denetik 5 eguneko epean. Gainera, epaileak berak, alderdien diligentziak osatzeko egoki direnak agindu ditzake, betiere epaitu behar diren egitateetara eta akusatzaileek inputatu dituzten pertsonetara mugatuta.

Posible da instrukzioko epaileak alderdiek proposatutako ikerketa diligentziak ez onartzea, eta ofizioz beste batzuk ez proposatzea. Kasu horretan, jardundakoa alderdiei helaraziko zaie. Horiek, behin-behineko kalifikazio-idazkiaren bidez, ahozko epaiketa

irekitzea eska dezakete 5 eguneko epean. Epailea horrela aritu daiteke, nahiz eta onartutako diligentziak bukatu gabe egon.

Akusatzaileek behin-behineko kalifikazioak aurkezten badituzte PKLren 650. artikulua bat ahozko epaiketaren irekiera eskatuz, horiek akusatuaren abokatuari helaraziko zaizkio, hark ere behin-behineko kalifikazio-idazkia aurkez dezan (PKLren 652. art.). Ondorio alternatiboak aurkez daitezke bi idazkietan (ZELoren 29.3 eta PKLren 653. art.). Gainera, alderdiek beraien idazkietan diligentzia osagarriak eska ditzakete aurretiazko entzunaldian praktikatzeko; aurrekoak ezin daitezke errepikatu, ordea. Posible da gainera alderdiek, akusazioa osatzen duten egitate guztiak zinpeko epaimahaiaren eskumenekoak ez direla argudiatuz, horiekiko prozeduraren egokitasuna eskatzea. Logikoki, egitate guztiak zinpekoaren eskumenetik at geratzen direla argudiatuko balute, prozedura erabat aldatu beharko litzateke. Egoera hori aurretik aztertu da.

#### **4.9. Aurretiazko entzunaldia**

Behin defentsak kalifikazio idazkia aurkeztu ondoren, epaileak ahalik eta lasterren ospatuko den aurretiazko entzunaldi batera deituko ditu alderdiak. Ekintza horren xedea alderdiak ahozko epaiketaren irekierari buruz entzutea da. Entzunaldi hori ez da ospatuko aurretik eskatutako diligentzia ikerketak burutu barik badaude. Epaileak entzunaldi hori deitzen ez badu, alderdiek kexa-helegitea tarteratzea dute entzutegi probintzian.

Entzunaldi hori ez da ospatuko akusatu guztien defentsek berariaz ahozko epaiketaren irekiera onartzen badute.

Kontrako kasua ere aztertu beharra dago. Adibidez, entzunaldi hau burutzen da. Aurretiaz zehaztutako eta alderdiei adierazitako egunean eta orduan burutuko da. Alderdiek aurretiaz proposatutako diligentziak burutuko dira lehenbizi. Gainera, entzunaldian bertan momentu horretan beste diligentzia batzuk praktikatzeko eska ditzakete. ZELOrekin bat, epaileak ez ditu onartuko ahozko epaiketaren irekiera egokia erabakitze ezinbestekoak ez diren diligentziak (31.2 art.). Onartutako diligentziak burututa, epaileak ahozko epaiketaren irekieraren gainean entzungo ditu alderdiak.

Alderdiek badute ahozko epaiketaren irekierari buruz beren iritzia aldatzea, hau da, nahiz eta lehen haren irekiera eskatu, orain kasuaren largespena eska dezakete. Gainera, zinpeko epaimahaiaren eskuduntzari buruz ere entzungo ditu.

Entzunaldia bukatuta, egintzan bertan eta hurrengo hiru eguneko epean, epaileak auto bidez ahozko epaiketaren irekiera erabaki behar du. Legeak erabakia hartu aurretik diligentsia osagarriren baten praktika agintzeko ahalmena aintzatesten dio, aurreko entzunaldian egindakoak horrela galdatzen badu.

Logikoki, ahozko epaiketa ez irekitzea erabakitzen badu, largespena adierazi beharko du. Largespen-autoaren kontra apelazio-helegitea tartera daiteke entzutegi probintzian (ZELoren 32.2 art.).

Epaileak posible du zatikako largespena eta ahozko epaiketaren irekiera erabakitzea (PKLren 640 eta 637.3 art.). Irekitzea erabakitzen duen autoaren kontra ezin daiteke helegiterik tarteratu.

Ahozko epaiketa irekitzea agintzen duen autoan epaileak honako hau jaso behar du:

- a) Akusazioaren eta epaiketaren ardatz diren egitateak.
- b) Akusatu zein erantzukizun zibildun hirugarren gisa nor izango diren epaituak.
- c) Ahozko epaiketaren irekiera egokia dela oinarritzea, kasuan aplikatu beharreko lege xedapenei aipu eginez.
- d) Epaketaz ezagutzeko organo eskuduna.

Aurretiazko entzunaldiarekin bukatzeko bi ñabardura egin behar dira. Batetik, ezinbestekoa da argi izatea ahozko epaiketaren irekiera agintzen duen autoa ez dela prozesamendu-auto bat. Pertsona zehatz baten kontrako hasierako akusazioa berresten duen, eta mementu horretatik aurrera prozesuaren objektu, eta beraz, frogaren eta baita berediktuaren objektu, zein egitate diren adierazten duen inputazio egintza bat da. Bestetik, eta prozesuarekin jarraituz, entzunaldia bukatzeko instrukzioko epaileak kasuaz ezagutu behar duen organo jurisdikzionalari egindako guztiak (delituaren ondoren eta tresna guztiak) bidaliko dizkio eta alderdiak haren aurrean 15 eguneko epean agertzeko deituko ditu.



#### **4.10. Zinpeko epaimahaiaren aurreko epaiketaren aurretikoak**

Alderdiak idatziz pertsonatuko dira zinpeko epaimahaiaren aurrean. Baina aitzina, aurretiazko arazoren bat tarteratu dezakete:

- 1) PKLk 666. artikuluan aurretiazko pronuntziamenduko artikulutzat hartzen dituenak: jurisdikzioaren deklinatoria, gauza epaitua, delituaren preskripzioa, amnistia edo indultua eta baimen administratiboaren falta, prozesatzeko beharrezkoa denean.
- 2) Prozedura desagokitasuna, zinpeko epaimahaiaren eskuduntza falta dela eta.
- 3) Oinarritzko eskubide baten urraketa.
- 4) Epaiketa instrukzioko epaileak onartu ez duen egitateren batera zabaltzeko eskatzea.
- 5) Ahozko epaiketa irekia duen egitateren bat prozesutik at lagatzea, akusazio idazkietan agertzen ez delako.
- 6) Beste alderdiek proposatutako frogabideak inpugnatzea eta frogabide berriak proposatzea. Azken kasu horretan, gainerako alderdiei helaraziko zaizkie 3 eguneko epean haien ez-onarpena idatziz eska dezaten.

Aipatutakoren bat tarteratzekotan, PKLren 668 eta 677. artikulua bitartean araututakoarekin bat, ebatziko da.

Behin alderdiak pertsonatuta, eta aurrekoren bat tarteratu bada, berau ebatzita, ahozko epaiketarako bidea zabalik geratzen da. Horretarako magistratu-presidenteak auto bat emango du. Bere edukia ZELOk berariaz arautzen du (37. art.), eta 4 xede nagusi ditu:

- 1) Prozesuaren objektu diren egitateak zehaztea. Alderdiak mementu horretatik aurrera hauek izan beharko dituzte kontuan eta berauek izango dira berediktuaren oinarri.
- 2) Aurrekoek zein delitu osa dezaketen zehaztea.

3) Proposatutako frogen egokitasuna edo desegokitasuna adieraztea. Frogen aurrerapena eskatu bada, elementu hori ere erabaki beharko da.

4) Ahozko bista ospatzeko eguna zehaztea, PKLren 660 eta 664. artikuluko bitartean jasotzen diren neurriak hartuz.

#### **4.11. Zinpeko epaimahaiaren eraketa**

Ahozko epaiketa epaileak adierazitako egunean ospatu aurretik, zinpeko epaimahaia formalki eratu behar da. Horretarako, aurretik zehaztutako egunean eta orduan zinpeko epaimahaia presiditu behar duen magistratuak eta idazkari judizialak alderdien aurrean bildu behar dute. Gutxienez deitutako 20 zinpeko agertzen badira, magistratu-presidenteak saioari hasiera emango dio. Kontrako kasuan, aipatutako zinpeko kopurua baino gutxiago agertzen bada epailearen aurrean, epaiketarako beste egun bat jarriko da hurrengo 15 egunen barruan. Egun horretarako agertutako zinpekoak, agertu ez direnak, eta bi urterako egiten den zerrendatik zozketaz aukeratutako gehienez beste 8 hautagai deituko dira. Legeak zehapenak aurreikusten ditu justifikaziorik gabe agertzen ez diren zinpekoentzat.

Legeak galdatzen duen gutxieneko zinpeko kopurua agertzen den kasuan, magistratu-presidenteak galdeketa bat egingo die, legeak aurreikusten dituen ezgaitasun, bateraezintasun, debeku edo desenkusak aplikatu ezin direla berresteko. Alderdiek beraiek ere horien guztiei buruz galderak egin diezazkiokete. Horrela, ezgaitasun-, bateraezintasun- edo debeku-kari bat pairatzen duten zinpekoak errekusatu ahal izango dituzte. Errekusazio horiek, bertan, alderdien aurrean eta kasuan kasuko zinpekoari entzun ondoren, ebatziko ditu magistratuak. Bere erabakiaren kontra ezin daiteke helegiterik tarteratu, nahiz eta azken sententziaren kontra tartera daitekeen helegiteari begira protesta egin daitekeen.

Aurreko guztia kontutan hartuta, zinpeko izateko hautagai nahikoa agertzen den kasuan, zozketa bat egingo da horien artean, zinpeko epaimahaia zein bederatzik osatuko duten jakiteko. Ordezko bi ere aukeratuko dira. Zozketa egiteko hautagai guztien izenak kutxa batean sartuko dira eta idazkari judizialak bederatzi txartel atera

eta hautatutakoen izenak ozen esango ditu. Horiei alderdiek nahi dituzten galderak egin diezazkiekete, betiere magistratuak egokitzat hartzen baditu. Ondorioz, eta inolako arrazoirik eman gabe, akusatuek 4 zinpeko eta akusatzaileek beste 4 errekusa ditzakete. Logikoki, alderdiak anitzak badira, hau da, akusatu bat baino gehiago edo/eta akusatzaile bat baino gehiago badira, beraien artean ados jarri beharko dute errekusazio horiek burutzeko. Adostasunera heltzen ez badira, zozketaz aukeratuko da alderdiek zer ordenatan errekusa ditzaketen zinpekoak, betiere aipatutako mugen barruan. Metodo hori erabiliko da, lehenengo, zinpeko titularrak aukeratzeko eta ondoren, ordezkokoak hautatzeko. Zozketa bukatzean, epaimahaia eratuko da, ondoren, zinpeko guztiei, banaka eta ZELOk jasotzen duen formularekin bat, zina edo juramentua hartuko zaie. Bukatzean, epaileak entzunaldi publikoa irekiko du.

#### **4.12. Ahozko epaiketa**

Ahozko epaiketa PKLren 680 eta hurrengo artikuluekin bat burutuko da. Berezitasun gisa esan daiteke epaiketa ate itxiekin ospatzeko alderdiak eta zinpeko epaimahaia entzun beharra dagoela (ZELOren 43. art.) eta ezin izango dela inoiz bistarekin jarraitu akusatuaren edo bere defendatzailearen faltan. Kapituluaren hasieran esan den bezala, akusatuaren defendatzailea zinpeko epaimahaiaren esku egon beharko da hark berediktua eman arte. Hala ere, akusatuak bat baino gehiago badira, eta beraietako bat zinpeko epaimahaiaren aurrean agertzen ez bada, magistratu-presidenteak gainerako akusatuak entzun ondoren, prozesuarekin aurrera jarraitzea erabaki dezake. Gauza bera erabaki dezake epaileak erantzukizun zibila duen hirugarrena agertzen ez bada.

Ahozko epaiketan honako lau fase hauek desberdindu behar dira:

1. ALDERDIEN ALEGAZIOAK ZINPEKO EPAIMAHAIARI: kalifikazio-idazkiak irakurriaz hasiko da epaiketa-idazkaria. Ondoren, magistratu-presidenteak parte-hartze txanda bat irekiko du, alderdiek zinpeko epaimahaiari beren alegazioak aurkez diezazkioten. Alegazio horien xedea bikoitza da: batetik, zinpeko epaimahaiari beren kalifikazioak azaltzea eta bestetik, proposatu dituzten frogen helburuak azaltzea.

Posible da alderdiek momentu horretan froga berriak eskatzea. Epaileak berauek onartu edo ez, mementuan erabakiko du, gainerako alderdiei entzun ondoren.

2. FROGAREN PRAKTIKA: onartutako frogak PKLk jasotzen duen araudiarekin bat burutuko dira, zinpeko epaimahaiaren parte-hartzeak zinpekoen aldeko berezitasun batzuk badakartza ere. Horrela, zinpekoek, idatziz eta magistratuak ondo baderitzo, akusatuei, lekukoei edo perituei galderak egin diezazkiokete, betiere frogaren objektu diren egitateen gainean. Gainera, zinpekoak jardueraren parte diren liburuak, dokumentuak eta konbikzio-piezak zuzenean ikus ditzakete. Begizko ikuskapen-froga burutzeko epaimahaia bere osotasunean eratu beharko da, zinpekoak barne.

Legeak Ministerio Fiskala, eta akusatuaren eta akusatzailearen abokatuak baimendu egiten ditu akusatuei, lekukoei eta perituei, instrukzioan eta ahozko epaiketan egindako adierazpenen kontraesanen gainean galderak egiteko. Aurreko adierazpenak ezin dira irakurri, nahiz eta aktari erantsiko zaizkion galdetzen duenak aurkeztu behar dituen testigantzak.

3. KALIFIKAZIOAK: BEHIN-BEHINEKO ONDORIOEN ERALDATZEA ETA BEHIN BETIKO ONDORIOAK AURKEZTEA: frogaren praktika bukatuta, magistratuak alderdiei galdetuko dei beren kalifikazioak aldatu gura dituzten edo behin betiko bihurtzea nahiago duten. Gainera, froga baloratzeko aukera emango zaie. Nahiz eta bere azken edo behin betiko ondorioetan alderdiek egitateak zinpeko epaimahaiaren eskuduntzatik kanpokoak direla esan, hark kasua ezagutzen jarraituko du (ZELOren 48. art.).

4. BEREDIKTUA: azkenik, zinpeko epaimahaiak bere berediktua emango du, eta horretan oinarrituta, magistratu-presidenteak sententzia emango du. Bi horietan honako puntu hauek azpimarratuko dira.

#### **4.13. Deliberazioa eta berediktua**

Ahozko epaiketa bukatuta, informeak eman eta akusatuak entzun ondoren, magistratu-presidenteak zinpeko epaimahaiari berediktuaren objektua aurkeztuko dio idatziz. Horretarako ZELOk honako arau hauek aurreikusten ditu (52. art.):

1. Zenbatutako eta banatutako paragrafoetan alderdiek alegatutako egitateak aurkeztuko ditu, akusatuaren aldekoak eta kontrakoak desberdinu ondoren. Zinpekoak egitate horiek frogatuzat edo ez frogatuzat eman beharko ditu. Magistratu-presidenteak ezin ditu paragrafo berean aldeko eta kontrako egitateak sartu edo frogatuzat eta frogatu gabekotzat har daitezkeenak. Lehenengo akusazioaren gune diren egitateak aurkeztuko ditu eta ondoren, defentsak alegatutakoak. Bai batzuk bai besteak frogatuzat hartzea kontraesanean badago, batzuk bakarrik aurkeztuko ditu.

2. Ondoren, eta baita zenbatutako eta banatutako paragrafoetan ere, erantzukizuna salbuestea ekar dezaketen egitateak azalduko ditu.

3. Hurrengo paragrafoetan, baita zenbatuta eta banatuta ere, exekuzio maila, parte-hartzea eta erantzukizunaren eraldaketa zehazten dituzten egitateak aurkeztuko ditu.

4. Azkenik, akusatua zein delitugatik erruduna edo errugabekoa deklaratu izan behar duen adieraziko du.

5. Delitu bat baino gehiago badira epaiketaren objektu, aurreko guztiak delitu bakoitzarentzat jarraituko dira, delituz delitu.

6. Modu berean jokatu da akusatuak bat baino gehiago badira.

7. Frogaren emaitzen arabera, magistratu-presidenteak akusatuaren aldeko egitateak edo kalifikazio juridikoak sar ditzake, betiere epaitu beharreko egitatean aldaketa nabarmenik ekartzen ez badute eta babes-gabeziarik sortzen ez badute. Magistratuak frogatik aipatutako aldaketa nabarmena erarortzen dela uste badu, erruduntasun maila kopuru berean jaisteko eskatuko du.

8. Magistratu-presidenteak, horrela nahi izanez gero, zigorraren baldintzatutako barkamenaren edo indultuaren gainean azalpenak eman diezazkioke zinpekoari.

Baina zinpekoari berediktuaren objektua jasotzen duen idazkia eman aurretik, magistratu-presidenteak alderdiei entzungo die. Horiek zerbait kentzeko edo gehitzeko eska diezaiokete. Eskaera horiek ez dute magistratua lotzen. Berak egoki ikusten baditu

onartuko ditu, bestela ez. Erabaki horren kontra ez dago helegiterik, nahiz eta eskaeren onarpenik ezaren kontra alderdiek protesta egin dezaketen, azken sententziaren helegiteari begira. Protesta horiek idazkariak aktan jasoko ditu. Horri berediktuaren objektua jasotzen duen idazkia erantsiko dio. Akta horren kopia alderdiei eta zinpeko guztiei emango die (ZELoren 53. art.).

Ondoren, audientzia publikoan, idazkaria eta alderdiak aurrean direla, magistratu-presidenteak berediktuaren objektua jasotzen duen idazkia emango die zinpekoei. Aldi berean, zenbait azalpen emango dizkie, batzuk orokorrak (egin beharreko funtzioa, deliberaziorako eta botaziorako arauak, berediktua nola adierazi), eta beste batzuk, zehatzagoak (eztabaidatutako egitateen izaera, beraiek osatzen duten delitua, eta izan dezaketen erantzukizunaren salbuespena edo eraldaketa).

ZELOk magistratuari zinpekoei frogaren emaitzari buruz bere iritzia ematea debekatu egiten dio, bi salbuespenekin: magistratuak bidegabekotzat edo baliogabekotzat hartu dituen frogak kontuan hartu behar ez dituztela esan diezaieke. Gainera, deliberazioaren ondoren, frogari buruz dituzten zalantzak argitzen ez badituzte, akusatuaren alde erabaki beharko dutela esan ahal izango die (54. art.).

Hurrengo pausua zinpeko epaimahaiaren deliberazioa da. Horretarako pentsatuta dagoen aretoan atea itxita bilduko dira. Deliberazioa sekretua da, kanpokoekin komunikazioa galarazten baitzaie. Deliberazioa luze badoa, magistratuak atsedean hartzeko eska diezaieke, betiere inkomunikatuta. Hasiera batean zozketan lehenengo atera zena presidente modura bozeramaile izateko aukeratuko dute.

Posible da zinpekoren batek berediktuaren objektuaren elementuren baten edo gehiagoren gainean zalantzak izatea. Argitzeko, idazkariaren bitartez magistratu-presidentearen presentzia eska dezakete idatziz. Edozein kasutan, magistratua audientzia publikoan aurkeztuko zaie, idazkaria, Ministerio Fiskala eta alderdiak aurrean izanik.

Deliberazioa bukatuta, zinpekoek boza eman beharko dute. Boza izenduna, ozen eta alfabetoaren ordenaren arabera emango da, eta bozeramailea azkena izango da. Ezin da abstentziorik eman, eta ekiditeko legeak diruzko zehapenak aurreikusten ditu. Edozein

kasutan, abstentzioa emanaz gero, egitatea froga gabe eta akusatua errugabe gisa irakurriko da.

Lehenengo, magistratuak proposatutako egitateen gainean eta hark aurkeztutako ordenan. Egitate bakoitza frogatuzat jotzen duten edo ez adierazi beharko dute. Hala ere, ZELOk zinpekoak baimendu egiten ditu egitateetan, ez bere edukian -hau aldaezina delako-, baizik eta haien idazketan aldaketak egiteko, jatorrizkoak egitateak frogatuzat emateko gehiengoak lortzea oztopatzen badu. Egitateak frogatuzat emateko, akusatuaren kontrakoak direnean, 7 zinpekoren bozak beharko dira. Aldekoak direnean, 5 zinpekoren boza nahikoa izango da, frogatuzat emateko.

Egitateei dagokienez, beharrezko gehiengoa lortuz gero, akusatu bakoitzari egotzi zaion delitu bakoitzeko, erruduntasuna edo errugabekotasuna botatuko da. Erruduntasuna finkatzeko 7 boto beharko dira. Errugabekotasunerako 5 nahikoak izango dira.

Azkenik, zigorraren baldintzatutako barkamena errudunari aplikatzeko eta sententzian indultu-eskaria jasotzeko 5 zinpekoren aldeko botoa behar da.

ZELOk bozaren akta jasotzea aurreikusten du, eta bere edukia zehatz-mehatz arautzen du (61. art.). Bost puntutan jaso daiteke eduki hori:

- 1) Frogatuzat hartzen diren egitateak eta erabaki hori gehiengoz ala aho batez hartu den.
- 2) Frogatu gabekotzat jotzen diren egitateak eta erabaki hori nola hartu den.
- 3) Aurreko bien ondorioz, akusatua errudun edo errugabeko jotzen den. Akusatu asko badira, bakoitzarentzat pronuntziamendu bat jasoko da. Beti adieraziko da erabakia nola hartu den eta kasu bakoitzean zer delitu egozten zaion. Puntu horretan adieraziko da baldintzapeko zigorra edo indultuari buruzko zinpekoaren iritzia.
- 4) Labur-labur zenbait egitate frogatuzat edo frogatu gabekotzat jo diren.

5) Deliberazioan emaniko jazoerak, betiere sekretua mantenduz. Norbaitek botoa eman nahi izan ez badu, bereziki jasoko da.

Akta hori bozeramaileak idatziko du, gehiengoaren iritziaren kontrakoa ez baldin bada behintzat. Azken kasu horretan, zinpekoek akta idaztearen ardura beraietako bati emango diote. Bozeramaileak edo akta idaztearen ardura duen beste zinpekoak laguntza eska diezaiokete magistratu-presidenteari akta idazteko. Hark onartuz gero, idazkariak lagunduko die akta idazten. Ez bere edukia finkatzen, baizik eta bere egitura zehazten.

Zinpeko guztiek sinatuko dute akta. Bat edo batek ezin badu egin, bozeramaileak egingo du bere izenean.

Behin akta idatzi ondoren, kopia bat emango zaio magistratuari. Hark alderdiak agerraldi publiko batera deituko ditu. Horretan, zinpekoen bozeramaileak berediktua irakurriko du.

Posible da magistratu-presidenteak akta zinpekoari itzultzea. Horrela izango da ondorengo akatsen bat izaten badu:

- 1) Egitate guztiak kontuan hartu ez baditu.
- 2) Akusatu guztien eta egotzitako delitu guztien gainean erruduntasuna edo errugabekotasuna aldarrikatu ez bada.
- 3) Botazioen batean beharrezko gehiengoa lortu ez bada.
- 4) Pronuntziamenduak kontraesankorrak badira, bai frogatutako egitateei buruzkoak bai erruduntasunari buruzkoak.
- 5) Deliberazioan edo botazioan akats handi bat gertatu bada.

Akta itzultzea erabaki badu, magistratu-presidenteak audientzia publikoan, alderdien eta idazkariaren presentziarekin, itzultze horren arrazoiak eta akatsak nola konpondu adierazi beharko du.



Legeak gehienez hiru itzultze aurreikusten ditu. Ondoren, oraindik akatsak konpondu gabe badaude, zinpekoa desegingo du eta berri batekin ahozko epaiketa deituko du.

Era berean, aktak magistratuak proposatu ez duen egitate bat frogatuzat ematen badu, eta horrek egitateen eraldaketa nabarmena edo akusatuaren erantzukizun handiagoa badakar, ez jarritzat joko da.

Behin berediktua irakurri ondoren, zinpekoaren funtzioak bukatuzat ematen ditu ZELOk (66. art.). Orduetik aurrera, magistratu-presidenteak jarraituko du lanean.

#### **4.14. Sententzia**

Berediktuarekin bat, magistratu-presidenteak kondena- edo absoluzio-sententzia bat emango du.

Sententzia kondenazkoa bada, hau da, akusatuaren erruduntasuna adierazten bada, epaileak hitza emango die fiskalari eta gainerako alderdiei, errudun bakoitzari jarri beharreko zigor- edo segurtasun-neurriei eta kasuan kasuko dagokien erantzukizun zibilarari buruz bere iritzia eman dezaten. Zigorraren baldintzapeko barkamenaren gaineko iritzia ere erakutsiko dute. Sententziak kondenaren oinarria diren frogak zehaztuko ditu.

Berediktua errugabetasunekoa izan bada, epaileak absoluziozko sententzia bat emango du eta akusatua aske uzteko aginduko du.